



2018ko Memoria

Informazio
ez-finantzarioaren
egoera



2018ko Memoria

Informazio
ez-finantzarioaren
egoera

1 2 3 4 5 6 7 8





Memoria hau aurkezten dizuegu, geure izaerarekin bat datorrelako eta beharrezkoa delako gardentasunez jokatzea gizartearen eta gure interes taldeen aurrean. Hirugarren urtea dugu txosten hau prestatzen duguna geure Global Reporting Initiative (GRI) estandar berriei jarraituz, eta helburua da gure eragina eta hobekuntzarako ekintzak gero eta hobeto komunikatzeko, geure jasangarritasun maila neurtzeko erabiltzen ditugun hiru ikuspegiak azalduta: ekonomia, gizarte eta ingurumena.

2018. urteak geure plan estrategikoaren erdialdean kokatzen gaitu, eta hiru ardatz nagusi ditu: bereizgarritasuna, osasuna eta jasangarritasuna. "Zurekin" eredu komertzialaren emaitza onei esker, sendotu egin dugu iparraldean dugun lidergoa, eta eremu horretan egin ditugu gure sarearen eraldaketarik gehienak. Horren osagarri, gainera, geure posizioa indartzen lagundu diguten denda propioak eta frankizia erakoak ireki ditugu. Hala, geure emaitza operatiboek hobetzen jarraitzen dute, eta negozioaren osasun ona berresten du horrek. Horri esker egonkortasun sendoa lortu dugu azken urteetan, eta etekinek, azken urteetan balio katean egindako eraldaketen emaitza diren horiek —hasi prozesu logistikoetatik eta hornitzaileekin ditugun harremanetatik dendaraino eta EROSKI club-en bitartez gure Bazkide Bezeroekin ditugun harremanetaraino—, bide onetik goazela erakusten dute. Hortaz, bide orriari eutsi behar diogu, komertzio hobea izan gaitzen, eta gauza izan gaitzen etengabe eboluzioan den kontsumitzailearen premiei erantzun bat emateko. Alde horretatik, orain, gure asmoen ardatzean, zera dago, gainerako merkatuetan ere egin beharreko birmoldaketak bizkortzea; besteren artean: Balearretan aurrerapen esanguratsuak egitea eta, Katalunian ere aurreratu, han ere geure lehiakortasunari bultzada ematea.

Pauso garrantzitsua eman dugu geure bezerorik onenekin, eta emaitza apartekoa izan da: Oro Programa, erosketa guztietan deskontuak eskaintzen dituen egitasmoa. Bazkide Bezeroen Klubaren ekimen bat da, eta gaitasun handiagoa eman digu haiek ezagutzeko eta harremana estutzeko, orain parte hartzaileagoa eta pertsonalizatuagoa baita, eta horretan sakontzen jarraituko dugu.

Hala berean, jarraitzen dugu gure eraldaketa digitalarekin, eta, 2018an, bigarren urtez segidan aitortu digute on line supermerkatuak onena dugula. Horrek berresten du bezeroek balorazio bikaina egiten dutela gutaz. Horretaz gain, urtearen amaieran liderrak izan gara on-line eskariak bezeroari helarazteko zerbitzuan, 50 bilgunerekin, bai autoz eta bai dendan jaso daitezkeenak.

EROSKI n uste dugu bai denda fisikoa eta bai on-line denda toki aproposak direla elikadura ona, osasungarria eta ingurumena errespetatzen duena sustatzeko. Horregatik, 2018an, publiko egin ditugu osasunaren eta jasangarritasunaren aldeko gure hamar konpromiso berriak. Horiek markatzen dute gure bidea, eta hogeit hamar lerro baino gehiago jarri ditugu martxan, betetzeko asmoarekin. Na-

barmentzekoa da, Espainian aurrendaria baita, nutrizio arloan Nutri-Score etiketa aurreratua martxan jarri izana geure markako produktuetan. Horretaz gainera, berriz merkaturatu dugu gure EROSKI Natur marka, aparteko zapoak dituzten produktu freskoekin eta jatorri arduratsuaren bermearekin. Marka horrekin merkaturatzen diren janariak zenbait irizpide betetzen dituzte, hala nola animalien ongizatea zaintzea, arrainaren zaintza katearen ziurtagiriak izatea, antibiotikoen erabilera ardurazkoa egitea eta uza bildu ondoren tratamendurik ez egitea.

Hurbileko elikagaiak kontsumitzearen alde ere badihardugu, eta bultzada ematen diogu nekazaritzako elikagaien sektoreari, sektore horren jasangarritasunerako oinarritzakoa baita ekoizpen ehuna gakoa izatea bai ekonomian, bai tokian tokiko kultura eta bai ingurumenean. Kooperatiba gisa, horrek engaiatzen gaitu aniztasun horren alde egitera, kolaborazio guneak sortzera eta hornitzaile mordo batekin lan egitera. Hala, gure proposamen komertziala gero eta bereziagoa da, eta elikadura osasungarriagoa eta jasangarriagoa erraztera bideratua dago.

Ingurumenarekin dugun konpromisoari dagokionez, halaber, gure prozesuak eta dendak etengabe hobetzen ari gara. Ildo hori gure garapena estrategikoaren ardatzetako bat dela erakusten dute plastikoen kutsadura borrokatze-ko gure ontzien eta bilgarrien ekodiseinuak, logistikaren kudeaketa efizienteak, denden eraikuntza eta berrikuntza ingurumen irizpideen arabera egiteak eta ekipamendu ekofizienteak.

Ingurumen jasangarritasunaren ildotik baina hala berean gizartearekin ere konpromisoa hartuta, elikagaien arloan Zero Hondakinen helburuari eutsi diogu; horri esker, gure sare komertzialean ez da alferrik galtzen jateko moduan dagoen elikagairik. 2018an, 4.928 tona produktu eman genituen gehien behar dutenentzat Estatu osoko ehun gizarte erakunderen baino gehiagoren bitartez, betiere elikadura segurtasunaren, doakotasunaren eta elkartasunaren baldintzak bermatuta.

Hortik kanpo, Estatuko elkartasun kausa eta entitate nagusiekin kolaboratzen dugu, bai eta kausa sozial askotarikoan alde diharduten dozenaka erakunde motarekin ere. Ekintza horietako asko EROSKI Fundazioaren bitartez bideratzen ditugu, zeinak gure urteko etekinen %10 kudeatzen baitu; ehuneko hori da proiektu sozial eta solidarioetara bideratzen duguna.

Aipamen berezia merezi du fundazioaren beste ardatz nagusietako batek ere: kontsumitzaileen hezkuntzak eta formakuntzak, alegia. Formakuntzarako bokazio hori duela 40 urte abiatu genuen EROSKI CONSUMER proiektu informatiboaren bitartez; kontsumitzaileentzat dauden aldizkarietan liderra da gure hizkuntzan, eta urtean 50 bat milioi bisita jasotzen ditu webguneak. Proiektu horretatik kanpo, hor da, era berean, EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskola bere Elikadura eta Ohitura Osasungarrien Hezike-

ta Programarekin; proiektu horren bidez, milioi bat ikasleri baino gehiagori eman zaio formakuntza 2013tik hona. Etorkizuneko herritarren elikadura ohiturak hobetzeko pentsatua dago, eta, aurreko ekintzak bezala, osasunaren eta jasangarritasunaren alde hartuak ditugun konpromisoe-tan sartzen dira.

EROSKI osatzen dugun pertsona guztien artean, gure proiektu kooperatiboa indartzen ari gara, eta toki bat irabazten etorkizunean. Barne indar kolektibo horri esker iraun dugu gaur arte, dagoeneko ia 50 urte, eta zalan-tzarik gabe horretan egongo da etorkizuneko kokka; horre-tan, eta gizarteak guregandik espero duen eta merezi duen horretan. Bide zuzenean goaz.

Urteko txosten hau irakurtzera animatzen zaituztet, horre-la jakingo baituzue zehazki zer egin dugun 2018an, eta zein ekintza dauden 2002an Mundu Itunaren kide egin ginenean berretsi genituen konpromisoei lotuak (urtero berritzen dugun garapen jasangarriaren aldeko itun hori). Hala, hor dihardugu Nazio Batuek Garapen Jasangarria-ren alde ezarri zituzten 17 Helburuak erdiesteko bidean, zeinak 2016ko urtarrilaren 1ean sartu baitziren indarrean. Espero dugu interesgarria eta burua argitzeko baliagarria izango zaizuela.

Eskerrik asko.

Agustín Markaide.
EROSKI Taldeko presidentea

Datu nabarmengarriak 2018



 **5.393**
milioi euroko fakturazioa

 **5.000**
tona elikagai eman ditugu dohaintzan,
9.747 dieta personalen parekoa

 **30.048**
langile EROSKI Taldean

 **3.000**
glutenik gabeko produktu,
horietatik...

 **4.698**
milioi euroko
salmenta garbiak banaketan

 **+43.000**
tona hondakin birziklatu nahiz balorizatu
egiten ditugu leonomia zirkularraren
printzipioak beteta

 **413.499**
kontsultari erantzun dio gure Bezeroari
Erantzuteko Zerbitzuak
zazpigarren urtez jarraian sarituta

 **541**
marka propioak

 **1.652**
saltoki

 **4.200**
hornitzaile komertzial

 **13.000**
Bazkide Bezerok parte artu dute, beren
ideiekin gure eskaintza komertziala eta
gure dendak hobetzeko

 **19.509**
análisis de producto y auditorias a tiendas,
plataformas y plantas de producción de
proveedores

 **58**
irekiera berri

 **2.493**
ekoizle lokal txiki eta enpresa ertain

 **+3.300**
enplegu frankizietan

 **869.411**
ikasle formatu ditu Elikadura eta Ohitura
Osasungarrirei buruzko Heziketa Programak
hastapenetik

 **+6**
milioi Bazkide Bezera

 **21.352**
erreferentzia, tokian tokiko produktuena

 **%71**
emakumezko dira erantzukizuneko
postuetan

 **Aurrendariak**
gara **Nutri-Score** etiketa ipintzen; nutrizio
arloko informazio aurreratua da, hobeto
jaten laguntzen du



1

EROSKI

Enpresa eredu berezia


102-1; 102-2; 102-5; 102-7

EROSKI, kooperatiba izanik, kontsumo handiko ondasunak eta zerbitzuak banatzen dituen txikizkako lehen banaketa taldea da Espainian, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. Taldearen enpresa nagusia EROSKI Koop. E. kontsumo-kooperatiba da, zeinak hiru ezaugarri biltzen baititu bere baitan: banaketa enpresa bat da, kontsumitzaileen antolakunde bat da eta proiektu kooperatibo bat da non kontsumitzaileek eta langileek protagonismoa eta subiranotasuna partekatzen duten.

Enpresa eredu berezi horren bidez, bi alderdi batzen dira; batetik, profesionalek zuzenean kudeatzen dute erakun-

dea, eta, bestetik, gobernuan daukagu gure interes talde nagusia, hau da, gure bezeroak. Horri esker, elkarri loturik eta koordinaturik gelditzen dira entitatearen estrategia espezifikoak eta langileen eta kontsumitzaileen eskari orokorrak. Gaur egun, kooperatibak eta haren mendeko beste 26 sozietateek garatzen eta kudeatzen dute gure negozioen sare komertziala; EROSKI Taldea osatzen dute horiek, eta berak kontsolidatzen dira taldearen finantza egoeretan. Sozietate horien zerrenda dator memoria honetako gardentasunaren kapituluan, eta, orobat, horietako bakoitzak agiri honetan aipagai diren zein alderdi betetzen duen.

EROSKI Taldearen 27 sozietateen organigrama eta EROSKI Kooperatiba Elkartek haietan duten partaidetza, ehunekotan:



102-2; 102-6

Eskaintzen ditugun produktuen eta zerbitzuen kalitatea eta bikaintasuna gero eta handiagoa izan dadin saiatzen garenez, EROSKI Taldearen barruan zenbait entitate daude negozio lerroetan eta eskualde geografiko jakinetan espezializatuta daudenak; hona hemen nabarmentzeko batzuk:



CAPRABO da erreferentziazko supermerkatu konpainia Katalunian. 1959an sortu zen, eta Espainiako supermerkatu enpresarik antzinakoena da; haren sarearen eskualde estrategikoak Katalunia eta Andorra dira. 2007. urtetik, EROSKI Taldearen parte da CAPRABO.



VEGALSA-EROSKI, erdibana dute Ventura Gonzalez familiak eta EROSKIk. EROSKI Taldearen parte da 1998tik, eta erreferentziazkoa da Galiziako banaketa komertzialean. Gaur egun, inguruko erkidegoetara zabaldua du bere jarduera, hots, Asturiasera eta Gaztela eta Leonera, zeinetan sendo ezarria baitago.



EROSKIk bidaia agentzia propioa du, EROSKI Bidaiak, eta, oporren sektoreaz gain, leku nabarmena du enpresa bidaietan eta biltzarren antolamenduan, bere bi marken bitartez: Travel Air eta Travel Air Events.



FORUM SPORT kirol arloan EROSKI Taldeak duen ikurra da. 25 urteko eskarmentuarekin, kirol materiala saltzen espezializatua dago, eta 10 erkidego autonomotara hedatuta da; gainera, hazkunde erritmo positiboa darama.



Eginkizuna, ikuspegia eta balioak102-16

Gure eginkizuna

EROSKI kontsumo arloko kooperatibagintzatik sortu zen 60ko hamarkadan, zazpi kontsumo kooperatiba batu zirenean kalitatezko produktuak merke eskuratzeko eta kontsumitzaileen eskubideak defendatzeko. Geroztik, gure enpresaren estrategia helburu horri lotua egon da, kontsumitzaileen beharrak eta eskariak integratzen baititu.

Gure eginkizuna da gizarteari ondasunak eta zerbitzuak eskaintzea zertarako eta kontsumitzaileen bizi kalitatea, osasuna eta ongizatea hobetzeko, kalitate, informazio eta prezio baldintzarik onenetan, kontsumo jasangarria sustatzeko konpromisoarekin.

Gure ikuspegia

EROSKIn langileak ere gure jardueraren erdian daude, enplegu jasangarria eta kalitatezkoa sorraraztea bilatzen baitugu. Gainera, etekinekin, aberastasun handiagoa lortzeko eta era solidarioan banatzeko lan egiten dugu;

bestalde, konpromiso handiz sustatzen ditugu gizartean osasuna, ongizatea eta garapen jasangarria. Horrekin haxe bilatzen dugu:

Bezeroei soluzio egokiak ematea etengabeko berrikuntzaren bitartez

Espainiako merkatuan lidergo posizioak lortzea

Kontsumitzaileen defentsarekin konprometitzea

Pertsonak integratzen dituen enpresa proiektu eta eredu bat sortzea

Aberastasuna sortuko duen hazkunde ahalbidetzeko etekinak lortzea

Ingurumena errespetatzea eta horren aldeko kudeaketa bultzatzea

Langileen garapen pertsonala eta profesionala sustatzea

Gure inguruneke ekonomia indartzea tokian tokiko hornitzaileekin

Gu gauden komunitatea hobetzen laguntzea



Gure ikuspegia dela eta, kontsumitzaileen beharrak eta eskariak txertatzen ditugu gure estrategia komertzialean, gure dendak haien gogokoenak izan daitezen.

Gure balioak

EROSKIn, bost balioak erakusten dute zein den gure enpresaren proiektua eta nola erlazionatzen garen gure jardueraren inguruan dabilzan pertsonekin eta ingurunearekin berarekin:

Lankidetz

Langileak protagonista dira EROSKIn, ez bakarrik beren jabetzakoa den kooperatiban, baita gainerako sozietateetan ere, erakundearekiko konpromisoa dela medio.

Partaidetza

Kontsumitzaileen iritzia txertatzen dugu kooperatibaren estrategian haien partaidetzarekin eta geure bezeroei era aktiboan entzunda.

Berrikuntza

Gure ustez, ezinbestekoa da gure jarduera eremuetan etengabe berrikuntzak egitea bai enpresak aurrera egin dezan eta bai gure jarduerak gizartean eta kontsumitzaileengan eragiten dituen itxaropenetara egokitu gaitezen.

Gizarte-erantzukizuna

Jarduten dugun komunitatearen ongizateari laguntzen diogu, eta, aberastasunaren banaketa solidarioaren bitartez, haren garapen sozialean, kulturean eta ekonomikoan eragiten dugu.

Konpromisoa

Gure egunerokoan aintzat hartzen dugu kontsumitzaileen osasunaren eta segurtasunaren defentsa, nola eta produktu sano, seguru eta osasungarrien eskaintza eginez eta informazio garden, baliagarri eta oso bat emanez. Era berean, gure jarduerak ingurumenean duen eragin ezkorra gutxitzeko lan egiten dugu.

Gobernantza

102-18; 102-19; 102-20; 102-22; 102-23; 102-24; 102-26;
102-27; 102-28; 102-29; 102-30; 102-31; 102-33; 205-2

EROSKI taldearen kudeaketa eredua

Gobernu korporatiboari dagokionez, EROSKI Koop. E. sozietate nagusiari jarraitzen diote Taldearen gainerako sozietateek.

Bestelako gobernantza eredu bat duen sozietate baka-rra dago, nahiz eta Taldearenaren oso antzekoa den eta harekin adostuta egiten den: VEGALSA da, EROSKIk partaidetzaren %50a baitu sozietate horretan.

EROSKI Koop. E. gure sozietate nagusiaren gobernu korporatiboa berezia da, zeren eta kontsumo kooperatiba bat da. Horregatik, bai kontsumitzaileek eta bai langileek parte hartzen dute erakundearen kudeaketan eta erabakietan. Hala, EROSKI bi komunitateren bitartez egituratzen da: batetik daude 1.170.803 Kontsumo Bazkide (aurreko urtean baino %4,72 gehiago da hori, beste 52.797 bazkide kontsumitzaile berrirekin), zeintzuek beren kontsumitzaile izaeraren kontzientzia berezia duten eta kooperatiban inplikatzeko erabakitzen duten; eta, bestetik, 9.796 Bazkide Langile (EROSKI Kooperatiba Elkartekoak 8.974), zeinetatik 413 2018an sartu baitira, ekarpena bai kapitalean eta bai lanean egiten dutenak erakundearekiko beren konpromiso horretan.

Bi kolektiboak kudeatzeko, bakoitzari bere estatutuak eta araudiak eman dizkiogu, eta horiek arautzen dute bien antolakundea bakoitza bere egitura propioarekin.

EROSKI Koop. E.-aren gobernu korporatiboa, kudeaketa eta ordezkaritza bere Kontseilu Errektorearen bitartez egiten da. Batzar Nagusian hamabi kide egoten dira lau urtez, eta berriz ere hautatuak izan daitezke. Erdia kontsumitzaileen kolektibotik dator, eta beste erdia langileenetik.

Estatutu Sozialek ezartzen dituzte Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritzako kideen bateraezintasunak. Hala berean, lizendapen eta Ordainsarien Batzordeak zaintzen du egokitasun irizpideak betetzen dituztela eta interes gatazkari ez dagoela eta kontuan izaten ditu genero aniztasunaren gaiak.

Antzinatean handiena duen kontseilaria 2009an sartu zen, eta 2018an, barne araudiari jarraituz, kontseilarien erdiak berritu ziren. Nahiz eta gaur egun Kontseilu Errektoreko kideek ez duten ardura exekutiborik, beren eginkizunen artean nabarmentzekoak dira kooperatibako presidentea eta zuzendariak izendatzen dituztela, Barne Erregimenaren araudia finkatzen dutela eta inbertsioak onartzen dituztela.

Kontseilu Errektoreak zuzentzen du Batzar Nagusia, sozietatearen borondatea agertzen duen organo gorena. Era paritarioan osatua dago Bazkide Kontsumitzaileen 250 ordezkari eta beste hainbeste Bazkide Langilez. Dagozkien Kontsumoko eta Laneko Prestaketa Batzarretan berresten dira hautaturiko ordezkariak, eta haien agintaldiak 4 urte irauten du. Bertan, ahotsa bai baina botorik ez dute Kontseilu Sozialeko Presidentetzak eta Zuzendaritza Nagusiak.

Batzar Nagusiaren eginkizunen artean nabarmentzekoak dira kontuak onartzea, emaitzak aurkeztu eta banatzea, kooperatibaren politika orokorrak ezartzea eta, hala dagokionean, Estatutu Sozialak aldatzea. Urtero elkartzen da ohiko deialdi bidez. 2018an, horko kideen erdiak ere berritu egin zituzten.

Kontseilu Errektoreak zenbait eskumen lagatzen dizkio Zuzendaritza Kontseiluari –hilero elkartzen da harekin, erakundearen gai ekonomikoak, ingurumen arlokoak eta sozialak lantzeko–, eta beste batzuk bere baitan eratu-ko batzordeei lagatzen dizkie, zeintzuek beren osaera eta funtzionamendu arauak onartzen baitituzte. Hala, Kontseilu Errektoreak elkartu egiten ditu Auditoretza eta Betetze Batzordea, lizendapen eta Ordainsarien Batzordea eta Batzorde Betearazlea.

Horretaz gainera, kooperatibak Errekurtso Batzorde bat du, Batzar Nagusiak aukeraturiko bost kidez osatua, erdiak 2018an berrituak, gure barne araudiak dakarren bezala; batzorde horren bitartez ebazten dira Kontseilu Errektoreak harturiko erabakien aurka bazkideek aurkezturiko helegiteak eta estatutuekin zerikusia duten gorabeherak. Zaintza Batzordea ere badugu, kontrol organo gisa, Batzar Nagusiko hiru kidez osatua; horiek hauteskunde prozesuen kontrola eta segimendua egiten dute, eta estatutuko 71. artikulua batzordeari ematen dizkion funtzioak betetzen dituzte. Batzorde hori gonbidatu gisa joaten da Auditoretza eta Betetze Batzordera, zeinak korporazioaren ikuskaritza eta gobernua eramaten baititu.

Kontseilu Errektoreak modu proaktiboan izaten du erakundearen kezkari garrantzitsuenen berri, nola eta negozioen, erakundearen eta merkatuaren martxaren segimendua eginez, orobat Kontseilu Errektorearen

saioretan enpresetako zuzendariak adierazten dutenaren bidez. Jarduera horien osagarri dira batzorde bakoitzari dagokion espezialitateko gaien txosten periodikoak eta aurretiko informazio-prozedurak; hala, txosten eta informazio horiek aztertu, eta, ondoren, proposamen espezifikoak prestatzen dira.

Azkenik, Kontseilu Errektoreak bi kontsulta organo ditu: Kontseilu Soziala, 16 bazkide langilez osatua, alderdi sozial-laboralak lantzeko, eta Kontseilu Kontsumerista, Kontsumitzaileen Tokiko Batzordeetako ordezkari osatua, kontsumoarekin zerikusia duten gaiak lantzeko.

Edukien gaineko prestakuntza eta gaurkotze programa bat ere badugu Kontseilu Errektoreko kideentzat; horren helburua da kideek gai ekonomikoen, ingurumen arlokoen eta gai sozialen ezagutzan sakontzea. 2019ko urtarilean bi prestakuntza ekintza izan dira; bat, eskusiboki errektore berrientzat, negozioaren ezagutzara bideratua, eta, beste bat, errektore guztiei begirakoa, arlo ekonomiko finantzarioa, ordainsarien arloa, barne ikuskaritza eta gobernu korporatiboa lantzeko.

Kontseilu Errektorearen, haren baitako batzordeen eta zenbait karguren urteko jardueren autoebaluazioan ere aurreratu dugu, hirugarren urtez segidan. Autoebaluazio horrek galde-sorta indibidualak ditu, eta horietan galdera kualitatiboak erantzuten zaie; horren bitartez, informazio osoa eta hobekuntza-proposamen espezifikoak jasotzen dira. lizendapen eta Ordainsarien Batzordeak autoebaluaziorako galde-sortaren emaitzak analizatu zituen, eta ekintza plan berriak aurkeztu. Kontseilu Errektoreak onartu egin zituen, eta, hala, abian jarri dira plan horiek, kontseiluaren eta batzordeen zereginak eta gaien tratamendua hobetzeko helburuz.




corporativo.eroski.es/eu/
memoria-2018/carta-consejo-rector

Kontseilu Errektorea		Bokalak:	
Leire Mugerza Gárate Bazkide Kontsumitzailea (independientea), Presidentea		Oskar Goitia Zubizarreta Bazkide Kontsumitzailea (independientea)	Lander Beloki Mendizabal Bazkide Kontsumitzailea (independientea)
Edorta Juaristi Altuna Bazkide Langilea, presidenteordea		Gonzalo Loro Periañez Bazkide Kontsumitzailea (independientea)	Iñigo Arias Ajarrista Bazkide Langilea
Sonia Ortubai Balanzategui Bazkide Kontsumitzailea (independientea), Idazkaria		Nerea Esturo Alfube Bazkide Langilea	M^a Asunción Bastida Sagarzazu Bazkide Langilea
		Cristina Gainza Salinas Bazkide Langilea	Eduardo Herce Susperregui Bazkide Kontsumitzailea (independientea)
		Ana Isabel Zariquiegui Asiain Bazkide Langilea	

Zuzendaritza Kontseilua			
Javier Amézaga Baliabideen arloko zuzendaria	Agustín Markaide Presidentea	Iñigo Eizaguirre Sozietateko zuzendari nagusia	
Eva Ugarte Marketin arloko zuzendaria	Rosa Carabel Sarearen zuzendaria	Beatriz Santos Zuzendari komertziala	

EROSKI Kooperatiba Elkarteko gobernu egitura



Erantzukizun exekutiboa ekonomia, ingurumen eta gizarte gaietan

Ekonomia eta finantza arloen kudeaketa

Helburu ekonomikoak ECOFINen bidez kudeatzen dira. EROSKI Koop. E-aren Auditoretza eta Betetze Batzordeak ikuskatzen du, Kontseilu Errektoreko batzordeak eskuordetuta. Batzorde horrek sozietatearen kontabilitate-alorreko informazioaren eta kontrolaren segimendu etengabea egiteko ardura du. Batzorde horren Barne Auditoretzak ebaluazio independentearen ikuspegi sistematikoa ematen dio, eta efikazia eta efizientzia hobetzen du arriskuak kudeatzeko prozesuetan eta barne-kontrolen sistemetan. E-mailzak Kontseilu Errektoreak baloratzen ditu, eta, ondoren, kanpo ikuskaritza batek aztertzen ditu urtero. Gero, Batzar Nagusiak bere onespena ematen die urteko kontuei eta ikuskaritzaren txostenari.

Harreman komertzialak eta tokiko ingurunearen sustapena Zuzendaritza Komertzialetik kudeatzen dira, eta harreman instituzionalak, berriz, Idazkaritza Nagusiaren mende daude.

Gizarte arloaren kudeaketa

Gure langileen kudeaketa Gizarte arloko Zuzendaritza Nagusiaren mende dago. Zenbait sailen bitartez, besteren artean, honako eremu hauen ardura du: Laneko arriskuen prebentzioa, Lan harremanak eta administrazioak, Enpleguaren eta talentuaren garapena, Pertsonen antolamendua eta garapena eta Kudeaketa soziala. Osasun eta Jasangarritasun Saila, Marketin arloko Zuzendaritzaren mende dagoena, Elkartasunaren alorraz eta gizarte ekintzaz arduratzen da, taldeko sozietateen gizarte erantzukizuneko sailekin batera. Zeregin horren osagarri dira EROSKI Fundazioak eremu horretan betetzen dituen zereginak.

Ingurumen arloaren kudeaketa

Ingurumenarekin dugun konpromisoa era transbertsalean kudeatzen da balio kateko eremu funtzional guztien bitartez. Hala nola Garapen eta Logistikaren eremuak —Baliabideen Zuzendaritza Nagusiaren mende daudenak—, Zuzendaritza Komertziala, Sare Komertzialaren Zuzendaritza Nagusia eta Osasun eta Jasangarritasun Saila —Marketin arloko Zuzendaritzaren mende dagoena—. Hala, ziurtatzen dugu erakundearen eremu bakoitzak bere ingurumen gorabeherak kudeatzen dituela. Zeregin horren koordinazioa zenbait forok betetzen dute (Osasun Batzordea, Marketin Batzordea...), eta horiek arduratzen dira enpresaren erabaki estrategikoak hartzeaz.

Kudeaketa hori egiteaz gain, bezeroen artean ingurumena- ren aldeko sentsibilitatea sustatzen dute Osasun eta Jasangarritasun Sailak, EROSKI Fundazioak bere kanpainekin eta Taldearen sozietate askotarikoen gizarte erantzukizuneko sailak.

Kudeaketa etikoa eta ardurazkoa

EROSKlren jarduerak eta harremanak zintzoak eta etikoa- k direla ziurtatzeko, Jarrera Kode bat dugu, gure lan- gileei, bazkideei eta hornitzaileei jakinarazten zaiena, eta eskura dago interes talde guztientzat. Zigorrei dagokienez, EROSKI Koop. E-aren Barne Erregimeneko Araudia dugu, Talde osoari aplikagarri zaiona.

Oro har, gure erakundearen ospe ona eta sinesgarritasu- na zaintzeko, alde batera uzten ditugu gure interesekin bat ez datozen jarduerak, ezarri ditugun arauak betetzen ditugu, agintari eskudunekin kolaboratzen dugu, erakun- dearen aktiboen erabilera ona egiten dugu, eta behar ez bezalako ordain, arreta eta opariei uko egiten diegu.

EROSKik kanal eta komunikabide konfidentzialak ditu Jarrera Kodearekin zerikusia duen edozein kontu kontsul- tatzeko eta jakinarazteko: helbide elektroniko bat, telefono bat eta posta bidez helarazten den inprimakia. Kontseilu Errektorearen Auditoretza eta Betetze Batzordeak izenda- tzen du Betetze Bulegoko arduraduna Barne Kontroleko Organoaren bitartez, zertarako eta jakinarazpen eta kon- sulta horiek hartu, bideratu, segimendua egin, informa- tu eta fitxategietan jasotzeko. Auditoretza Batzordeak arduratzen da kontsultak eta jakinarazpenak hartzeko ezarritako prozedurez, eta balekoa ematen die emandako erantzunei.

Ustelkeriaren eta diru zuritzeen kontrako borroka

Ustelkeriaren eta diru zuritzeen alorrean, EROSKI Taldeak Betetze politika bat du. 2017. urtetik, Arrisku Penei Aurre Hartzeko plan bat dugu, non prebentziozko politika bat diseinatzen den eta barne kontrolerako ezarri beharreko neurriak zehazten. Alde horretatik, Arrisku Penalei Aurre Hartzeko Eskuliburua eratu da, eta bertan honako alderdi hauek jorratzen dira:

- Taldeak aldizka aurre egin beharreko arrisku egoeren xehetasunak.
- Delitu arriskua izan dezaketen operazioetako jarduera protokoloa.
- Delituei aurre hartzeko politika efikaz bat diseinatzeko behar diren gomendioak formulatzea, eta bertan zehaztea Taldeak zein ordezkaritza- eta kontrol-eredu izango duen honako alderdi hauei dagokienez: go- rabeheren jakinarazpenak, neurrien ezarpena edo lehendik daudenen hobekuntza, eta Administrazio Kontseiluarentzako delituzkoak diren jarreraren jakinaraz- pena.

Betetzearen alorreko obligazioak betetzeko Barne Kon- troleko Organoa jarri da martxan. Organo horrek Betetze Bulegoaren laguntza du, eta hura arduratzen da Arrisku Penalei Aurre Hartzeko Plana kudeatu eta bete-arazteaz.

Gure Kode Etikoa

Gure Kode etikoa eguneroko kudeaketaren ardatza da, eta praktikan honako lerro hauei jarraitzen die:

Zuzendaritzaren helburu nagusien artean kudeaketa etikoa **txertatzea**.

Legedian gizarte erantzukizunaren alorrekoak diren alderdiak barneratzea eta etengabe hobetzen **saiazea**.

Adierazleen bitartez erakundearen jokabide etikoa **egiaztatzea**, hobetzeko premian diren jarduera eremuak zehazteko.

Kudeaketa efikoaren aldetik hobekuntza **helburuak finkatzea** eta horiek lortzeko planak egitea eta martxan jartzea.

Kudeaketa sistemaren ezartzeko prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiak behar bezala **formatzea eta informatzea** eta gizarte erantzukizunera begira jardunbide onak sustatzea.

Hornitzaileei eta azpikonttratatutakoei Kode Etikoari buruz behar bezala **informatzea** eta gizarte erantzukizunari buruz jakintza transferitzeko mekanismoak sortzea.

Kanpoko alderdi interesdunei (kontsumitzaileak, jabe- kideen erkidegoak, Administrazioa, bezeroak, hornitzaileak, etab.) **erantzutea**, gure gizarte-jokaerari buruzko interesa agertzen badute.

Gizarte-ari gure Kode Etikoa, haren arauak eta helburuen betetze maila era irekian eta efikazean **jakinaraztea**.

Interes gatazken prebentzioa eta kudeaketa

Zenbait mekanismo ezarri ditugu barne arau haueta- tik erator daitezkeen interes gatazkei aurre hartzeko edo kudeatzeko: EROSKI Koop. E-aren Estatutu Sozialak, Auditoretza eta Betetze Batzordearen Araudia, Jokabide Kode Korporatiboa, Kontratazioaren Barne Prozedura eta Zuzendaritzaren Estatutua.

Gure araudiaren arabera, Batzar Nagusiak baimendu behar du kooperatiba Kontseilu Errektoreko, Zaintza Batzor- deko edo Zuzendaritzako kideren batekin edo beren fa- miliakoren batekin lotzen duen edozein jarduera, bigarren mailako odolkidetasuneraino edo ezkontza-ahaidetasu- neraino. Horretaz gain, Auditoretza eta Betetze Batzordea- ren eskumenetan dago Kontseilu Errektoreari informatzea interes gatazkak gertatzen badira sailetan eta zuzenda- ritzetan, lizendapen eta Ordainsari Batzordeak egindako txostenen arabera.

Ingurumen eta arriskuen kudeaketa

EROSKI Koop. E-aren Auditoretza eta Betetze Batzordeari eta Barne Kontrolerako Organoari dagokie, batez ere, ekonomiaren, ingurumenaren eta gizartearen alorreko ingurumen, arriskuen eta aukeren identifikazioa, eba- luazioa eta kudeaketa. Haiek arduratzen dira Kontseilu Errektoreari aldizka informatzeaz zein organori dagokion, azken batean, erakundearentzat arriskuak izan daitez- keen guztiak kudeatzeko barne-arauak betetzen direla zaintzea.

Horretaz gain, **Arrisku Penalei Aurre Hartzeko Plana** ga- ratu dugu. Urtero berrikusten da, eta bertan identifikatzen da zein diren EROSKI Taldearen jardueretan delitu izateko probabilitaterik handiena dutenak. Plan honek EROSKI Talde osoa hartzen du, salbu eta VEGALSA, zeinak berea propioa baitu, eta FORUM SPORT eta EROSKI Bidaiak, zeinetara 2019an zabalduko den. Planean ageri dira arrisku handiena duten sailak edo eremuak, zein egita- terengatik hauts daitezkeen araua eta zer neurri hartu behar dituzten arrisku taldeek, orobat hura ikuskatzeko eta egiaztatzeko erabiliko diren monitorizazio prozesuak.

Baliabide naturalen eta ingurumenaren kontrako delituei dagokienez, zenbait jarduera jasota datoz EROSKlren sail bat baino gehiago inplika litzakeenak, orobat haiei aurre hartzeko neurriak eta ezarritako dauden kontrol es- pezifikoak, zeinak funtsean diren Taldeko organoek elka- rri berri emateko sistemak. Horretaz gainera, ingurumen erantzukizunaren poliza bat dugu, zeinak urteroko muga erantsi bat duen 10 milioi euroko estaldura guztietarako eta 5 milioi euroko muga bat istripu bakoitzeko estaldura guztietarako.

Prebentzio testuinguru honetan, Kontseilu Errektoreak, urtero, sakon aztertzen ditu korporazioaren arriskuak oro har. *Gobernu korporatiboaren urteko txostenean* (E ata- la) –eskura dago EROSKlren webgunean– arriskuei buruz- ko informazioa dator (arriskuak kudeatzeko sistemaren irismena, arriskuak kudeatzeko sistemaz arduratzen diren organoak, ekitaldian gauzatutako arriskuak...).

VEGALSaren kudeaketa eredua

Gobernu korporatiboari dagokionez, EROSKI Koop. E. sozietate nagusiari jarraitzen diote Taldearen gainerako sozietateek.

Dena den, VEGALSA, EROSKIk partaidetzaren %50a duen sozietatea izanik, badu bestelako gobernantza eredu bat, nahiz eta Taldearenaren oso antzekoa den eta harekin adostuta egiten den.

VEGONSA Agrupación Alimentariaren Administrazio Kontseiluko presidentea Javier Amezaga da, EROSKIk Baliabideen zuzendari nagusia. Administrazio Kontseilua, berriz, VEGALSAn erabakiak hartzeko organo gorena da, eta hilero egiten dute bilera. Baimena ematen du saltoki komertzialak ireki, itxi eta lekualdatzeko, kopuru batetik gorako inbertsioak egiteko (araudia), zuzendaritza taldean aldaketak egiteko, eta abar, eta urtero jarraibide batzuk ezartzen ditu Kudeaketa Plana eratzeke (helburu kualitatiboak) eta urteko aurrekontu ekonomikoak prestatzeko.

Administrazio kontseiluak urtero autoebaluazio bat egiten du. Ebaluazio horretatik eratorritako neurrien artean, nabarmentzekoa da segimendu zorroztagoa egiten zaiela beharrezkotzat jotzen diren gaietara eta zenbait gaitan aurretik zegoena baino kontrol zorroztagoa egiten dela lehendik ebaluazio zorrotzik egiten ez zen gaitetan edo tratamendu jakinik ez zutenetan.

Administrazio Kontseiluak, bere eraketako testuan, Zuzendaritza Nagusiari uzten dizkio enpresaren funtzionamendu onaren mesedetan zuzendaritza-kargu horri dagozkion erabakiak, salbu eta hari laga ezin dizkionak. Horretaz gain, Administrazio Kontseiluak zenbait zuzendaritza ahal-dundu ditu eginkizun jakin batzuetarako.

VEGALSako zuzendari nagusi Joaquín Gonzálezek hama-bostean behin biltzen du Zuzendaritza Batzardea gainerako zuzendaritzetako arduradunekin, sozietatearentzako garrantzizkoak diren gaiak lantzeko, bai iragarrita zeudenak eta bai ezustean etorri direnak, zertarako eta erabakiak hartu eta ondoren jarraipena egiteko.

Barne Kontseiluak, berriz, zuzendari nagusiak Administrazio Kontseiluan aurkezturiko proiektuak eta gaiak erabakitzen ditu, eta Inbertsio Batzardeak inbertsioak nola egokitu analizatzen du, enpresaren helburuak betetzeko eta errendagarritasun edo efizientzia Planak betetzeko.

VEGONSA Agrupación Alimentaria SA-ren Administrazio Kontseilua.

- Javier Amezaga (Presidentea)
- Rosa Mª Carabel (Bokala)
- Jorge González (Bokala)
- José Alonso (Bokala)

Kudeaketa etikoa eta ardurazkoa VEGALSAn

VEGALSAn beste organo bat ere badugu, **Betetze Batzardea**: Kode Etikoa, politikak eta prozedurak betetzen direla kontrolatzen du. Hiru kide ditu: Pertsonen Saileko zuzendaria, Eremu Korporatiboko zuzendaria eta kanpo abokatua, Sail Juridikoko Betetze Atalaren babes funtzionalarekin.

Horretaz gain, posta elektroniko, telefono eta inprimaki espezifikoak ditugu, zeinetan jasotzen baita edozein salaketa pertsonal ikustekoa duena Kode Etikoa edo Betetze Politikak urratzen dituen delituen baten zantzuekin edo susmoekin.

VEGALSAn sei Betetze Politika ditugu: ustelkeriaren aurkakoa, mesedeak eta opariak, interes gatazkak, erosketak eta kontratazioak, dohaintzak eta babesleitzak eta pribatutasuna eta isilpekotasuna; eta gaur egun, segurtasun politika lantzen ari gara.

Interes gatazken prebentzioa eta kudeaketa

VEGALSAn, Interes Gatazkei Aurre Hartzeko Politika bat dugu, Administrazio Kontseiluak onartua, kontseilarietara, zuzendariei eta enplegatuei begirakoa. Neurri jakin batzuk dakartza, iruzurrei aurrea hartzeko edo detektatu eta zigortzeko eta VEGALSaren funtzioa eta baliabideak kolektibo horien, beren familien eta hurkoen probetxurako ez erabiltzeko. Interes gatazkak Betetze Batzardeak kudeatzen ditu, edo, lagatzea erabakitzen badu, VEGALSaren Sail Juridikoaren Betetze Atalak, zeina Batzordeari laguntzeko eta aholku emateko eratua baita. Era berean, urtero, kontseilariak agiri bat sinatzen dute interes gatazkarik ez dagoela aitortzeko.

Inpaktuen eta arriskuen kudeaketa

Enpresaren barne kontrolaren esparruan, VEGALSAn arriskuak kudeatzeko bi sistema ezarri ditugu: Arrisku Korporatiboen Kudeaketa Sistema eta Delitu eta Arrisku Penalak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Programa (Betetze Plana). Era independentean funtzionatzen dute, baina paraleloki eta koordinatuta. Kudeaketarako eta kontrolerako egitura propioa dute, horretarako eraturiko organo banarekin, baina erantzukizun handiena eta azken erabakia Administrazio Kontseiluarena da. Organo horiek dira, batetik, Arriskuen Analisisirako Batzardea, arrisku korporatiboez arduratzen dena, eta Betetzen Batzardea, arrisku penalak kudeatzen dituenak.

Kasu bakoitzean markaturiko maiztasunarekin, zenbait gai eramaten dira Administrazio Kontseilura eta baloratzen da ea sartuko dituzten edo Arrisku Korporatiboen Kudeaketa Sistemara edo Betetze Planera, eta iritziak ematen dira inpaktu jakinen salbuesteei buruz eta zein maiztasunekin informatu behar den. Administrazio Kontseiluak balekoa eman dio bi sistemen eraketari eta kudeaketari. Era berean, zuzemen arauak eta prozesuak onartu ditu. Delituak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Eskuliburuan *Erabakiak hartzeko Protokoloa* bat sartzen da, zeina kontuak hartu beharra baitute erabakitzeko boterea duten eta sozietatearen borondatearen eraketan funtzioak dituzten organo guztiak.

Arriskuen Analisisirako Batzardeak urtean bitan berri ematen dio Administrazio Kontseiluari, eta Betetze Batzardeak urtean behin, arriskuen deskargua eginez eta intereseko gaien berri emanez. Sail Juridikoaren Betetze Atalak bi deskargu egiten ditu urtean, Betetze Batzardearen aurretik.

VEGALSaren Kode Etikoa

Kode Etikoa jasota daude gure jardueraren alor guztietan aplikatzen ditugun printzipio etikoa eta balioak, eta horren osagarri dira Betetze Politikak eta horiek erdiesteko eratutako prozedurak

 **Legezketasuna:** legea eta barne araudia zorrotz betetzea.

 Pertsonen osasunaren eta segurtasunaren aldeko **konpromisoa**.

 **Errespeturik handiena**, ekitate eta duintasuna langile, kolaboratzaile, bazkide eta lehiakide guztientzat eta enpresari loturiko gainerakoentzat.

 Langileak hautatzeko eta promoziorako **irizpide objektiboak**.

 **Gardentasuna:** objektibotasuna eta profesionaltasuna jardura guztietan eta interes taldeetara harremanetan.

 VEGALSako aktiboen **erabilera**.

 **Intimitatea, datuen babesa** eta isileko informazioa.

 Ingurumenaren aldeko **konpromisoa**.

Elkarteetan dugun partaidetza 102-13

Kooperatiba eta kontsumitzaileen elkarte gisa

Euskadi

- MONDRAGON kooperatiba-taldea
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
- ERKIDE Euskadiko Lan Elkarleen, Irakaskuntza, Kontsumo eta Kreditu Kooperatiben Federazioa
- Elkar-lan S. Coop. – Kooperatibak sustatzeko elkarte
- Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa (KONFEKOOP)
- Kontsumobidea, Kontsumoaren Euskal Institutua
- EKGK Euskadi Kooperatiben Goren Kontseilua
- Work Lan (gizarte-ekonomiako enpresak sustatzea helburu duen irabazi-asmorik gabeko elkarte)

Espainia

- HISPACOOOP Kontsumitzaile eta Erabiltzaile Kooperatiben Espainiako Federazioa
- CEPES Gizarte Ekonomiako Enpresen Espainiako Konfederazioa
- CES Espainiako Kontseilu Ekonomiko eta Soziala
- Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Kontseilua
- AECOSAN Kontsumoaren, Elikagaien Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentzia

Europa

- European Community of Consumer Cooperatives (Euro Coop)

Enpresa arloa

- ANGED Banaketako Enpresa Handien Espainiako Elkarte
- ACES Supermerkatu Kateen Espainiako Elkarte
- AECOC Kodifikatze Komertzialerako Espainiako Elkar-teko zuzendari nagusia
- AEBALL Hospitaletako eta Llobregat Behereko Enpresen Elkarte
- SEBAP Herrialdeko Adiskideen Bartzelonako Elkar-te Ekonomikoa
- Foment del Treball Nacional
- ASCOME Menorcako Saltzaileen Enpresa Elkarte
- ABACO Balearretako Merkataritza Taldea
- ACAIB, Balear Uharteetako elikadura arloko Merkataritzen Elkarte
- CBC Balearretako Merkataritza Konfederazioa
- AFEDECO Balearretako Merkataritza-ko Enpresarien Federazio Patronala
- CAEB Balearretako Enpresarien Elkar-teen Konfederazioa

- CEG Galiziako Enpresarien Konfederazioa
- CEC Coruñako Enpresarien Konfederazioa
- AGRELA Enpresarien Elkarte
- Saboiako Industrialdeko Enpresarien Elkarte - Arteixo
- CEO Orenseko Enpresarien Konfederazioa
- Ferrolterra, Eume eta Ortegaleko Enpresarien Konfederazioa
- FADE Enpresarien Asturiasko Federazioa
- A Coruñako Osteleritzako Enpresen Elkarte
- Ceaoko Industrialdearen Elkarte (Lugo)
- Vigoko Finantza Kluba (Galiziako Enpresarien Zirkulua)
- Coruñako Finantza Kluba (Club Financiero Atlantico)
- Arabako Merkataritza Ganbera
- Bilboko Merkataritza Ganbera

- Nafarroako Enpresarien Elkarte
- Bartzelonako Merkataritza Ganbera
- Mallorcako Merkataritza Ganbera
- Bartzelonako Ekonomia Zirkulua
- Mundu Itunaren Espainiako Sarea
- Retail Forum for Sustainability
- IZAITE Jasangarritasunaren aldeko Euskal Enpresen Elkarte
- Basque Ecodesign Center
- Fundación AZTI
- Basque Culinary Center fundazioa
- 5 al día
- ECOEMBES
- ESADE (Ramon Llull Unibertsitatea)
- IESE (Nafarroako Unibertsitatea)
- Escodi (Bartzelonako Unibertsitatea)
- Pasqual Maragall fundazioa
- Abadia de Montserrat fundazioa
- Impulsa Balears fundazioa
- Sport Cultura Barcelona



Jarduera ekonomikoa

102-7; 201-1; 201-4; 203-1; 203-2; 413-2

 **243 milioi**
pasaldi ordainlekuetatik

 **5.393 milioiko**
fakturazioa

 **4.698 milioiko**
salmenta garbiak

EROSKI taldearen urteko kontu bateratuak

Laburpena, milaka eurotan, 2019ko urtarrilaren 31n	2018	2017	2016
Ohiko diru sarrerak	4.958.957	5.035.577	5.393.938
Banaketako salmenta garbiak	4.698.075	4.792.066	5.164.579
Ibilgetuaren salmentatik etekinik ez duten beste sarrera batzuk	260.882	243.511	229.359
Etekin operatiboa (narriaduren, ibilgetuaren salmentaren emaitzaren eta aktibitate ez-korronteen aurretik)	163.616	137.367	136.909
Narriadurak, ibilgetuen salmenten emaitza eta aktibo ez-korronteak	-42.883	-20.848	5.837
Finantzarioen eta zergen aurretiko etekinak	120.733	116.519	142.746
Emaitza finantzarioa	-114.513	-64.631	-90.696
Partaidetza inbertsioen etekinak/galerak, partaidetza metodoa aplikatuta	-1.711	3.677	508
Mozkinen gainerako zergak	-2.923	-32.106	-59.333
Etendako jardueren etekin garbia	0	9.754	-16.025
Ekitaldiko emaitza	1.586	33.213	-22.800

Aberastasuna sortzen dugu gure ingurunean

EROSKIn, gure enpresa jarduerarekin lorturiko etekinak kooperatibako Bazkide Langileei eta taldeko gainerako sozietateei banatu ez ezik, aberastasuna sortzen dugu zuzenean gure balio kateko eragile askotarikoetan. Eragin ekonomiko positiboa sortzeko orduan, EROSKIn oso presente ditugu kontsumitzaileak, kontsumo kooperatiba garen aldetik gure interes talde nagusietako bat baita; hori da gure oinarria. Horren erakusgarri da, iaz, 302 milioi euro transferitu genizkiela gure bezeroei eskaintza pertsonalen, kanpainen eta promozioen bidez. Horretaz gain, konturatzen gara ingurunearekin dugun konpromisoa zabaldu egin behar dugula eta ez dugula bakarrik gelditu behar gure jarduerak dituen eragin ekonomikoetan; hala, 2018an, 10 milioi euro ipini genituen gizarte helburuetarako Taldearen negozio askotarikoen eta EROSKI Fundazioaren bitartez. Kontsumitzailea formatzea eta informatzea, elkartasuna eta kulturaren eta tokikoaren sustapena funtsezko zutabeak dira, eta horri begira garatzen dugu gure konpromiso soziala.

Era berean, 2018an, zerbitzuen eta produktuen 19.000 hornitzaile pasarekin lan egin genuen, eta 4.013 milioi euro jaso zituzten gurekin duten harreman komertziala dela medio. Alde horretatik, nabarmentzekoa da estatuko gure hornitzaile


le komertzialen %50 tokiko ekoizle txikiak direla; izan ere, gure erosketa eta hornidura politikaren bidez, elikagaien nekazaritza jasangarria bultzatu nahi dugu.

Gainera, badago erreferentziazko beste elementu garrantzitsu bat: gure jarduerak ekonomian zuzenean duen eragina, banatzaile garen aldetik enplegua sorrarazten baitugu. EROSKIko 30.048 langileek 490 milioi euro baino gehiago jaso zituzten beren lanaren ordainetan, eta, horri loturik, estatuko organismoek 190 milioi euroko sarrera izan zuten, gure langileriarik lotutako gizarte ekarpenen eta zergen bidez, irabazien gainerako ekarpenez eta beste zerga batzuez gain.


Era berean, ingurumena babestea eta gure jarduerak ingurumenean izan dezakeen eragina gutxitzea beti dira kontuan hartu beharreko elementuak. Horregatik, hamazazpi milioi baino gehiago inbertitzen dugu urtean ingurumenean uzten dugun aztarna gutxitzeko, eta planetaren baliabide naturalak zaindu eta babesteko.

Aportaciones económicas directas a algunos grupos y áreas de interés


EROSKI-ko langileak 490 milioi euro



Estatua 191 milioi euro



Bezeroak 302 milioi euro



Hornitzaileak 4.013 milioi euro



Ingurumena 17 milioi euro



Gizartea 10 milioi euro



Konpromisoa osasunarekin eta jasangarritasunarekin

EROSKIn, jaio ginenetik berrogei-ta hamar urte honetan, kalitatezko elikaduraren alde jardun gara, eta etengabe igo ditugu geure buruari jartzen genizkion eskakizunak produktu jasangarriago bat eskaintzeko eta hala gure kontsumitzaileen beharrei erantzuteko

Hori dela eta, jasangarritasunaren irizpidea txertatu dugu geure erakunde osoan, nola eta eragin ezkorrak arindu eta baikorrak sustatzearena gure kudeaketa planetan eta plan estrategikoetan sartuta. Hala, jarrera proaktibo batekin, era transbeltsalean dihardugu geure jarduerak ingurumenari eta gure inguruko taldeei kalte egin ahal dizkieten alderdiak hobetzeko.

Geure izaera sozial markatua eta produktuarekin dugun erantzukizuna aintzat harturik, EROSKIn uste dugu denda dela tokirik aproposena elikadura ona, osasungarria eta ingurunea gehiago errespetatzen duena bultzatzeko. 2017an gure konpromisoak gizartean eta ingurumenean txertatzeko lan egin genuen, eta **2018an, EROSKIk**

Osasunaren eta Jasangarritasunaren alde harturiko 10 konpromisoak argitaratu ditugu. 7.800 lagunek lagundu digute konpromiso horiek zehazten, eta horiek gidatuko dute datozen urteetako bidea, egiaz kontsumitzaileei eta gizarteari inporta zaien horren alde egiteko.

1. konpromisoa

Elikagaien segurtasunean inplikatzeko gara

Elikadura segurtasunarekin konprometituta gaude; horregatik, kontrolatu egiten dugu produktuen trazabilitatea eta elikagai freskoen hotz katea. Horretaz gain, prebentziozko kalitate plan bat daukagu, eta, haren bidez, 11.000 analisi baino gehiago egiten dizkiegu produktuei eta urtero ikuskaritzak 300 hornitzailei baino gehiagori.

2. konpromisoa

Elikadura orekatua sustatzen dugu

Elikadura orekatua egiten laguntzen duten elikagaien kontsumoa sustatzen dugu, gure dendetan erosketa erraztuz prezio merkeen eta promozioen bidez, baita EROSKI osatzen dugun guztiok aholkularitza profesionala emanez ere. Horretaz gain, geure markako produktuen kalitatea hobetu dugu, nola eta kopuru handitan kaltegarriak izan daitezkeen osagaiak gutxituta.

3. konpromisoa

Haurren gizentasunari aurrea hartzen diogu

Haurren gizentasunari aurrea hartzeko lanean dihardugu haurrentzako elikadura orekatua sustatuta eta erraztuta, lehentasuna geure produktuen kalitatean jarrita eta produktu osasungarrien kontsumoa sustatuta. Horretaz gain, 2025. urterako, prestakuntza eskainiko diegu 2 milioi haurri eta haien familiei, bizitza osasungarriko ohiturak barnera ditzaten.

4. konpromisoa

Nutrizio behar espezifikoak aintzat hartzen ditugu

Premia espezifikoak dituzten pertsonen geure dendan elikagai orotatik izan dezaten lan egiten dugu, eskaintza handituz eta alternatibak eskainiz, hala nola eskariak egiteko zerbitzua eta geure on line denda.

5. konpromisoa

Ingurumenaz arduratzen den eta hura errespetatzen duen kontsumoa bultzatzen dugu

EROSKIn elikadura jasangarria errazten dugu, eta murriztu egiten dugu gure prozesuek, dendek eta produktuek ingurumenean duten eragina. Gainera, produktu ekologikoak eta ekoizpen prozesu jasangarriagoen bidez ekoiztiak sustatzen ditugu, eta gehigarri artifizialak gutxitzearen alde dihardugu.

6. konpromisoa

Tokian tokiko produktu gehiago eskaintzen dugu

Gure dendan ingurune sozial eta ekonomikoaren garapenean laguntzen dugu, tokian tokiko 20.000 produktu baino gehiago eskainiz, 2.400 ekoizle txikirekin elkarlanean. Gainera, tokikoan tokiko kultura sustatzen dugu komunitatean, ekitaldi gastronomikoak eginez, ekoizpen guneetara bisitak antolatuz eta erro sakonak dituzten festa tradizionalen lagunduz.

7. konpromisoa

Ongi eta merke jatea errazten dugu

Elikadura orekatua eta arduratsua eramateko beharrezkoak diren produktuen prezioak hobetzen ditugu, eta aurrezpen pertsonalizatuak egiten dizkiegu bazkideei, are eskurago jarri elikadura orekatu eta jasangarri bat egiteko bidea.

8. konpromisoa

Entzun egiten dugu, eta garbi eta garden jokatzeko dugu

Modu garbi eta gardenean jokatzeko dugu, eta parte hartzeko bideak irekitzen dizkiegu bazkideei, langileei eta bezeroei, baita intereseko beste talde batzuei ere. Gainera, ahal den argienak eta gardenenak izaten saiatzen gara ontzietan ematen den informazioan.

9. konpromisoa

Geure burua zaintzen dugu langile garen aldetik

Osasunaren, ongizatearen eta kontsumo arduratsuen arloko prestakuntza sustatzen dugu, xede jakin batekin: gure langileen bizi kalitatea hobetzea, prestakuntza, aholkularitza, jarduerak, haiei eta haien familiakoei programak eta tresnak eskainiz.

10. konpromisoa

Bizimodu osasungarriagoa bultzatzen dugu

Osasunaren eta jasangarritasunaren gaineko informazioa bultzatzen dugu zenbait kanalen bitartez, hala nola EROSKI CONSUMER aldizkaria eta www.consumer.es webgunea. Gainera, aholkularitza pertsonalerako programa bat dugu EROSKI Clubeko bazkideentzat, eta haurren eta haien famileen formakuntza bultzatzen dugu Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Programarekin.

10 konpromiso
osasungarriak
jasangarriak

EROSKI garapen jasangarriko helburuekin bat 102-12

Gure jarduerak ez bakarrik tokikoan baizik eta maila globalean ere eragina duenez, uste dugu gure konpromisoak lerrokatu egin behar direla Garapen Jasangarriaren 17 helburuekin, Nazio Batuek 2015ean ezarriak.

Agenda 2030-en helburua da erakunde publiko eta pribatuak inplikatzeko eta indarrak batzea munduko gaur egungo erronkarik handiei aurre egiteko: pobrezia desagerraraztea, planeta babestea eta denon oparotasuna ziurtatzea. Gure konpromisoak ezin hobe lerrokatzen dira gure lehentasunetako GIHein: osasuna eta ongizatea (3. zk.) eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuak (12. zk.).

Gure ustez, garapen jasangarriaren helburu globala lortzeko bide bakarra da denok elkarrekin lan egitea: eragile ekonomiko eta sozialak zein ingurumen arlokoak. Hori dela eta, Nazio Batuek 2002an proposatutako nazioarteko ekimenaren fundatzaileetakoak gara, Mundu Itunarenak, alegia, zeinak mundu osoan onartutako hamar printzipio ezartzea baitu helburu enpresen gizarte erantzukizuna bultzatzeko honako eremu hauetan: giza eskubideak eta enpresa, laneko arauak, ingurumena eta ustelkeriaren aurkako borroka

negozioekin lotutako jardueretan eta estrategietan. Urtero-urtero, gure konpromisoa berresten dugu horako lau eremu horiekin, eta aintzat hartzen ditugu gure erabaki guztietan eta urteko kudeaketa planetan. Gainera, Mundu Itunak enpresen eta erakundearen ahaleginak elkartu nahi ditu GIHei lortzeko.

EROSKIn lanean ari gara, gure ekintzen bitartez 2030erako ezarritako hamazazpi helburu globalak erdiesten laguntzeko eta planetan era baikorrean eragiteko. Jarraian datozen kapituluetan, erakutsiko dizuegu nola gure lan lerroek erantzuten dioten gure konpromisoari eta agenda bateratu eta unibertsal horri.



EROSKI FUNDAZIOA

Jasangarritasunaren aldeko ekintzak gauzatzeko, gutxienez gure etekinen %10 bideratzen dugu Heziketa eta Promozio Kooperatiborako Nahitaezko Ekarpen Funtsera eta interes publikoko beste helburu batzuetara. Baliabide ekonomiko horiek EROSKI Fundazioaren bidez kanalizatzen dira; 1997an sortu zen entitate hori, eta lau ardatz handiren inguruan jarduten du.

Ardatz horiek artikulatzeko, fundazioak diziplina anitzeko adituz osatua dagoen talde tekniko bat du; hala, kontsumitzaileen aldeko ekintzak sustatu, zabalpen kanpainak egin, aldizkariak eta gidak argitaratu, bekak eta laguntzak eskaini eta gizarte erakundeekin kolaboratzen du. Fundazioa patronatuak ziurtatu egiten du urtero prestatzen den Jarduera Plana aurrera ateratzen dela honako printzipio hauek kontuan izanik: inpartzialtasuna, independentzia, gardentasuna, efizientzia eta erantzukizuna.

Lerro estrategikoen eta programen barruan, Fundazioak Elikadura Eskolaren programa kudeatu eta sustatzen du, baita EROSKI CONSUMER aldizkaria ere.

FUNDAZIOAREN EROSKI jardueraren ardatzak



- | | | | |
|--|--|--|---|
| <div style="background-color: red; color: white; padding: 5px; margin-bottom: 10px;">1</div> <p>Kontsumitzaileen formazioa eta informazioa.</p> | <div style="background-color: red; color: white; padding: 5px; margin-bottom: 10px;">2</div> <p>Heziketa, kultura eta lanbide arloak sustatzea, bereziki kontsumismoaren gaian eta ingurumenaren eta ingurumenaren aldeko konpromisoan.</p> | <div style="background-color: red; color: white; padding: 5px; margin-bottom: 10px;">3</div> <p>Elkartasuna eta laguntza sustatzea.</p> | <div style="background-color: red; color: white; padding: 5px; margin-bottom: 10px;">4</div> <p>Kontsumismoari, elikadurari, ingurumenari eta bizi ohitura osasungarriari loturiko ikerketa, garapena eta berrikuntza lantzea.</p> |
|--|--|--|---|

Saria jaso du gure Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren kudeaketak

EROSKIk saria jaso du, Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren Kudeaketa Onenagatik, Ardoaren eta Banaketaren Merkatuetako XI. Enpresa Sariketan.

VEGALSA-EROSKIk saria jaso du Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren balioesten duen Premio Cantabrico saria.

Memoriako edukien zerrenda eta konpromisoekin eta GIHeekin duten lotura

Kapitulua

Osasunaren eta jasangarritasunaren aldeko konpromisoak

Garapen Jasangarriaren Helburuak

1	EROSKI	8: Argitasunez eta gardentasunez jardutea	  
2	"Zurekin" eredu komertziala eta sarea	2: Elikadura orekatua sustatzea 6: Tokian tokiko produktuak ugaritzea 7: Ongi eta prezio onean jateko erraztasunak jartzea 8: Argitasunez eta gardentasunez jardutea 10: Bizimodu osasungarriagoa bultzatzea	   
3	Konpromisoa osasunarekin	1: Elikadura arloko segurtasunaren alde inplikatzeko 2: Elikadura orekatua sustatzea 3: Haurren gizentasunari aurre hartzea 4: Nutrizio arloko premia espezifikoak begiratzea 5: Kontsumo arduratsua egiten laguntzea 8: Argitasunez eta gardentasunez jardutea 10: Bizimodu osasungarriagoa	   
4	Langileak	8: Argitasunez eta gardentasunez jardutea 9: Langile garen aldeak geure burua zaintzea 10: Bizimodu osasungarriagoa bultzatzea	     
5	Balio katea	6: Tokian tokiko produktuak ugaritzea 7: Facilitar comer bien a buen precio 8: Argitasunez eta gardentasunez jardutea	    
6	Ingurumena	5: Kontsumo arduratsua egiten laguntzea 8: Argitasunez eta gardentasunez jardutea 10: Bizimodu osasungarriagoa	         
7	Gizarte ekintza	5: Kontsumo arduratsua egiten laguntzea 6: Tokian tokiko produktuak ugaritzea 8: Argitasunez eta gardentasunez jardutea	     
8	Gardentasuna	8: Argitasunez eta gardentasunez jardutea	



2

Saltoki sarea eta "zurekin"
eredu komertziala

Gure bezeroenganako
konpromisoa

Gure negozioak eta entseinak

102-2; 102-4; 102-6; 102-7

EROSKIren borondatea da formatu askotarikoak izango dituen enpresa eredu bat garatzea, eta, horri esker, erakundeak 1.353 saltokiko sare komertziala du elikadurari lotua, eta 291 saltoki, berriz, askotariko negozioei lotuak, bidaia agentziak, gasolindegia, kirol dendak, optikak eta aseguruak eta 8 online dendak.

Horietatik 1.131 denda EROSKI Taldearenak dira, eta Espainian barrena daude; orotariko bezeroei ematen diete zerbitzu, eta 30.048 langilek kudeatzen dituzte. Horrez gain, 521 denda frankiziatu ditugu eta beste bi herrialdeetan ere bagaude: Andorra eta Erresuma Batua (Gibraltar). Nabarmenezkoa da joan deneko hogeitun urtean zehar lako garapena izan dugun Interneten askotariko on line dendek bidez. Gardentasunaren kapituluaren zerrenda bat dator, nola lotzen diren gure negozioak EROSKI Taldeko sozietateekin.



EROSKI Bidaiak agentziak 162 bulegoko sare du, kon-tuan harturik, Viatges Caprabo (Katalunian) eta on line bu-legoak: www.viajeseroski.es eta www.viatgescaprabo.com. Oporren sektorea ez ezik, enpresentzako zerbitzu eskusi-boak ditu hiri handienetan –besteren artean, Madril eta Bartzelona–, eta dibisio berezi bat du konbentzioak eta biltzarrak antolatzeke, Travel Air Events izenekoa. Travel Air, era berean, partaide da GEBTAn (Guild European Business Travel Agents) eta ITPn (Internacional Travel Partnership).



FORUM SPORTek 897 laguni ematen die enplegua. Nego-zio horrek 66 kirol dendarekin amaitu du urtea. Haren sare komertzialean 13 denda daude sneaker setan eta Dooers gazteentzako arropa markan espezializatuak.



EROSKIk 2018. urte amaieran 50 **gasolindegia** zituen, bere hipermerkatuen eta supermerkatuen ondoan estrategiko-ki kokatuak. EROSKI gasolindegiek kooperatibaren politi-ka bera dute, hau da, beren bezeroei ahalik eta preziorik onenak eskaintzea, ordaintzeko erraztasunak jartzea eta deskontuak egitea, erregaia ahalik eta baldintzarik onene-tan eskura dezaten.



EROSKIk 13 **zentro optiko** ditu profesional, produktu, zerbi-tzu eta berme onenekin. Haren optiketan kalitate eta disei-nu askotariko produktuak daude: betaurreko graduatuak eta eguzkitakoak, ukipen leiarrak, likidoak eta osagarriak. Produktu propio onena, merkatuko marka liderrak eta az-ken joerak eskusiban, hainbat abantailarekin.


Propioak	1.652 Saltoki EROSKI Taldean	Frankiziatuak
1.131		521
Hipermerkatuak		
54	56	2
Supermerkatuak		
783	1.278	495
Cash&Carry		
19	19	-
Gasolindegia		
49	50	1
Optikak		
13	13	-
Bidaia agentziak		
140	162	22
FORUM SPORT kirol dendak		
65	66	1
On line dendak		
8	8	-

Ikusi aurreko urteak konparatzeko balio duten adierazleen eranskineko 2. taula.

Propioak	1.278 supermerkatu EROSKI Taldean	Frankiziatuak
783		495
EROSKI city		
279	515	236
CAPRABO		
256	318	62
EROSKI center		
162	164	-
Aliprox		
-	122	122
Familia		
78	78	-
Onda		
-	64	64
Rapid		
-	9	9
Merca		
8	8	-

Ikusi aurreko urteak konparatzeko balio duten adierazleen eranskineko 3. taula.

Banaketa, autonomia erkidegoaren eta saltokien negozioaren arabera*



	Saltoki propioak							Saltoki frankiziatuak							Guztira
	Elikaduraren negozioa			Negozio askotarikoak				Elikaduraren negozioa			Negozio askotarikoak				
	Hipermerkatuak	Supermerkatuak	Cash & Carry	Gasolindegia	Optikak	Bidaia agentziak	Aisia-Kirola	Propioak guztira	Hipermerkatuak	Supermerkatuak	Gasolindegia	Bidaia agentziak	Aisia-Kirola	Guztira frankiziatuak	
Andaluzia	9			5	1	1		16		54		1		55	71
Andorra								0		7				7	7
Aragoi		36		2		5	2	45		21				21	66
Asturias	1	10	1	2		5	7	26		1				1	27
Kantabria	1	8		1		5	4	19		9		3		12	31
Gaztela eta Leon	1	21		1		9	12	44		6		1	1	8	52
Gaztela Mantxa	5			4	2	2		13		4				4	17
Katalunia	1	239		1		3	1	245		59				59	304
Ceuta								0		1				1	1
Valentziako Erkidegoa	3			1		1	2	7	1		1			2	9
Extremadura						1		1		2				2	3
Galizia	5	149	18	3		5	2	182		122		2		124	306
Gibraltar								0		2				2	2
Balearr uharteak		108		3				111		74				74	185
Kanariar uharteak	1							1						0	1
Errioxa	1	10		1		7	3	22		4				4	26
Madril						4		4		9				9	13
Melilla								0	1					1	1
Murtzia	3			2			1	6				1		1	7
Nafarroa	2	55		4	1	14	6	82		27		2		29	111
Euskadi	21	147		19	9	78	25	299		93		12		105	404
Guztizko orokorra	54	783	19	49	13	140	65	1.123	2	495	1	22	1	521	1.644

* Aisia-kirola atalean FORUM SPORT eta Dooers sartzen dira. Bidaia agentzietan, oporretako negozioa bakarrik sartzen da. Ikusi eranskineko 4. taula aurreko urteekin konparatzeko.

Berritasunak 102-10

2018an, aurrera jarraitu dugu supermerkatuak eta hipermerkatuak "zurekin" eredura aldatzen. Horrez gainera, beste bost supermerkatu eta 37 frankiziatu gaineratu dizkiogu gure sareari. Bestalde, EROSKI Movil telefonía negozioia Vodafone-ri saldu diogu, eta amaitu da EROSKI Taldearen eta DIA Taldearen marka propioak eta fabrikatzaileenak negoziatzeko lankidetzak; betiere, EROSKlren proposamen komertziala aldatu gabe.


Horretaz gain, EROSKI Bidaiak agentziak lankidetzak hitzarmen bat sinatu du EROSKI Bidaien eskaintza Gazte-Txartelaren programara egokitzeko. Hitzarmen horri esker, agentziak abantailak eskainiko dizkie Gazte-Txartelaren erabiltzaileei; besteren artean, haientzako pentsaturiko bidaia plan esklusiboak diseinatuko dituzte, abantaila ekonomiko garrantzitsuekin.

EROSKlrenak

- 8 FORUM SPORT
- 4 Bidaia agentzia
- 4 Gasolindegia
- 5 Supermerkatu

EROSKlren frankiziak

- 37 Supermerkatu



Gure frankizien sarea hedatu dugu

EROSKI jarraitzen du denda frankiziatuen hedapen plana bultzatzen, frankizia erako beste 37 saltoki irekita 2018n eta 15 denda pasa eraldatuta. 52 inaugurazio horiei esker, 308 lanpostu sortu ditu, eta, horretarako, 7,6 milioi euro baino gehiago inbertitu.

Nabarmentzekoa da, halaber, CAPRABOn, %20 handitu dela 2018an frankizien negozioa, eta guztira 62 supermerkatu frankiziatu ditu orain.

Irekiera horien bitartez eta denda propioen sarea eraldatzeko ekimenaren bitartez, bultzada indartsua hartu du EROSKlren belaunaldi berriko dendak ezaugarritzen dituen

"Zurekin" eredu komertzialak, zeina kooperatibak irekitzen dituen frankizia guztietan aplikatzen baita.

Denda frankiziatu horiek 200 metro koadrotik hasi eta 5.000rainokoak dira, eta eredu berriak dakartzate; esaterako, RAPID komenentziazko dendak, zeinak Katalunian eta Balearretan hedatzen ari baitira

Travel Air-ek, EROSKI Bidaiak agentziaren enpresa dibisioak, EUSKALIT Kudeaketa Aurreatuaren klubeko epaimahaiaren sarria irabazi zuen, Hazkundearen kudeaketagatik.

"Zurekin" eredu komertziala

"Zurekin" eredu komertzial berriaren bidez, kalitate eta zerbitzu hobeak eskaini nahi dizkiegu bezeroei, gure estrategiaren erdigunean osasuna eta jasangarritasuna jarrita, hala baitator hartuak ditugun konpromisoetan. "Zurekin" eredu komertzialean, ezaugarri hauek nabarmen-tzen dira: freskoen espezializazioa, produktu sorta zabala –aukera askatasun handiagoa izateko– eta tokian tokiko produktuen aldeko apustu sendoa.

Horrekin batera, eboluzionatu egin dugu Bazkide Bezeroe-kin dugun harremana. Proposamen komertzial erakarga-riagoa eskaintzen diogu, eta azken belaunaldiko denda efizienteagoak. "Zurekin" denda ez da soilik eraldaketa fisikoa, oroz gain aldaketa kultural handia da gure erakun-dean, kontsumitzaileak jartzen baititugu gure grabitate zentroan.



Denda belaunaldi berria

EROSKIn gure kooperatiba-taldearen sare komertziala osorik eraldatu nahi dugu datozen urteetan, eta "zurekin" eredu komertziala ipini supermerkatu eta hipermerkatu guztietan. Bide horretan aurrera goazela erakusten du 2018an 45 supermerkatu baino gehiago birmoldatu izanak.

Gure dendak gero eta lehiakorragoak eta erakargarriagoak dira. Gure autokudeaketa eredu zabalitzen dugu irekiera eta eraldaketa bakoitzean. Esperientzia multikanal oso bat eskaintzen diegu bezeroei askotariko formatuen bitartez. Horrekin, gure kontsumitzaileen gogokoenak izatea lortu nahi dugu, nola eta elikadura osasungarriagoa eta jasangarriagoa egiteko irtenbideak emanda.

Aurrezpena bultzatzen dugu

Gure konpromisoetako bat da bezeroei modua ematea era merkean elikadura orekatu eta jasangarri bat eramateko. Izan ere, hastapenetik izan da gure eginkizuna produktuak preziorik, kalitaterik eta zerbitzurik onenetan eskaintzea. Hala, ardatza lehiakortasunean eta aurrez-penean jarrita, 2018an, EROSKI aurrezpen handiko 253 kanpaina gauzatu ditu, hala nola "BEZa oparitzen dizugu"

eta "zure erosketaren %25 doan", eta mila produktu baino gehiago merkatu ditugu sare komertzialeko supermerkatuetan eta hipermerkatuetan. Eskaintza pertsonal, kanpaina eta promozio ugari horiei esker, 302 milioi pasa euroko aurrezpena transferitu diegu familiei urtebetean.

EROSKI Club: konpromisoa gure bazkide bezeroekin

EROSKI Clubek era nabarmenean indartu du bezeroarekin duen harremana, eta kooperatibaren bazkide kontsumitzaile figura indartu du, bazkide bezeroa erabakien erdigunean ipinita. EROSKI, CAPRABO eta FORUM SPORT txartelen jabeak diren sei milioi pasa bazkideak gure estrategia komertzialaren erdian daude; izan ere, batez beste, salmenten %70 sorrarazten dute.

Kontsumitzaileek gero eta aurrezpen proposamen pertsonalagoak jasotzen dituzte, Bazkide Bezero bakoitzaren soslaira eta haren kontsumo ohituren eboluziora egokituak. Aurrezpen eskaintza adierazgarria izateaz arduratzen da EROSKI Club, baina freskoen kalitateari, tokian tokiko produktuekiko konpromisoari eta produktu-aukera handiari kalte egin gabe.

2018an, EROSKI programa aurrezpenari bat atera du, %4ko aurrezpen finko eta unibertsalarekin **EROSKI Cluben Oro txartela** dutenen erosketa guztietan, baldin erosketak bere saltokietan egiten badituzte, gasolindegia sarean. Bazkide Bezeroek beren EROSKI Club txarteleko saldo gisa ikusten dute aurrezpen hori, eta ondoko erosketetan

balia dezakete. Arrakastatsua izan da ekimena; izan ere, 142.000 bazkide bezero eta 53 enpresa baino gehiago —guztira, 3.555 langile— atxiki dira dagoeneko "enpresen oro bazkide"zara".

Horrez gain, urtebete da gure EROSKI Club kreditu txartel berria atera genuela Mastercardekin eta Santander Consumer Financerekin elkarlanean, eta 243.000 bezerotik gora ditu. Multitxartel erakoa denez, EROSKI Club programaren abantailaekin batera kreditu txartelarena egin dezake; gainera, EROSKItik kanpo egindako erosketetan %1 itzultzea eskaintzen du, diru hori EROSKI Club bazkide txartelean sartuta. Gainera, 2018ko ekainean, "Sustapen Gehiago" plataforma atera genuen webbean eta EROSKI-ren aplikazioan –sukaldaritzaren, modaren, oinetakoen eta aisialaren alorreko 60 markarekin baino gehiagorekin–, zeinak deskontu interesgarriak eskaintzen baitizkie gure bezeroei. Hala, kooperatibak 2,5 milioi euroko aurrezpena transferitu die **EROSKI Club-Mastercard txartela** dutenei.

45 supermerkatu baino gehiago birmoldatu ditugu "zurekin" eredu komertzialera 2018an

Aurrera goaz guztitarako kanaletan

EROSKI aurrera doa guztitarako kanalen proposamenen; helburua da bezeroari erantzutea berak nahi duenean eta nahi duen bezala, dauden denda formatuen eta kanal digitalen bitartez; horrela, on line eta off line tradizionalen mugak gainditzen dira. Horren erakusgarri ona da EROSKIren aplikazio gaurkotua, erabiltzaileek modurik erosoenean goatzeko haren funtzionaltasunez. Esaterako, 2018ko ekainean, EROSKI Club Mastercard txartelaren jabe direnek sakelakoarekin ordain dezakete EROSKI Club Payri esker; funtzio hori eroso eta erabilerraza da, eta bezerorik digitalenaren esperientzia hobetzen du. 2018ko beste berritasun bat Eguberrietan jarri genuen martxan lehen aldiz, EROSKI Club aplikazioan errealitate areagotzeko lehenengo esperientzia izan zen, eta 17.000 aldiz ere erabili zuten. Hala, gure bazkideei esperientzia interaktibo berriak eskaintzen dizkiegu hiru dimentsiotan, eta horrek erraztu egiten du haiekin dugun harremana, digitalizazioa sustatzeaz gain.

TOn line supermerkatu bat ere badugu, erabiltzaileari esperientzia lasterragoa eta efizientagoa eskaintzeko. Gainera, erosketak biltzera joateko "Click&drive" eta "Click&collect" zerbitzuak eskaintzen ditu; horien bidez, kontsumitzaileek noiznahi egin ditzakete eskariak on line supermerkatuaren bidez, eta egunean bertan jaso, ibilgailuarekin joanda edo oinez etxerako bidean. Gure inplikazioari esker, saria jaso dugu bigarren jarraian, **Urteko Online Supermerkatu Onenarena** eman baitigute Merkataritza Sariketan.

FORUM SPORTen ere aurrera egin dugu 2018an, guztitarako kanalen denda kontzeptu berritzaileekin. Gasteizen, FORUM SPORT denda eredu berri bat zabaldu dugu, zeinak guztitarako kanalen erosketa esperientzia bat eskaintzen baitu. Bezeroarekin komunikazio koherente bat ezartzen da, eta haren eskura jartzen berak nahi dituen kanal guztiak, produktuarekin interakzioan aritzeko; horrela, produktua erosi baino gehiago egiten du.

Arreta pertsonala eta kalitatezkoa

EROSKIrentzat, "zurekin" ereduaren lehenetsunezkoa da bezeroarekin dagoen harremana, eta harreman horrek izatera berezia ematen dio ereduari. EROSKI, kontsumitzaile aintzakotasun handiagok hartzen duen proposamen komertzialaren alde dihardugu, eta horrek berak berezigo egiten gaitu, freskoetan daukagun espezializazioa eta ematen dugun laguntza pertsonala dela medio. Alde

horretatik, langileen gaitasun profesionala eta prestakuntza etengabe landu behar dira, eta hori da gure zutabeetako bat, freskoen arloan are eta espezialistagoak izateko: freskoen 57.000 eskola ordu baino gehiago eman ditugu 2018an langileak formatzeko.

Gure bezeroei entzuten diegu 102-21

Bezeroari arreta pertsonalizatua eskaintzea da EROSKIren eraldaketaren indarguneetako bat, kooperatiba bere saltoki sarean hedatzen ari den "zurekin" eredu komertzialaren barnean. Horri esker, egunero ari da hobetzen eta bezeroen beharretara gero eta efizientzia handiagoz egokitzen. Gainera, bezeroengan arreta etengabea jartzea da gure osasunaren eta jasangarritasunaren 8. konpromisoa.

2018an, Bezeroari Erantzuteko Zerbitzuak 413.499 lagun hartu zituen, eta erreklamazio guztietatik %95,3 konpondu zituen lehenengo kontaktuan. Betetzen dugu zalantza guztiak berehala argitzeko eta iradokizunei eta erreklamazioei laster batean erantzuteko konpromisoa, eta kudeaketaren bat egin behar baldin bada, gehienez ere 48 orduan erantzuten dugu.

Sotto Tempo Advertising aholkularitza etxeak sariketa bat antolatzen du, non kontsumitzaileek berek hartzen baitute parte hautaketan; hala, EROSKIri eman zioten Bezeroari eta klubeko bazkideei Erantzuteko Zerbitzurik Onenaren saria Banaketa Handien Enpresetan.

Bezeroari Erantzuteko EROSKIren Zerbitzuak euskaraz, gaztelaniaz, katalanez eta galizieraz erantzuten die kontsumitzaileei, eta eskura dago bai telefonoz, bai posta elektronikoz eta bai web bidez (www.eroski.es), eta Taldearen beste negozio eta sozietateetako web orri batzuetan ere ematen du zerbitzua, baita sare sozialetan ere.

2018an, 2,5 milioi hartu-eman izan genituen erabiltzaileekin, eta 93 milioi iritzi jaso genituen



Twitter
54.407
jarraitzaile



Facebook
215.562
jarraitzaile



Instagram
14.364
jarraitzaile



LinkedIn
18.661
jarraitzaile

Kolektibo askotarikoak aintzat hartzeko helburuz eta gartasunarekin dugun konpromisoa bete nahiz, saiatzen gara haien eskura kanal gehigarriak edukitzean. Hala, 2018an, bezeroei entzuteko hamaika saio egin genituen, eta 13.000 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten; hala, haien iritzia, iradokizunak eta gomendioak jaso genituen, gure eskaintza komertziala eta gure dendak hobetzeko balioko dutenak.

Hortik kanpo, EROSKI 21 Batzorde Kontsumerista ditu bazkide bezeroen parte hartzea egituratzeko; horiek eztabaibatu egiten dute, iritzia ematen dituzte eta jarraibideak finkatzen dituzte belaunaldi berriko dendak hobetzeko.

Datuen babesa EROSKI-n

Gure bezeroen datu pertsonalak gure aktiborik kritikoenak direla uste dugu, eta babestu egin behar direla. Horretarako, datuak babesteko sistema bat dugu, etengabe hobetzen doana eta metodologia propioa duena. Hura

betetzen dugula zaintzen dugu arriskuen analisia eta kudeaketa erakunde osoan kooordinatuta. Horren erakusgarri da ez dugula datu ihesik izan eta erreklamaziorik jaso bezeroen partetik.





3

Elikadura osasungarria
Kontsumitzaileekin
konprometituak

Gure ekarpena elikadura osasungarriari

Kontsumitzaileen osasunaz eta ongizateaz kezkatzea gure izatearen parte da; horregatik, lan ildo ugari ditugu gure bezeroei bizimodu osasungarriagoa errazteko.

Osasunaren eta jasagarritasunaren aldeko konpromisoen barnean daude ildo horiek, eta bat datoz Garapen Jasangarriaren Helburuetako hauekin: osasuna eta ongizatea (3.a), kalitatezko hezkuntza (4.a) eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuak (12.a).

Gaur egun, osasun arazo jakin batzuen erronka dago, eta arazo horiei jateko ohiturekin har diezaiekegu aurrea; esaterako, gizentasunari. Hori dela eta, elikadura orekatua eta ohitura osasungarriak funtsezkoak dira norbanakoaren eta kolektiboaren ongizaterako. Osasunaren eta elikaduraren inguruan egiten ditugun proposamenak bat datoz komunitate zientifikoak aipatzen dituen behar

eta lehentasunekin; horretarako, EROSKI Fundazioaren Zientzialari Batzordea dago, zeinak epe erdira eta luzera begirako estrategia zehazten baitigu elikadura osasungarriaren aldeko konpromisoa bete dezagun. Aholkularitza organo horretan, diziplina askotako profesionalak daude, osasunekoak, nutriziokoak, elikadurakoak, sukaldaritza-koak eta gastronomiakoak. Hala, ebidentzia zientifikoaren ekarpen jantzi eta independente bat ematen digute, eta, kanpoko ikuspegi horren bitartez, aberastu egiten da gure proposamena. Aholkularitza horren osagarri, kontsumitzaileen iradokizunak eta kezak jasotzen ditugu, kooperatiba etengabe ari baita haiei arreta jartzen bere partaidetza kanalen bitartez.

EROSKIn, elikadura orekatua eta segurua bermatzen duten produktuak eskaintzen ditugu. 2018an, gantzak, azukreak eta gatzak murriztu genituen 300 bat produktutan, eta haien nutrizio soslaia hobetu genuen, osasungarriagoak izan daitezten. Horretaz gainera, gure ustez, herritarren osasunari eta ongizateari egiten diogun ekarpena egiteko, produktu eskaintza bat egin behar zaie nutrizio premia espezifikoak dituztenei, hala nola zeliakoei, zeintzuekin lankidetzat estuan aritzen baikara.



GIH	Lan lerroak	EROSKIn konpromisoak	2018ko datu nabarmenak
	Elikadura arloko segurtasuna	1 Elikadura arloko segurtasuna	Produktuen eta zerbitzuen 17.902 kontrol analitiko 294 ikuskapen hornitzaileei 1.816 ikuskapen saltokiei eta plataformei
		2 Elikadura orekatua	Gatza, gantza eta azukreak gutxitu ditugu EROSKIn markako produktuetan: 296 produktu 2018an
		3 Haurren gizentasunari aurrea hartzea	2013tik hona, 946.177 kg gantz, 483.709 kg azukre eta 68.276 kg gatz kendu ditugu
	Elikadura orekatua eta jasangarria	5 Arduraz kontsumitzea	Nutri-Score etiketa ipini dugu; nutrizio arloko informazio aurreratua, hobeto jaten laguntzeko
		8 Komunikazio argia eta gardena osasunaren eta jasagarritasunaren arloan	
		4 Nutrizio behar bereziak	Gure markako 540 produktuk baino gehiagok ez dute glutenik
	Nutrizio behar espezifikoak	8 Komunikazio argia eta gardena osasunaren eta jasagarritasunaren arloan	Lankidetzat hitzarmena Euskadiko Zeliakoen Elkartearekin, glutenik ez duten produktuk espezifikoetan %20ko deskontua egiteko
		3 Haurren gizentasunari aurrea hartzea	460.401 ikaslek parte hartu dute EROSKIn Elikadura Eskolaren ekimenetan
		10 Formazioa eta informazioa osasunean eta jasagarritasunean	
	Elikadura eta ohitura osasungarriak haurretatik	3 Haurren gizentasunari aurrea hartzea	50 bat milioi bisita www.consumer.es webgunean
		10 Formazioa eta informazioa osasunean eta jasagarritasunean	193.000 irakurle ditu hilean EROSKI CONSUMER aldizkariak
		10 Formazioa eta informazioa osasunean eta jasagarritasunean	
	Osasunaren eta jasagarritasunareneko gainekeo informazioa	10 Formazioa eta informazioa osasunean eta jasagarritasunean	
		10 Formazioa eta informazioa osasunean eta jasagarritasunean	
		10 Formazioa eta informazioa osasunean eta jasagarritasunean	

Elikadura segurtasuna

Produktuetan eta zerbitzuetan kalitate eta segurtasun estandar zorrotzak aplikatzen ditugu, eta gure jarduteko moduan oinarritzko zutabea da hori.

EROSKIk duen Kalitatea Kudeatzeko Eredua zenbait arau, prozesu, prozedura eta tresnaren arabera egituratzen da; elementu horiek elkarri loturik doaz balio kate guztian, eta ziurtatzen dute merkaturatzen ditugun produktuak berme guztiak betetzen dituztela elikagaien

segurtasunaren aldetik. Zinez uste dugu gure eredua lehiakortasun maila handia erdiesteko era optimo bat dela, eta, era berean, kontsumitzaileen eskubideak eta interesak defendatzen dituela.

Ikuskapenak saltokiei eta plataformei

Kalitatea eta higiena zaintzen ditugu gure saltoki eta plataforma logistiko guztietan, eta, hori bermatzeko, ikuskapen protokolo exhaustibo bat dugu. 2018. urtean, 1.313 ikuskaritza izan genituen, eta honako kontrol hauek egin genituen:

Gure etengabeko hobekuntza prozesuan, lanean dihardugu bezeroei ematen diegun zerbitzua bikainagoa izan dadin, nola eta ekintza zuzentzaile aproposak ezarrita ikuskapenetan identifikatutako gorabehereri irtenbidea emateko.



Hotz katearen mantenimendua eta hornidura katearen kalitatea.



Produktuen kalitate mikrobiologikoa.



Trazabilitate sistemak produktu guztientzat.



Egoitzen higiena eta garbiketa.



Kalitatea kontrolatzeko sistemak eta tresnak.



Elikadura alertak kudeatzeko sistema eta produktuak kentzea.

Ikuskapenak hornitzaileei

Hornitzaileekin erabilitako prozesu eta sistema guztiak produktuen eskakizunetara egokituta daude, orobat marka propiorako ezarritako prozesuetara ere. Horretaz gain, Europa mailako kalitate eta segurtasun estandarrak bultzatzen ditugu, hala nola International Food Standard ziurtagiria. Produktu freskoen kasuan, gure estandarrak are zorrotzagoak dira; kasu horretan, garrantzi berezia baitu nola ekoizten, kontserbatzen eta garraiatzen diren.

Ikuskapenei dagokienez, ekintza planak sortzen ditugu, hornitzaileak neurriak har ditzan detektaturiko desbideratzeak zuzentzeko. Neurriak ezarrita direnean, beste

ikuskapen bat egiten da gorabeherak zuzenduta daudela egiaztatzeko, eta hornitzailea homologatzeko baldin ikuskapena gainditzen badu.

2018an, 294 ikuskapen egin genizkien marka propioko hornitzaileen ekoizguneei. Ikuskaturiko hornitzaile guztien %83k ondo gainditu zuten azterketa. Gainerako %17ari, neurri zuzentzaileak aplikatu zitzaizkien, edo utzi egin zitzaion EROSKiren hornitzaile homologatu izateari. Horrez gain, fabrikatzaile markako hornitzaileen 48 lantegi ikuskatu genituen, eta %77k gainditu zuten azterketa.

Produktuen eta zerbitzuen kontrol analitikoak 102-11; 416-1; 416-2

Gure produktuen eta zerbitzuen kalitatea birritan bermatzen dugu, zeren eta, hornitzaileek eta fabrikatzaileek egiten dituzten kontrolez gain, guk geuk egiten ditugu, egunero, kontrol analitiko exhaustiboak. 2018an, EROSKI Talde osoan 17.902 analitika egin genituen, eta horietatik %96k lortu zuten emaitza egokia. Hiru analisi mota egiten ditugu:

Kimikoa: osasunerako eta segurtasunerako esanguratsua den substantziarik ez dagoela edo kopuru egokietan dagoela bermatzen dugu.

Mikrobiologikoa: patogenorik ez dagoela bermatzen dugu, hala nola produktuen higiena eta freskotasuna eta egoitzen garbiketa.

Genetikoa: animalia eta landare espezieak identifikatzen ditu, eta genetikoki eraldatuta dauden organismoak detektatzen ditu.

Emaitza balekoa ez bada, hornitzaileari neurriak hartzeko eskatzen zaio, eta ondoren beste kontrol bat egiten da gorabehera horiek zuzenduta daudela ziurtatzeko. Elikadura segurtasunerako arriskurik balego, zuhurtzia printzipioa aplikatzen dugu, eta berehala kentzen salmentatik.



2018an egindako analisiak programa analitikoaren arabera

Programa analitikoak	Analitika kopurua	Programa analitikoak	Analitika kopurua
Olioak	293	Elikadurakoak ez direnak	1.085
Trans erako gantz azidoak	28	Organismo genetikoki eraldatuak	40
Akrlamida	362	Patogenoak	376
Aflatoxinak	43	Pestizidak	307
Ura	50	Nutrizio hobekuntza	26
Alergenoak	73	Haragi prestakinak	1.985
Basic	120	Produktu ekologikoak	4
Campylobacter	95	Kimika arrantzan	6
Erregaiak	154	Erreklamazioak	37
Freskoen konparatibak	19	'Natur' hondakinak haragian	80
Gainazalen kontrolak	3.234	Azaleratzen ari diren arriskuak	3
Drogeria eta kosmetika	202	Sannia	114
EROSKI prestazioak	367	Sukaldearen atala	184
Iraupenaren gaineko azterketak	918	SeleQtia	71
Glutena	208	Sulfitoak desizoztuetan	9
Izotza	189	Sushi dendak	108
Arrautza, laktosa, esnea	12	Metal astunak	52
Arrautzak	21	Olio mineralak	23
Hezetasuna urdaiazpikoetan	76	Fruitu moztua	53
Espezieen identifikazioa	64	Freskoen marka generikoa	58
Merkaturatzea	16	'Natur' markako fruta fisiko-kimikoak	53
Esnea	36	Listeriaren kontrola zoruetan	1.597
Arriskua duten lokalak	1.500	Zoruen kontrola dendetan	439
Eskuztatutak	2.841	Zukuak	215
Landare mikrobiologia	21	Guztira	17.902
Eztia	18	Ondo atera ez diren analitikak guztira	806
Maskor biko moluskuak	17	Ondo atera ez diren analitiken %	%5


Elikadura orekatua eta jasangarria

Produktu osasungarriagoa eta orekatua 102-11

Osasunarekin dugun konpromiso ukazina dela eta, saltzen ditugun produktuen elikagaien segurtasuna bermatu baino gehiago egiten dugu. Egutero dihardugu kontsumo aukera orekatsuagoak eta osasungarriagoak eskaintzeko eginkizunean, hala baitator gure 2. eta 3. konpromisoei; hurrenez hurren, elikadura orekatua

sustatzea eta haurren gizentasunari aurrea hartzea. Gure produktuek balio dezatela dieta orekatu bat egiteko eta lagundu dezatela jateko ohitura osasungarri bat eramateen. Horretarako, etengabe berriskusi eta hobetzen dugu haren fitxa, osasun adituek emandako gomendioen arabera.

Birformulaturiko produktuak 2018an



Produktuaren hobekuntza nutrizio aldetik

EROSKIn gure produktu guztien osagaiekin esku hartzen dugu nutrizio aldetik duten soslaiaren etengabe hobetzeko. Oreka handiagoko produktuak bilatzearen poderioz, gure gizarteko patologia orokorrenak sorrazten dituzten mantenugaiak gutxitu ditugu; patologia horietako batzuk dira, esaterako, bihotz-biriketako gaixotasunak eta gizentasuna. Hala, **2013tik hona, 946.177 kg gantz, 483.709 kg azukre eta 68.276 kg gatz kendu ditugu.**

Horretaz gainera, hamar urte pasa joan dira gure elikagaiekin eta produktu freskoetan lipidoak hobetzea erabaki genuenetik; hala, landare gantz partzialki hidrogenatuak kendu genituen (trans gantz iturri direnak) eta 2018an beste pauso bat dugu norabide horretan, palma eta

koko gantzak kentzeko konpromisoa hartu baitugu 2020rako.

Gure produktuetan nutrizio arloa hobetzeko hartua dugun konpromiso historiko eta berri hori ezin hobe ezkontzen da Jan-edan Osaera Hobetzeko Neurriak eta Bestelakoak izeneko 2020rako Lankidetzaren Planarekin, eta gu plan horretara atxiki gara, zeina Nutrizioa, Ariketa Fisikoa eta Gizentasunaren Prebentzioa sustatzeko Estrategiaren barnean sartzen baita, Elikaduraren Nutrizioaren Espainiako Agentziak bultzaturik. Horren helburua da azukre, gantz saturatu eta gatz gehigarriak mediantik %10 gutxitzea 2020rako.

Baina ez diogu bakarrik begiratzen dieta orekatua egiten laguntzen duten osagaiei, komeni baino gu-

txiago hartzen ditugun beste batzuk ere sustatzen baititugu. Hala, gure eskaintzetan, aberasturiko produktuak ere badaude, hala nola kaltzioa, omega-3 eta zuntza.

Horiek praktikan jarrita, saiatzeko gara hobekuntzak kontsumitzaileei jakinarazten, gure produktuen etiketan behar den informazioa ipinita.

Horrenbestez, aurrera goaz elikadura orekatua sustatzeko konpromisoan, irtenbideak emanez eta gure bezeroen bizi kalitateari onurak ekartzen dizkieten produktuak merke jarritz.

Elikadura naturalagoa

Kontsumitzaileek erakusten dituzten kezkei erantzunez, gure 5. konpromisoa betetzeko, zenbait lanildo jarri ditugu martxan elikadura eta bizimodu naturalagoak eta jasangarriagoak sustatzeko. Hala, jarraitzen dugu berrikuntza aplikatzen produktua garatzeko orduan, gehigarri, antioxidatzaile, kontserbatzaile eta ezitzaile artifizialik izan ez dezaten. Osasunaren arloan berrikuntza sartzearen aldeko apustua berebat aplikatzen dugu elikagaiak ez diren produktuekin, hala nola higie eta zainketa pertsonalerakoak direnekin. Gaur egun, gure markako produktuek ez daukate BHA-BHT antioxidatzaile, parabeno, trklosanik, transgenikorik eta koloratzaile artifizialik. Gainera, komunitate zientifikoan zenbait

substantziaren gainean izaten ari diren eztabaiden jakinaren gainean gaude, eta behar diren ekarpenak txertatzen ditugu gure produktuen eta ontzien diseinuan. 2018an, esate batera, lanean jardun gara 2019 hasierarako gure erosketa orrietan ez dadin A bisfenolik izan.

Horrez gain, gure freskoen hornitzaileekin dihardugu, **fruten eta barazkien uzta jaso ondoren fungizidarik erabil ez dezaten** eta metodo alternatibo naturalagoak erabil ditzaten gure freskoak kontserbatzeko orduan. Hezurra duten frutetan eta zitrikoetan egin dugun lanak erakusten du, besteak beste, ildo horretan ari garela.

Gainera, EROSKI lanean dihardu **antibiotikoak kentzeko eta gutxitzeko** EROSKI Natur produktuetatik; izan ere, konturatzen gara Europan gero eta erresistentzia handiagoa zaiela antibiotikoei, eta maiz neurritz gora erabiltzen dela animalien hazkuntzan. Horren ondorioz, osasun arazoak handitu litezke; izan ere, botikaren eraginik sumatzen ez duten mikroorganismoak sor litezke. Antibiotikoak bere neurrian erabiltzea funtsezkoa da erresistentziarik sor ez dadin. Hori dela eta, gure EROSKI Natur markako oilaskoek ez dute antibiotikorik, eta, gainera, animalien ongizatearen ziurtagiria dute.



Produktuek nutrizio eta oreka aldetik dakarten informazioa

416-2; 417-1

EROSKIn konturatzen gara kontsumitzaileei ematen diegun informazioa zein garrantzitsua den haien interesak zaindu eta babesteko; izan ere, horrela bakarrik har ditzakete horren arabera erabakiak.

Horregatik, gure produktuak nutrizio aldetik hobetu ez ezik –hala baitator bizimodu osasungarria bultzatzeko 8. konpromisoan–, informazio zabala, osoa eta egiantzekoa eskaintzen dugu haien edukiez eta elikadura osasungarri bat eramatearen garrantziaz denaz bezainbatean.

Alde batetik, indarrean den legedia betetzen dugu produktuen etiketan, eta, bestetik, geure markak dituzten eskakizunak betetzen ditugu. Hala, informazio gehigarria dakarte gure etiketek; esaterako, osasunarekin zerikusia duten ezaugarriak (azukrerik gabeak direla, gantzik gabeak direla, gatzik ez dutela...), piktogramak (alergenoak identifikatzea errazteko) eta nutrizio arloko informazio sistemak (besteren artean, semaforo nutrizionala eta

Nutri-Score). Gainera, fitxa teknikoa betetzen dela egiaztatzen dugu maiztasunez. Zeregin horiei esker, 2018an, 16 bat ez-etortze detektatu genituen 1.385 fitxa tekniko berrikusi genituenean, eta guztiak ere hornitzaileekin kontaktatuz zuzendu genituen, produktuaren osaera eguneratzeko eskatuz. Informazio falta dela-eta arrisku sanitarioan sartzen bagara, produktua berehala kentzen dugu salmentatik. Ikuskapen horiek eginda eta kontsumitzaileei entzunda, informazioa etiketan txerta dezakegu, errazago ulertzeko modukoa izan dadin.

Etiketarik kanpo, badira, halaber, eskuorriak, dendako kartelak eta webgunea ere. Hala, haurrentzako produktuen publizitatea egokitu egin dugu PAOS Koderak (adingabeei zuzendutako elikagaien Autoarautze Kodea eta Gizentasunaren eta Osasunaren Prebentzioa), zeina Elikaduraren Nutrizioaren Espainiako Agentziaren NAOS estrategian ere badatorren.

Nutri-Scoreren ezaugarri nagusiak

Nutri-Score etiketa grafiko edo semaforo bat da, elikagai ontziratuak bost letra eta koloreekin sailkatzen dituena, nutrizio aldetik duten osaeraren arabera: berdetik gorria (berdea osasungarrientzat, eta gorria nutrizio kalitate txikikoenentzat). Osasungarriek A letra eta kolore berde iluna edukiko dute, eta osasungaitzenek, berriz, E letra eta kolore laranja iluna.

Produktu bakoitzak dagokion kolorea eta letra izango du, zenbat azukre, gantz saturatu, gatz, kaloria, zuntz eta proteina dituen 100 gramoko.

Hala, kontsumitzaileek, erosketak egiten ari direla, elkarrekin konparatu ahaliko dituzte antzekoak diren elikagaiak edo produktu beraren marka diferenteak erkatu nutrizioa kalitatearen aldetik. Ikerketek erakutsi dute Nutri-Score erginkorragoa dela beste formula batzuk baino, eta horregatik aukeratu dute Espainian eredu gisa erabiltzeko.

NUTRI-SCORE etiketa: nutrizio arloko informazio sistema berria

Aurrendariak izan ginen nutrizio arloko semaforoa txertatzen, eta 2018an ere hala gara Nutri-Score etiketak gure markako produktuetan ipinita.

2018an, 10.000 bazkide bezerori entzunda, nutrizioaren gaineko informazio eredu hau sortu dugu, merkatuan parekorik ez duena eta zeinaren bidez kontsumitzaileek erraz ikus dezaketen produktu bakoitzak nolako balioa duen nutrizio aldetik eta haren antzekoekin konpara dezakete, hobeki hautatzeko, gaur egun semaforo nutrizionalak ematen duen mantenugai bakoitzari buruzko informaziorik galdu gabe. Galdekatuen %86 ados agertu ziren Nutri-Score semaforo nutrizionalaren osagarri gisa jartzeko. 2019an dagoeneko ateratu ditugu lehen produktuak Nutri-Score etiketarekin, eta urte honetan bertan marka propioko produktu guztietan ipiniko dugu.

Hala, EROSKIn lehenengoetakoak izango gara nutrizio arloko etiketa hau ipintzen. Osasun Ministerioak orain berriki balioztatu du, eta, iragarri duenez, urtebeteren buruan orokortua egongo da.



Nutrizio arloko semaforoa

2007tik darabilgu nutrizio arloko semaforoa marka propioko produktuetan, eta Nutri-Score haren osagarria izango da.

Nutri-Scorek erraztu egiten du dietako kaloriak, gantzak, azukreak eta gatzak kontrolatzea, premiaren bat badago osasun motiboren batengatik (diabetesa, hipertentsioa, pisu gehiegia...). Hala, elikagaiaren zati batek mantenugai jakin bat zenbateko kopuruan ematen duen ikus daiteke, eta erraz interpretatu kopuru txikia den, tartekoa edo handia.

Erosketa osasungarriagoa egiteko aproposa denez, kolore sistema beti dago ontziaren aurrealdean, eta informazioa dakar kalorien kopuruari buruz eta osasunarekin loturik diren mantenugai garrantzitsuenei buruz (gantza, gantz saturatua, azukrea eta gatzak) kontsumo errazio bakoitzeko. Horretaz gain, mantenugai bakoitzaren azpian, zifraz adierazten da zein ehunekotan duen egunero behar dugun kopurutik (kopuru gomendatua edo KG). Erreferentzia gisa egunean 2.000 kcal hartzea jartzen dugu.

Haurrentzako elikagaiekin, 1.800 kcal-eko dieta bat erabiltzen dugu. Koloreen sistema horren bidez, begien bistan jartzen dugu errazio kopuru batek mantenugai kopuru apala (berdea), ertaina (horia) edo esanguratsua (laranja) ote duen, mantenugai bakoitzetik. Horri esker, elikagaiak konbina daitezke gomendaturik dagoena baino kopuru handiagorik ez jateko eta, hala, elikadura orekatsua izateko.

Nutrizio arloko informazioa erosketetan oinarriturik


EROSKI Clubek osasun arloko programa aurrendari bat du, eta doan eskaintzen ditu informazio pertsonalizatua eta pizgarriak, zertarako eta elikadura eta erosketa osasungarriago eta orekatsuago bat eraman dezaten gure bazkide bezero guztiek. 2018an, 25.000 lagunek erabili zuten nutritzio arloko zerbitzu hori, EROSKI Club txartela erabiltzen dutenen erosketetan oinarriturik ematen duena.

Informazio horrek analisi xehe eta pertsonalizatu bat ematen du, etxeko erosketa nola doitu dieta mediterraneora. Haren helburua da bezeroa orientatzea elikagaiei buruz: zein kopurutan eta maiztasunekin erabili –bai berak eta bai etxeko gainerako kideek– elikadura orekatu bat eramateko. Orain, gainera, informazioa ematen du erosketetako kaloriei eta mantenugaiei buruz, eta gomen-diokak eta konparatibak eskaintzen ditu hobetzen laguntzeko.

Informazio zerbitzu pertsonal horri **saria eman zioten NAOS Estrategia Sarien XI. ekitaldian**, Enpresa Ekimenik Onenaren atalean; eta, hala, NAOSek egiten duen aitortpenik handiena jaso genuen, elikadura osasungarriaren alde dugun konpromisoagatik.

EROSKiren sukaldaritza eta CAPRABOren chef tailerrak

Urtero-urtero, ehunka tailer ematen ditugu gure tailerretan, haurrei zein helduei sukaldaritza erakusteko. Ekimen ludiko eta heziketazko hori ezin hobea da elikadura osasungarriagoa bultzatzeko eta tokian tokiko produktuak indartzeko bazkide bezeroen artean.



Nutrizio behar espezifikoak

413-1

EROSKIk, 4. konpromiso honen bidez, elikadura espezifiko bat behar dutenei erantzuten die, nola eta produktuen eskaintza segurua eginez, eresketa arrunt baterako adinako kopuruan eta sakrifizio ekonomiko egokian.

Bereziki aintzat hartzen ditugu gaixotasunak direla-eta sortzen diren elikadurako behar espezifiko batzuk, hala nola zeliakia, alergiak eta intolerantziak. Horregatik, harremanetan gaude gaitz horien harira sorturiko entitate eta taldeekin, hala nola Espainiako Zeliakoen Elkartearen Federazioa eta Espainiako Diabetesaren Federazioa. Horri esker, lehen eskutik jakin ditzakegu haien eskariei eta kezkak, eta gure elikagai sorta zabaltzeko haien eskariei behar bezala erantzuteko. Gainera, zenbait entitateekin dihardugu askotariko kanpainetan haien gaixotasunak ikusarazteko eta jendea kontzientziatzeko.

Orain dela hamar urte, produktuen etiketak hobetzea eta argitzea erabaki genuen EROSKIn alergenoen gaineko informazioa emanez. Hala, alergenoen gaineko 2220/2004 Errege Dekretua bete ez ezik, informazio gehigarria ere badakargu —aparte eta era ikusgarrian—, ohartarazteko alergenoen trazak izan ote ditzakeen. 2018an, 541 produktu zenbatu genituen, marka propioan, glutenik gabekoak; beste 63 produktu, laktosarik gabekoak; 27, esnerik gabekoak; eta 7, arrautzarik gabekoak.

Behar bereziak dituzten pertsonentzako EROSKI marken produktuak

541
produktu



63
produktu



27
produktu



7
produktu



Lankidetza hitzarmena Euskadiko Zeliakoen Elkartearekin

EROSKI Fundazioak eta Euskadiko Zeliakoen Elkarteak (EZE) lankidetza hitzarmen bat sinatua dute, eta elkarrekin dihardute elikadura espezifikoa behar duten pertsona zeliakoei elikagaletan eresketa baldintza hobek eskaintzeko.

Hitzarmen horren medioz, EROSKIk %20ko deskontua eskaintzen die EZEko bazkideei glutenik gabeko produktuak erosten dituzten bakoitzean, izan EROSKI markakoak edo izan glutenik gabeko produktuen ekoizle espezifikoenak. Horri esker, behintzat kide bat bazkide-tuta duten familiek 300 euro baino gehiago

aurrez dezakete urtean. Hitzarmenak 1.460 laguni baino gehiagori ekarri dio onura 2018an.

EROSKIn, konpromisoa hartu dugu, halaber, gure glutenik gabeko produktuen eskaintza hobetzen jarraitzeko; gaur egun, 3.000 produktu baino gehiago ditugu, 2.500 marka liderretakoak eta, gainera, marka propioan glutenik ez dutela bermaturiko 541 produktu. Horietatik 10 espezifikoki zeliakoentzakoak dira. Haien errezetetan gariaren ordeztu beste osagai batzuk sartu dira: artoa, arroza eta oloa, horiek ez baitute glutenik. Produktu bakoitzaren

etiketan "sin gluten" etiketa jartzen dugu gorri, identifikatzen errazagoa izan dadin.

EZEekin eginiko hitzarmenari esker, gure eskaintzako produktu berriak bazkideek testatuko dituzte. 2019rako, gure asmoa da hitzarmen gehiago egitea zeliakoen elkarteekin beste autonomia erkidego batzuetan, eta gero eta lurralde gehiagok izatea lankidetza horren abantailak.

Elikadura eta ohitura osasungarriak haurretatik

413-1

EROSKIn uste dugu funtsezkoa dela herritarra formatzea eta informatzea elikadura orekatua eta osasungarria eraman dezan. Alde horretatik, haurren gizentasunari aurrea hartzeko elikadura sustatzen dugu gure 3. konpromisoaren bitartez, eta eskura jartzen ditugu produktu osasungarriagoak; horretaz gain, haurrak hezten ditugu elikadura hobea izan dezaten.

Elikadura eskola

EROSKI Fundazioaren ekimen hau 2013an sortua da, herritarren artean elikadura eta ohitura osasungarriak sustatzeko. Bertan elkartzen dira osasunaren eta hezkuntzaren arloko profesionalak, gurasoak, ikasleak eta elikadura eta ohiturak hobetzeko konpromisoa duten gainera-ko herritarrak.

Eskolak kalitatezko informazio gaurkotua ematen du, eza- gutza zientifikoan eta berak landutako ikerketetan oinarritua. Erronka hauxe hartua du: "Elkarrekin gizarte sanoago eta, beraz, zoriontsuago baterantz joatea". Horretaz gain, Elikadura Eskolarekin joko didaktikoen espazioak jartzen

ditugu ekitaldietan, haurren partaidetzarekin, neska-mutikoe- koek era ludikoan ikas ditzaten jateko ohitura onak.

www.escueladealimentacion.es

Elikadura eta Ohitura Osasungarri- buruzko Heziketa Pro- grama eta Elikadura Eskolaren gainerako ekimenak –hala nola pasaporte Osasungarria– garatzeko, lankidetzan jardun gara autonomia erkidegoetako gobernu-ekin eta osasunaren eta kontsumo arduratsuen arloari loturiko erakundeekin.



“Energia hazteko”, elikadura eta ohitura osasungarri- buruzko heziketa programa

“Energia Hazteko” programaren arrakasta ikusita sortu genuen Elikadura Eskola. EROSKI Fundazioak 2012an jarri zuen martxan ekimen hori, Espainian gero eta gizen- tasun tasa handiagoa zegoelako haurretan, eta joera hori geldiarazteko.

energiaparacrecer.escueladealimentacion.es

Helbururik behinena da ikasleak sentsibilizatzea, ohar daitezen zein garrantzitsua den modu orekatuan elikatzea eta bizimodu osasungarria izatea.

Espainia osoko Lehen Hezkuntzako 3.192 ikastetxetako 460.401 ikasle- k hartu zuten parte azken ikasturtean. Progra- ma martxan denetik, Espainiako ikastetxeen %28,5ek parte hartu dute. Gure gogo- a da bi milioi ikasle eta haien fami- liak heztea 2025erako.

Hamar eskola saio eta hiru tailer praktiko ditu programak:

Eskola saioak:

2018an, eguneratu egin genuen elikadura eta ohitura osasungarri- buruzko ikasmateriala, lau hizkuntza ofizialetan genuena (euskaraz, gaz- telaniaz, galizieraz eta katalanez), ikastetxeek eskola orduetan eman zitza- ten. Horren bidez, ikasleek hain- bat gai landuko dituzte: elikadura osasungarria, ohitura osasungarriak, tokiko produktuak, munduko beste leku batzuetako dietak eta, azken

batean, planetaren jasangarritasu- na. Jarduera eta modulu berri ho- rietaz gainera, bideoak egin ditugu nekazaritzako elikagaien ekoizpe- nean diharduten bi ekoizle berri- kin, Fribasa eta Conservas Arroyabe; helburua da elikadura osasungarria garatzeko irizpideak finkatzea tokian tokiko produktuak erabiltia.

LEdukiak sortzeko, batzorde zientifiko bat jardun da askotariko adituekin osatua, medikuntzakoak, nutrizio eta dietetikakoak, psikopedagogiakoak eta pedagogiakoak. Horretaz gaine- ra, elkarlanean aritu gara **Unicefekin, WWFrekin, Bihotzaren Espainiako Fundazioarekin eta Basque Culinary Centerrekin.**



Tailer praktikoak:

Hiru tailer praktikotan, ikasleak aproban jartzen du ikasi duena egiazko eta eguneroko ingurune batean.

Denda bat ikustera joanda:

ikasleek egiazko produktuak ikuska- tzen dituzte etiketei erreparatuta, eta nutrizio arloko piramidean kokatzen dituzte. Tailerraren arduradunarekin, erosketa osasungarria egiten ikas- ten dute, eta piramidea eraikitzen.

Tokiko edo eskualdeko nekazaritzako elikagaien ekoizle edo fabrikatzaile bat ikustera joanda:

ikasleak era didaktiko eta ludikoan ikasten du zein garrantzitsua den tokiko elikagaiak erdigunean jartzea bai ingurumenagatik, bai kultura- gatik eta bai gizarteagatik. 2018an, Fribasa eta Conservas Arroyabe elkartu dira programaren hastape- netik diharduten ekoizleen zerrenda- ra: Barrenetxe, Gomiztegi, Lacturale, UDAPA eta Nusi.

Sukaldaritza gela bat antolatuta:

eguneko menu bat pentsatu eta prestatzen dute, Basque Culinary Centerreko profesional baten ahol- kularitzarekin; zentro hori erreferen- tziatzkoa da mundu osoan gastron- miaren eta sukaldaritza- ren arloan.



CAPRABOren heziketa programa

Katalunian, CAPRABOren "Aukeratu ona, aukeratu sa-noa" Elikadura Osasungarri baterako gure Heziketa Programak X. urtea bete du 2018an. Haren helburua da haurrei era osasungarrian elikatzen erakustea, eta jateko ohitura orekatuak sustatzea, nutrizioaren arloko profesio-nal batek lagunduta. Horretarako, martxan jartzen dira ikasgelan sentsibilizazioa lantzeko ekimen teorikoak, eta praktikak egiten dira supermerkatuetan, non erosketa era osasungarrian nola egin erakusten baitzaie. Horretaz gain, lehiaketa bat egiten dute familiekin, eguneko menu bat osatuz, eta, hala, ohitura on bat hartzen dute familiaren eremuan.

Era berean, programak jateko ohitura osasungarriak sus-tatzen ditu bizitzako lehenengo bi urteetan, 2 eta 3 urteko ikasleentzako kurtso batekin, CAPRABOren eta Encis koo-peratibaren lankidetzatik sortua bera.

Berritasun gisa, aurten, material berria sartu dugu ikas-leentzat, gai jakin batzuen inguruen kontzientzaitzeko helburuarekin, hala nola garapen jasangarria, kontsumo arduratsua eta gosea. Era berean, programari formatu digitala ere eman diote, ikastetxe gehiagotara iristeko eta informazioa eskuragarriago izateko.

VEGALSA-EROSKIren heziketa programa

Galizian, VEGALSA-EROSKIren bitartez gauzatzen da elikadura osasungarri bat eramateko gure hezike-ta programa. Horretarako, "Visita tu súper" eta "Mates en tu súper" programak darabiltza, eta, horiekin batera, "Come rico, vive san" ekimena daukagu, gizentasunari aurre hartzeko proiektu nazionalaren barnean. Proiektu

hori, "Prevención de la obesidad. Aligera tu vida" ize-nekoa, Gizentasunaren Espainiako Elkarteak darama bere fundazioaren bidez. Ekimen horretan laguntzen du VEGALSA-EROSKik, eta Espainiako Gobernuak "ezohiko interes publikoa" duen gertakiritzat jo du; helburua da gizentasunaren epidemia geldiaraztea eta gainditzea.



"Visita tu súper"

Horren xedea da ohitura osasunga-riak sustatzea, portaera arduratsua bultzatzea eta kontsumitzaileen inte-resen eta eskubideen alde aritzea.



"Mates en tu súper"


Dendara bisitan etortzean, kalku-luak, behaketak, datu bilketak eta abar egiten dituzte, taldeka; gosari osasungarri baterako erosketak egi-ten dituzte, eta gero ordainlekuetatik pasatzen dute ordainlekuko langi-learena eginez; ondoren, monito-rearekin aztertzen dute ea erosketa baldintzak bete diren eta osasunga-rria izan den.



"Come Rico, Vive San"

Proiektu honekin elikadura eta ohitura osasungarrien aldeko kon-promisoa sustatzen da, askotariko ekimenen bidez. Besteren artean, formaziozko lankidetzak: Sannifiesta jaialdia Galiziako eskoletan, "Visita tu súper" programa, "Dálle valor ao peixe" tailerrak, ogi eta gazta labeak eta elikadura osasungarri-rako tailerrak, bai haurrentzat eta bai helduentzat eta hornitzaileen-tzat. Nabarmenezkoa da, gainera, "Prevención de la obesidad. Aligera tu vida" sentsibilizazio kanpaina, Gizentasuna Ikertzeko Espainiako Sozietateak gidatua.

EROSKI Taldearen heziketa programetako adierazle nagusiak 2017-2018ko ikasturterako



Elikadura Eskolaren VII. Topaketa

2009tik hona, EROSKI Fundazioak zenbait topaketa sustatu ditu, zeinetan osasun arloko profesionalak eta osasunaz kezkatzen diren eta premiak dituzten herritarrek parte hartzen baitute. Helburua beti izaten da gogoetara-ko gune bat eskaintzea herritarren osasunarekin zerikusia duten gai garrantzitsuen inguruan.

2018an, Elikadura Eskolaren VII. Topaketei izen hau ipini zieten: "Jateko gogoa garunean dago; nola landu jateko ohitura osasungarriak gure seme-alabengan". Nutrizioa-ren, zientziaren eta psikologiaren alorreko adituak izan ditu, zeintzuek, EROSKI club-eko bazkideekin batera, elika-durak adin txikikoetan duen garrantzia aztertu baitute.

EROSKI Fundazioaren Heziketa Programa saritu dute

"Hazteko energia" programak egindako lana maiz aitortua izan da. 2018an, **Enpresa Ekimenik Onenaren saria** eman zion Nutrizioaren Espainiako Akademiak EROSKI Fundazioaren Heziketa Programari. Era berean, finalista izan da Sari Erantzukideen IX. ekitaldian, Komunikazio Arduratsuaren kategorian, eta komunikazio estrategia integralik onenagatik lehiatu da.

Osasunaren eta jasangarritasunaren gaineko informazioa

413-1

10. konpromisoaren bidez, kontsumitzaileak prestatzen ditugu bi-zimodu osasungarria eta jasangarria errazteko, nola eta egiazko informazioa dakarten produktu independente, praktiko eta arinak eskainita, eta era aktiboan lagunduta beren erosketetan osasuna eta jasangarritasuna hobetzen.

EROSKI CONSUMER EROSKI Taldearen proiektu informatibo bat da, duela 40 urte baino gehiago abiatu gurena helburu berberekin.

Komunikazio kanal horren bitartez, asmoa da kontsumitzaileak formatzea eta informatzea elikaduraz, elikadura segurtasunaz eta osasunaz, baina baita ingurumenaz, elkartasunaz, maskotez eta haur txikien arloaz, ekonomiaz eta abarrez. Bertan parte hartzen du kolaboratzaile talde handi batek: teknikariak, kazetariak, diseinatzaileak eta programatzaileak. Horretaz gain, zenbait entitateen laguntza jasotzen du: Espainiako Diabetikoen Federazioa, Azti-Tecnalia zentro teknologikoa eta Lehen Mailako Arretako Peditaren Espainiako Elkarte. Lau hizkuntzatan ateratzen da EROSKI CONSUMER proiektu informatiboa: euskaraz, gaztelaniaz, katalanez eta galizieraz.

2018. ekitaldia berrikuntza urtea izan da EROSKI CONSUMERentzat: edukia eskaintzeko eran pausoa eman du, berrikuntza grafikoak eta diseinuzkoak eginda, baina nortasun ikurrei uko egin gabe: kontsumitzailearentzako eduki erabilgarri eta praktikoen zorroztasuna eta inpartzialtasuna.

Papereko bertsioari dagokionez, doakoa da Espainia osoan, eta 725.539 ale banatzen ditu. Eskura dago, hala-ber, bertsio digitala, www.consumer.es, eta 50 bat milioi bisita izaten ditu urtean. Webguneak atal bat du Donejakue bideari buruzko informazioarekin, eta beste bat 4.600 janari errezetekin, eta 16 gida, lotuak daudenak osasunarekin, elikadurarekin, ohiturekin, kulturarekin eta ingurumenarekin. Teknologia berrien aldeko apustu horrekin batera, hiru aplikazio ditugu sakelakoetarako: errezetari buruzkoa bat, Donejakue bideari buruzkoa beste bat eta berriak emateko beste bat, zeinak Eroski consumer-eko artikuluak baitakartza. Gainera, presente gaude Twitter, Facebook, Google+ eta YouTube plataforma sozialetan.

EROSKI CONSUMER-ek zazpi erosketa gida argitaratu ditu kontsumitzaileari produktu kategoriak ezagutzen laguntzeko, jakintza handiagoarekin hobeto aukeratuko duelakoan: patatak, kakao hautsa eta krema, lasagna, gazpatxoak eta salmorejoak, galletak, lekaleak eta turrioiak. Gainera, "Sakonean" ikerketa atalean bi artikulu argitaratu dira, alergiari eta balio erantsi ezezaguna duten laktoeoi buruz.



Papereko edizioa:

164.000
irakurle
hilean 2018an



Sakelakoetarako aplikazioak:

Errezeten aplikazioa:
594.107
deskarga

Donejakue Bidearen aplikazioa:
173.035
deskarga

Berrien aplikazioa:
8.762
deskarga



Guztira
775.000 deskarga
baino gehiago

Edizio digitala: www.consumer.es

50 milioi
bisita inguru
2018an

4.600
janari
errezeta

Elikaduraren web
kanalari eginiko bisitak
14 milioi

11 kanal
eduki
espezifikoekin

16 gida
espezializatu

Bisitak elikadura
gidei:

frutak
11 milioi

arrainak
eta itsaskiak

10 milioi

eta berdurak
6,5 milioi



Sare sozialak:

36.000
jarraitzaile
baino gehiago

1.300
jarraitzaile
baino gehiago

46.000
atsegite
baino gehiago

21.000
harpidetu
baino gehiago



Guztira
100.000 jarraitzaile baino
gehiago



4

Langileak

Lan arduratsu eta integratzaile
batekiko konpromisoa

Konpromiso integratzailearen eredua ⁴¹³⁻¹

Gure enpresak egiten duen pertso-
nen kudeaketaren ezaugarri na-
gusia langile izateaz gain, jabe ere
bagarela da: EROSKIko plantillako
9.796 pertsona langile bazkideak
gara (guztizkoaren % 32,6), eta
horregatik, enpresaren kudeaketa
kooperatiboan parte hartzen dugu.

Eta ezaugarri horrek beste banaketa enpresetatik be-
reizten du EROSKI Taldea: jarrera proaktibo bat eta
proiektuarekiko konpromiso maila handia, maila guztietan
ko jardunean islatzen dena.

Gure etengabeko hobekuntzaren zati gisa, 2018an enpre-
sa osasungarriaren diagnostikoa egin ziguten, hobetzeko
esparruak identifikatzeko. Behin hori eginda, esparru hori-
entzat jarduteko neurri zehatzak zehaztuko ditugu 2019.
urteari begira.

Sortzen dugun enpleguak gure kudeaketa ereduari eta
plantillarekiko, bezeroekiko eta gizartearekiko konpro-
misuari jarraitzen dio, eta horregatik ahalegintzen gara
egonkorra eta kalitatezkoa izan dadin. Hala, EROSKI
2018an sorturiko enpleguaren % 75,9 finkoa izan zela azpi-
marratu beharra dago. Enpleguaren kalitateari dagokio-
nez, EROSKI honako arlo hauek lantzen ditugu kontzeptu
hori egia bilakatzeko.

**Emakumeen eta
gizonen berdintasuna,**
gure Berdintasunaren Behatokiaren
laguntzarekin.

**Soldata mailako
elkartasuna,**
ordainsari handiena dutenen eta or-
dainsari txikiena dutenen arteko solda-
ta aldea txikia izan dadin.

**Lana eta familia
bateragarri egitea,**
langileen laneko eta familiako harmo-
nia ahalik eta ondoen bideratzeko,
ordutegien eta egutegien bidez.

Garapen profesionala,
aurrerabide profesionala era integra-
lean sustatuz, prestakuntzaren eta
barne gaikuntzaren bitartez.

Osasuna eta segurtasuna,
lan giro osasungarria eta segurua susta-
tuz. Horretarako, lan segururako arauak eta
prozedurak betetzen ditugu, eta langileen
etengabeko prestakuntza sustatzen dugu

**Parte hartzea
eta barne komunikazioa,**
langile bazkideek erakundearen kudeake-
ta hobetzeko ekarpenak egin ditzaten, eta
arina eta bi norabidekoa den komunikazioa
ezartzeko.

Gizarte mailan arduratsua den enpresa ⁴¹⁴⁻¹

Gure zereginak, besteak beste, bi alderdi garrantzitsu
biltzen ditu:

- Proiektu eta enpresa eredu bat sortzea, pertsonak in-
tegratuko dituen eta haien garapen pertsonala eta
profesionala erraztuko duena
- Kontsumitzaileak eta ingurumena babesteko kon-
promisoa, gure jardunaren ardatza den komunitatea
hobetzen lagunduz, gure gizarte erantzukizunaren
adierazpen gisa.

EROSKIrentzat, Gizarte Erantzukizuna erakunde guztian
partekatutako balioa da, eta Presidentetzaren erantzuki-
zun zuzena da. Kudeaketa etikoa Zuzendaritzaren helburu
nagusien artean txertatuta, gure honako konpromiso
hauek lortzen ditugu:

- Indarrean dagoen legedia eta laneko eta koopera-
tibetako araudia betetzea, baita EROSKIren berezko
konpromisoak betetzea ere
- Kudeaketa Etikoko Sistema eraginkor bat ezartzea.
- Erakundearen portaera etikoaren etengabeko hobe-
kuntza.
- Nazioarteko esparruan aldarrikatutako giza eskubi-
deak babestea eta errespetatzea.

Gure gizarte estatutuetan, Barne Araudi Kooperatiboan
eta Kudeaketa Etikoko Eskuliburuan lan gaitako gure
konpromisoak biltzen dira, bai gure langileentzat, bai
azpikontzista eta hornitzaileentzat. Besteak beste, honako
printzipio hauek:

- 1

Haur lana **baztertzea** eta
ez erabiltzea.
- 2

Derrigorrezko eta nahitaez-
ko lana **baztertzea eta ez
erabiltzea.**
- 3

Lan giro segurua eta osa-
sungarria **sortzea.**
- 4

Elkartzeko askatasuna eta
negoiazio kolektiborako
eskubidea **errespetatzea.**
- 5

Edozer kausarengatiko dis-
kriminazioa **baztertzea** eta
ez gauzatzea.
- 6

Gorputz zigorrak, hertsas-
dura mentala edo fisikoa,
edo hitzeko abusuak
baztertzea eta ez erabi-
ltzea langileekin.
- 7

Lanorduei eta jaiegunei
buruzko legeak betetzen
direla **bermatzea.**
- 8

Ordainsariak sektore ba-
koitzeko legezko araudia-
ren arabera izatea,
langileen oinarritzko pre-
miak betetzen direla eta
bestelako gastu batzuetar-
ako ahalmena ere izango
dutela bermatuz.
- 9

Arauaren printzipioak be-
tetzen direla eta erakunde
barrian haien berri emate-
ren dela bermatzen duen
kudeaketa sistema bat
ezartzea.

Gure enpresa hornitzaileen % 100 eskakizun horien men-
de daude, eta haiekiko merkataritza harremanak bere
horretan jarraitzeko, giza eta lan eskubideak bete behar
dituzte. Arrisku handieneko enpresa hornitzaileei jarraipen
berezia egiten diegu; hau da, ehungintzako enpresei eta
Asian kokaturiko elikagaiak ez diren produktuak egiten
dituztenei

Gainera, Munduko Itunaren Espainiako Sareko kide gara,
eta hala lan eta giza eskubideekiko konpromisoa berres-
ten dugu. EROSKI Itunaren kide sortzaileetako bat izan
zen 2002an eta, harrezkero, ekimen horretan hartzen du
parte, enpresaren estrategian eta eguneroko jardueretan
oinarritzko jokabide eta ekintza printzipioak ezartzeko, giza
eskubideen, lanaren, ingurumenaren eta ustelkeriari aurre
egiteko borrokaren arloetan.

Gure lanaren funtsezko 10 balioak



- 1

Parte hartzea

sustatzen dugu
- 2

Garapen pertsonala eta profesionala

sustatzen ditugu, ezagutzak, jarrerak eta trebetasunak hobetuz
- 3

Kide izatearen sentimendua:

EROSKiko kide izateaz harro gaude, eta hobekuntza arloak bilatzen ditugu
- 4

Informazioa eta komunikazioa

sustatzen ditugu erakundearen barruan, bi noranzkoetan
- 5

Barne elkartasunari

esker, kolektiboa indibidualari nagusitzen zaio, eta epe luzea epe laburrari
- 6

Dinamismoa

aldaketara egokitzeko eta berrikuntza bultzatzeko
- 7

Bezeroa aintzat hartzen dugu,

egokitzeko eta bere beharrei aurrea hartzeko
- 8

Lan baldintzak etengabe hobetzen ditugu,

bizi kalitate egokia bermatzeko
- 9

Kanpoko elkartasuna,



gizarteari ematen diguna itzultzeko
- 10

Kooperatibean lan egiten dugun pertsonok


ahalik eta profesionalizazio mailarik handiena lortu nahi dugu

Adierazle nagusiak 102-8; 102-41; 401-1

Guztizko langile kopurua




Guztizko langile kopurua, autonomia erkidegoaren arabera




Ikus adierazleen eranskineko 6. taula aurreko urteetako datuekin alderatu ahal izateko

Langile kopurua kontratu motaren banaketa, generoaren, adin tartearen eta lan kategoriaren arabera




Langileen kopurua, generoaren, adin-tarteen eta lanbide-kategoriaren arabera



Sailkapen profesionala


Sailkapen profesionalaren arabera	2018	%
Zuzendaria	36	%0,2
Kudeatzailea	492	%2,2
Arduraduna	3.010	%13,2
Teknikaria	1.039	%4,5
Profesionala	16.719	%73,3
Agintaria	1.506	%6,6

Kontratazio kopurua eta indizea, generoaren eta adin tartearen arabera



Ikus adierazleen eranskineko 11. taula aurreko urteetako datuekin alderatu ahal izateko

Kontratazio kopurua autonomia erkidegokoaren arabera




Lanpostuz igotako pertsonen kopurua




Ikus adierazleen eranskineko 10. taula aurreko urteetako guztizko balioekin alderatu ahal izateko


Txandaketen kopurua eta indizea (langileen irteerak), generoaren eta adin tartearen arabera



Txandaketen kopurua (langileen irteerak) autonomia erkidegoaren arabera



Kaleratze kopurua generoaren, adin tartearen eta kategoria profesionalaren arabera



Adina		
%6,76	<30	35
%70,85	30-50	367
%22,39	>50	116

Sailkapen profesionala

Sailkapen profesionalaren arabera	2018	%
Zuzendaria	1	%0,2
Kudeatzailea	10	%1,9
Arduraduna	52	%10,0
Teknikaria	5	%1,3
Profesionala	418	%80,7
Agintaria	32	%6,18

Negoiazio kolektiboa



Bazkide kooperatibista ez diren langileen
%100
hitzarmen kolektibo
baten babespean daude
(plantillaren % 69)
Bazkide kooperatibista
ez diren langileak:
20.506

Langileen kudeaketa arduratsuaren 6 ardatzak

Soldata mailako elkartasuna 102-34; 102-35; 102-36; 102-37; 102-38; 102-39; 202-1; 405-2

EROSKI Koop. E., bere korporazio balioei jarraituz, soldata mailako elkartasunaren printzipioa aplikatzen du erakunde osoan. Hori dela eta, barne mailan, soldata alde txikia dago erantzukizun txikieneko lanpostuen eta goi zuzendaritzako lanpostuen artean; hain zuzen, alde hori 8,29koa izan zen 2018an. Hortaz, ordainsari handiena jasotzen duen pertsonaren guztizko ordainaren eta kooperatibako gainerako langileen batez bestekoaren arteko erlazioa 7,64koa da. Ratio hori askoz txikiagoa da IBEX 35eko enpresetakoena baino; haietan, eta 2017ko datuei erreparatuta, goi exekutiboen batez besteko ordainsaria 86 aldiz handiagoa da gainerako langileen batez bestekoarena baino.

Zuzendaritza Kontseiluak eta Kontseilu Sozialak izendatzen duten Balarazio Batzordeak du kooperatibako ordainsari maila zehazteko ardura, lanpostu bakoitzean egin

beharreko lanak eta beharrezko ahalmen eta gaitasunak aztertu ostean. Bestalde, Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak proposatzen dio Kontseilu Errektoreari goi zuzendaritzarako ordainsari politika.

EROSKiko ordainsariak publikoak dira, berdinak gizon eta emakumeentzat, eta lanpostuaren arabekoak eta ez antzintasuna edo banakako negoziazioa bezalako beste faktore batzuen arabekoak. Gainera, beharrezko giza baliabideak erakartzeko eta atxikitzeko, kanpoko lehiakortasunaren printzipioa erabiltzen da; alegia, sektoreko enpresetako ordainsari orokorrak hartzen dira aintzat. Hortaz, supermerkatuen hitzarmenari erreparatuta, gutxieneko oinarritzko soldata % 30 handiagoa da Espainiako lanbide arteko gutxieneko soldatarekin alderatuta.

Bestalde, kanpo mailan, ordainsari

mailako elkartasunak honako hau dakar berekin: **Zuzendaritza Kontseiluaren ordainsaria merkatuko balioa baino % 68 eta % 73 inguru txikiagoa da.** Hala, 2018an zehar, presidentearen eta Zuzendaritza Kontseiluko kide guztien ordainsaria 835.523 eurokoa izan zen, guztira. Horrek ez dauka inolako zerikusirik IBEX 35eko enpresen errealitatearekin; izan ere, enpresa horietan, zuzendaritza taldeetako kideen batez besteko ordainsaria EROSKiko Zuzendaritza Kontseiluko pertsona batek batez beste jasotzen duena baino 7 aldiz handiagoa da. Orobat, gure gobernu organo gorena den Kontseilu Errektoreko kideek ez dute ordainsari finkorik edo aldakorrik jasotzen lan horren ordainetan (organoko bileretara joateko gastuak izan ezik).

EROSKI Koop. E.		Taldearen gainerakoa
Kooperatibako soldata aldea	8,29	11,96
Enpresan gehien irabazten duenaren urteko guztizko ordainaren eta gainerako langileen batez bestekoaren arteko ratioa.	7,64	9,91
Urteko guztizko ordainaren igoeraren ratioa 2017 eta 2018 artean	%1,45etik %2,97ra	Oinarritzko soldataren %1eko igoera sozietate guztietan FORUM SPORTen izan ezik; azken horretan %0,18tik %1era igo da.
Zuzendaritza Kontseiluko kideen eta gainerako langileen batez besteko ordainsariaren arteko ratioa	3,70	4,52
Oinarritzko soldataren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko ratioa	+%53	+%30

Zuzendaritza Kontseiluaren batez besteko ordainsaria



Batez besteko ordainsaria, generoaren eta lan kategoriaren arabera

EROSKI Koop. E.

	Zuzendaria	Kudeatzailea	Agintaria	Profesionala	Arduraduna	Teknikaria
	71.502	44.396	31.033	16.730	22.597	30.331
	74.706	46.960	31.346	18.617	23.041	30.954
Soldata arrakala	%4	%5	%1	%10	%2	%2

Batez besteko ordainsaria generoaren eta adin tarfearen arabera

	Adina		Soldata arrakala
16.905	<30	16.428	%-3
19.065	30-50	25.234	%24
19.209	>50	27.046	%29

Lanbide kategoriaren arabeko erreferentziatzko ordainsaria berdinzalea da kooperatibako gizonen eta emakumeen artean. Soldata arrakalaren arrazoietako bat da lanbide kategoria beraren barruan generoaren arabeko banaketa ez dela orekatua erantzukizun maila ezberdinen artean; bestea, ordainsarien indizeen bilakaera historikoa

da. Espero dugu soldata arrakala pixkanaka-pixkanaka murrizten joango dela kooperatiban lan egiten duten pertsonen berritze naturalaren ondorioz, eta emakumeen presentzia handiagoaren ondorioz lanbide kategoria beraren barruko erantzukizun handiagoko postuetan.

Gainerako sozietateak

	Zuzendaria	Kudeatzailea	Agintaria	Profesionala	Arduraduna	Teknikaria
	52.363	51.867	28.625	15.894	21.334	29.760
	86.664	55.526	32.174	16.720	23.373	33.114
Soldata arrakala	%40	%7	%11	%5	%9	%10

	Adina		Soldata arrakala
14.879	<30	15.826	%6
17.068	30-50	20.880	%18
17.387	>50	25.923	%33

Ordainsariei buruzko datu guztiak lanaldiaren % 100aren arabera kalkulatu dira.

Berdintasuna 405-1

EROSKIn emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna kudeaketan oinarritzko printzipio estrategiko bat da. Desberdintasuna ezabatzeak berekin dakarren alda-keta prozesua oso errotuta dago gure kultura kooperatibo eta berdintasunezkoan. Ildo horretan, EROSKIk diskrimina-ziorik ezaren printzipioari jarraitzen dio, Fundazio estatutue-tan jasota baitago, eta ez bakarrik generoari dagokionez, baita arrazari, sexu orientazioari, erlijio sinesmenei, iritzi politikoei, nazionalitateari, gizarte jatorriari, desgaitasunari eta diskriminazioa eragin dezakeen beste edozer ezauga-rriri dagokionez ere.

Horretarako, 2005ean, Berdintasunerako Batzordea sortu genuen. Haren ardura EROSKIn Emakumeen eta Gizo-nen Berdintasunari buruzko Diagnostikoa eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana egitea eta aldin aldian eguneratzea da. Gainera, Berdintasun Behatokiak printzipio hori erakundean betetzen dela zaintzen du.

Organismo horretan, kooperatibako bazkide langileen ordezkariak hartzen dute parte. Honako sei lan arlo hauek biltzen ditu: hizkuntzaren erabilera, gorputzerako eta osasunerako oztopoak ezabatzea, gizarte oztopoak eza-batzea, garapen pertsonala eta profesionala, eta bizitza pertsonala eta profesionala bateragarri egitea.

Gainera, salaketa kanal bat ere badugu eta, 2015az ge-rozti, aholkularitza zerbitzu bat (isilpekoa) ere bai, laneko jazarpen kasuak saihesteko eta gertakari oro bideratzeko.

2018an, 2017-2020 Berdintasun Plan Estrategikoaren aldiz-kako jarraipena egin genuen, eta barneko eta kanpoko hautaketa prozesua eguneratu, aukera berdintasunarekiko esanbidezko konpromisoa txertatuta.

Hona hemen 2018an zehar gauzaturiko beste jarduketak garrantzitsu batzuk:

Emakumearen Egunaren ospakizuna

- Martxoaren 8ari buruz gogoeta egiteko eta ospatzeko doako go-saria.
- Kartelak denda guztietan.
- Ekitaldiaren barneko publizitatea, eta kanpokoa, Nexo aldizkariaren eta asteroko newsletterren bidez.

Berdintasuna bultzatzeko prestakuntza

Orgatilatxo Gidarien eskola jarri da abian, EROSKiko emakumeak tradizioz gizonak bete izan dituzten lanpostuetan enplegatzeko. Guztira 12 emakumek parte hartu dute prestakuntza ikasta-roan.

Lankidetzak

- “La mujer y el cambio social” (Emakumea eta gizarte alda-keta) jardunaldia, barneko, kanpoko eta belaunaldi arteko ikuspegi batetik landua. Guztira 300 pertsonak parte hartu zuten jardunaldian, eta bertan, lider diren emakumeak eta mundu osasungarri, bidezko, berdintzaile eta ekitatiboago baten alde lan egiten dutenak bildu ziren, hel-duek belaunaldi gazteenei, eta bizitzako arlo guztiekin lotuta, ber-dintasunaren ideiak helarazteari dagokionez duten erantzukizunaz gogoeta egiteko.
- Gurutze Gorriak 2018ko urriaren 25ean Logroñon antolaturiko *Mer-cados Inclusivos, Redes Sociales, Emplea Igualdad* elkarrizketa mahaian parte hartzea.
- Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartek antola-turiko osasun mahaian parte har-tzea eta hari babesletza eskaini-tzea. Mahaian osasunaren arloan aplikaturiko teknologia berrien iraultzaz hitz egin zuten, arreta be-rezia jarrita emakumeengan.
- Coruñako Concelloko “A Coruña en negro contra as violencias machistas” kontzientiazio kanpai-nan parte hartzea.

Berdintasun adierazleak

Berdintasunarekiko dugun konpromisoaren erakusgarri gisa, azpimarratu nahi dugu gure langileen % 78 ema-kumeak direla eta, 2018an, emakumeek erantzukizuneko lanpostuen % 71 betetzen zituztela. Portzentaje hori sekto-reko batezbestekoa baino askoz handiagoa da. Gainera, 2017. urtearen hasieratik, EROSKI sozietate kooperatiboak emakumeen eta gizonen presentzia parekidea du bere Zuzendaritza Kontseiluan.

Halaber, gobernu korporatiboko organoetako kide gehie-nak emakumeak dira. Bestalde, 2018an parekidetasuna da nagusi EROSKI Koop. E-ren organo gorenean, Kontseilu Errektorean.

Langileen banaketa generoaren eta adin tartearen arabera, lan kategoria bakoitzean

36
Zuzendari



%33 - 12 emakumeak
%67 - 24 gizonak

Adina		
<30	%0,0	0
30-50	%63,9	23
>50	%36,1	13

569
Kudeatzaile



%55 - 313 emakumeak
%45 - 256 gizonak

Adina		
<30	%5,6	32
30-50	%59,2	337
>50	%35,2	200

3.131
Arduradun



%55 - 313 emakumeak
%45 - 256 gizonak

Adina		
<30	%3,7	115
30-50	%71,4	2.236
>50	%24,9	780

1.111
Teknikari



%55 - 614 emakumeak
%45 - 496 gizonak

Adina		
<30	%4,9	54
30-50	%69,0	767
>50	%26,1	290

23.652
Profesional



%81 - 19.064 emakumeak
%19 - 4.588 gizonak

Adina		
<30	%17,0	4.010
30-50	%63,0	14.899
>50	%20,0	4.743

1.549
Agintari




%59 - 910 emakumeak
%41 - 639 gizonak

Adina		
<30	%2,6	41
30-50	%71,6	1.109
>50	%25,8	399

Ikus adierazleen eranskineko 13. taula generoaren, adin tartearen eta lan kategoriaren arabera langile kopuruari buruzko datu konbinatuak ikusteko



Gobernu organoen banaketa generoaren eta adin tartearen arabera



Laneko osasuna eta segurtasuna

Laneko arriskuak prebenitzea 403-1; 403-4

EROSKIn lan proaktiboa egiten dugu langile guztien segurtasun eta osasunarekiko dugun konpromisoa gauzatzeko. Laneko arriskuen prebentzioaren eta osasunaren arloko prestakuntzaren eta sustapenaren arloetan jarduten dugu, eta etengabe hobetzen ditugu laneko arriskuak prebenitzeko gure sistemak, eta enpresaren kudeaketa orokorrean txertatzen ditugu.

Laneko arriskuak prebenitzeko bi zerbitzu mankomunatu ditugu: bat CAPRABOrentzat, eta bestea taldeko gainerako sozietateentzat. Honako espezialitate hauek dituzte bi zerbitzuek: laneko segurtasuna, industria higiena eta ergonomia, eta psikologia aplikatua. Osasunaren zaintza kanpoko prebentzio zerbitzuen bitartez egiten da, nahiz

eta 2018ko urrira arte, EROSKI Koop. Elkartek espezialitate hori zuen bere Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuaren barruan.

Gainera, langileok arriskuak identifikatzen eta laneko baldintzak hobetzeko proposamenak egiten parte har dezakegu, horretarako haiek osasun eta segurtasun batzordeetara aurkeztuta (hainbat arlotan jarduten dute, lantokian zein erakunde osoan), baita sozietate ordezkaritzako beste organo batzuetara ere (haietan, EROSKIko langile guztiak daude ordezkaturik) eta laneko osasun eta segurtasunarekin lotutako gai guztiak jorratzen dira.



Laneko arriskuak prebenitzeko neurriak:

2018an zehar plantillaren laneko arriskuak prebenitzeko ekintzak gauzatu dira. Horien artean, honako hauek dira nabarmentzekoak:

Taldeko negozioren **prebentzio planak berrikustea eta eguneratzea**, baita arriskuen ebaluazio orokorak ere.

Prebentzioko barne ikuskapenak eta ikuskapen programatuak egitea. Azken horiek zentroetako ikuskaritza taldeek egiten dituzte, eta ondoren, antzemandako akatsak murrizteko eta hobetzeko proposaturiko neurrien jarraipena egiten dute.

Languneetan bertan **larrialdietako simulakroak egitea**, ebakuatuz edo ebakuatu gabe.

Prestakuntza: prebentzioari buruzko oinarritzko ikastaroak eta lanpostuko arriskuei edo larrialdietako jardueri buruzko trebakuntza espezifikoa eskaini dira.


Osasunaren zaintza 403-2

EROSKIn kanpoko prebentzio zerbitzu bat dugu hitzartuta osasunaren zaintzaren espezialitaterako. Zerbitzu horrek honako mediku azterketa hauek egiten ditu: ospitaleratzekoak; aldizkakoak, lanpostuaren arriskuaren arabera; iraupen luzeko bajen ostekoak; lanpostu zehatzetako nahitaezkoak; haurdunaldietan eta langile sentikorraren balioespen medikoak.

Bestalde, eta kontingentzia profesionalari dagokionez, mutualitatearekin berrikusi eta koordinatzen ditu gaixotasun profesionaltzat jotako kasu guztiak.

Laneko istripuen tasa

33,9 istripu arin bajarekin, lan egindako milioi bat orduko




Kausak:




Eragile materialak:



4x10⁻⁸ istripu larri bajarekin, lan egindako milioi bat orduko



5,0 in itinere istripu bajarekin, lan egindako milioi bat orduko




Laneko istripuek edo gaixotasun profesionalak eragindako heriotzak



Ikus adierazleen eranskineko 14. taula aurreko urteetako datuekin alderatu ahal izateko.

Istripu arinen kopurua eskualdearen arabera



Plataformetako kanpoko istripuen kopurua

37 istripu arin kanpoko langileen artean

Laneko istripuen kausak

Ibilgailuek harrapatzea edota horien kontra kolpea hartzea

%24,3

Gehiegizko esfortzua

%24,3

Erorikoak manipulatzan ari ziren objektuekin

%10,8

Beste kausa batzuk

%40,5

Eragile materiala

Orgatilak edo antzekoak

%29,7

Elikagaiak, beirak, plastikoak edo ontziratuak

%13,5

Paletak

%8,1

Bestelako eragile material batzuk

%48,6

Absentismo tasa



%6,2
laneko absetismoa


(gaixotasunengatik, gaixotasun profesionalengatik eta laneko istripuengatik hutsegindako orduen ehunekoa/lanordu teorikoak)
48.446.309 ordu

%6,8 emakumeak
36.796.232 ordu

%4,2 gizonak
11.650.077 ordu

Ikus adierazleen eranskinetik 15. taula aurreko urteetako datuekin alderatu ahal izateko.

Gaixotasun profesionalen tasa



%93
emakumeak


%7
gizonak

1,3
gaixotasun profesional
bajarekin, lan egindako
milioi bat orduko

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza tasa

28.376 orduko
laneko arriskuen
prebentzioari buruzko
prestakuntza

0,94 orduko
LAPari buruzko
prestakuntza, batez beste,
langile bakoitzeko



Garapen profesionala

404-1; 404-2

EROSKiko lantaldeetako langileen garapen profesionala eta pertsonala sustatzea 2020ra arteko Plan Estrategikoaren hiru zutabeetako bat da, eta, horri esker, pertsonen prestakuntza gako gisa kokatzen da lehiakortasuna hobetzeari dagokionez. Gure langileak gaituz, errendimendu handiko lantaldeak osatu nahi ditugu, hazkunde profesionala bultzatu eta autokudeaketaren kooperatiba kultura sustatu.

Hala, 2018an, ia 2 milioi euro inbertitu genituen gure langileen prestakuntzan, **207.000 prestakuntza ordutara** iritsi arte. Beste behin, gaikuntza programen ardatza lidergoa eta freskoetako langileen profesionalizazioa izan da. Horrekin batera, talentu programa baten alde egiten jarraitu dugu, erakunde barruko potentziala handitze aldera.

Honako hauek izan dira 2018ko prestakuntza programa nagusiak:

Fresko eskola

2018an, harategi, arrandegi, okindegi, urdaitegi eta frutategi eskoletako heziketa programekin jarraitu dugu. Horretarako, 2016an garatutako kudeaketa tresnak eta prestakuntza zentroak izan ditugu eskura, baita prestakuntzaz arduratu diren 50 monitore ere. Guztira 457 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte eta 57.224 prestakuntza ordu eman dira.

Bezeroaren arretarako programa

Programa honen helburua gure langileak dendako bezeroari arreta eta zerbitzu aurreratuak emateko trebatzea izan da. 2018an zehar, 3.835 prestakuntza ordu eman dira gai horretan.


Orain Campus

Ikasketa eta garapen esparrua, EROSKiren Talentuaren eta Zuzendaritza Garapenaren Ereduaren esparruan, berrikuntza, lidergoa, espirtu kooperatiboa eta profesionaltasuna sustatzeko, beharrezko elementuak baitira gure erakundearen erronkei aurre egiteko. Campusean lau fakultate daude (Komertziala eta Marketina, Sarea, Jenioa eta Asmamena, eta Soziolaborala).

SUMMA

2015etik eta Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean, bazkide langileen zuzendaritzako eta erakunde kudeaketako trebetasunak garatzeko helburua duen proiektua. Bertan, arreta berezia jartzen da emakumeen garapen profesionalean, agintaritza eta zuzendaritza postuetara iritsi ahal izan daitezen. 2018an 1.211 prestakuntza ordu eskaini zitzaizkien 11 pertsonari.

EROSKiko langileen batez besteko prestakuntza orduak, generoaren eta lan kategoriaren arabera




Ikus adierazleen eranskineko 17. taula aurreko urteetako datuekin alderatu ahal izateko.

Sustapen profesionala 404-3

Prestakuntzarekin batera, EROSKIko pertsonen kudeaketaren beste elementu garrantzitsu bat lanpostuz igotzeko aukera da, prozesu naturalizat hartzen baitugu gure langileen bizitza profesionalean, eta gaikuntza profesionalean eta jardueraren kalitatean oinarritzen da. Ildo horretan, 2018an, gure langileen % 0,9 igo zen mailaz; hau da, 260 pertsona. Horietatik % 75 emakumeak.

Jardueraren eta garapen profesionalaren aldian behingo ebaluazioa egiten zaien langileen kopurua eta ehunekoa



Barne komunikazioa

EROSKlren eredu kooperatiboaren ezaugarri nagusia langileek erakundearekiko duten konpromiso handia da. Horretarako, gure kudeaketa ereduak entzute aktiboa eta etengabeko komunikazioa ahalbidetzen ditu. Gure iritziz, bi elementu horiek funtsezkoak dira gure gardentasuna eta gure plantillaren motibazioa bermatzeko, eta kalitatezko lana egin dadin errazteko.

2018an, barne komunikazioko plana egin dugu eta 4.500 bazkide langile inguruk hartu dute parte kolektibo osorenen urteko bileran, 150 pertsonako taldetan, Goi Zuzendaritzaren gidaritzapean.

EROSKIn komunikazioa negozio guztietako maila guztietako pertsona bakoitzarengana iristen da, eta taldea osatzen duen sozietate bakoitzaren ezaugarrietara egokituta dago.

Horretarako, hainbat tresna eta argitalpen erabiltzen ditugu, langileen eta erakundearen arteko komunikazioa erraztu eta indartzeko:

NEXO

Etengabe eguneratzen den online aldizkaria. Enpresaren arlo guztiei buruzko informazioa ematen du, arreta datu ekonomikoetan, sozietate datuetan eta EROSKlren "Zurekin" ereduaren oinarri diren merkataritza ardatzetan jarrita. Gainera, Nexok argitalpen monografikoak egiten ditu aldizka.

NÉCTAR

Hilean behin argitaratzen den aldizkaria, EROSKlren marka propioetako produktu berriak ezagutzera ematen dituena. Produktu berrien ezaugarriak (organoleptikoak, kalitatezkoak eta ontzienak) xehe-xehe azaltzen ditu eta EROSKlren ardatz estrategikoei buruzko informazioa jorratzen du, beste gai batzuen artean.

La Parrapla

Egoitza Sozialerako hilean behingo buletina, sozietatearen bizitzako albiste garrantzitsuen berri ematen duena, laburpenen bidez.

Intranet korporatiboak

Balio profesionaleko eta sozietatearen intereserako edukiak eskaintzen dituzte. Gainera, zenbait intranet, hala nola FORUM SPORTeko Forumnet, dokumentuen gordailu ere badira. Beraz, informazioa trukatzeko eta lankidetzan aritzeko aukera emate diete taldeei, eta hori ezinbestekoa da barne komunikazioa eraginkorra izan dadin.

Lan munduan txertatzea eta gizarte berrikuntza

EROSKI, kontsumo kooperatiba bat denez, proiektu kolektibo bat da, kasu honetan kontsumitzaileei eta gizarteari laguntzen ahalegintzen dena. Eta, hortaz, gizarte egoera ahulean eta gizarte bazterketako arriskuan diren pertsonak lan munduan txertatzeko konpromisoa dauka. Hori dela eta, lanerako prestakuntza hitzarmenak egin ditugu enplegu zerbitzu publikoekin eta zenbait erakunderekin; besteak beste, Gurutze Gorriarekin. Hitzarmen horien bidez, prestakuntza programak eta lanekoak ez diren praktikak antolatzen ditugu urtero, lan munduan sartzeko

zailtasun handienak dituzten kolektiboentzat. Horri esker, pertsona horiek gaikuntza profesionala lor dezakete eta, horrenbestez, gure salmenta puntuetan lan egiten has-teko aukera dute. 2018an, 86 erakunderekin elkarlanean, 450 pertsonari baino gehiagori eman genien prestakuntza, eta haietatik, gaikuntza programak amaitutakoan, 120 baino gehiago kontratatu zituen EROSKIk.

2018an kolektibo horiei lan munduan sartzen laguntzeko egindako ekimenetatik honako hauek dira aipagarrienak:

Kontratazio konpromisodun ikastaroak

2018an, kontratazio konpromisodun 6 ikastaro eman dira, eta haien bitartez, 93 ikasletik 56 kontratatu dira, hau da % 56ko kontratazio tasa.

Berritasun gisa, azpimarratzekoa da aurtengo CAPRABON hasi direla kontratazio konpromisodun ikastaroak ematen.

Prestakuntza duala

2018ko ekainean ekin zitzaion prestakuntza dualari. Gaur egun, 3 ikaslek dute ikasketak eta praktikak uztartzeko aukera ematen dien urtebeteko prestakuntza jasotzeko kontratua. Prestakuntza egiten ari diren lanpostuak bidaletako saltzaileenak dira.

Lanekoak ez diren praktikak

CAPRABON eta EROSKIn lanekoak ez diren **37.000 praktika orduak** gainditu ditugu, eta guztira, 491 ikaslek parte hartu dute 2018an. Horietatik 86ri kontratua egin zaie praktikak amaitzean. Beraz, 2017arekiko % 72ko hazkundea dakar horrek.

Gizarte prestakuntza eta integrazioa

2018an egoera ahulean edo gizarte bazterkeria arriskuan dauden kolektiboetako pertsonekin lan egiten duten 41 erakunderekin lankidetzan aritu gara; esaterako, Gurutze Gorriarekin, Zabaltzen elkartarekin, Ilundain fundazioarekin eta Koopera-rekin. Guztira, 391 pertsonak parte hartu dute ikastaro horietan, eta haietatik 75 kontratatu ditu enpresak ikastaroa amaitzean.

ONCE Fundazioaren Inserta programak

EROSKI ONCE Fundazioaren Inserta programako eta Foroko Espainiako 64 enpresa liderretako bat da. Insertako enpresa garen aldetik, gizarte erantzukizunarekin, aniztasunarekin eta desgaitasunarekin dugun konpromisoa adierazten dugu, baita aldagai hori zeharka gure balio katean eta garatzen ditugun gizarte erantzukizun korporatiboko politiketan integratzeko grina ere, hala gure lehia-kortasuna hobetuta. ONCE Fundazioa gurekin lankidetzan ari da desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzen duten eta haien bizi kalitatea hobetzen duten proiektuak garatzen, proiektu horiek berritzeko, bereizteko eta balioa sortzeko ematen dizkiguten aukera guztiak optimizatuz.

Aurrekoaz gain, gizarte arloan konpromisoa dugu laneratzeko zailtasunak dituzten kolektiboen prestakuntzarekin eta enplegarritasunarekin.

Bestetik, EROSKI Taldean, hainbat proiektuen bidez, gizarte berrikuntza lantzen dugu, gaitasun desberdinak dituzten pertsonak integratzeko. Beste proiektu batzuk aurreikusten ditugu gizarte ekonomiako erakundeekin eta gizarte helburuak dituzten beste erakunde batzuekin elkarlanean, frankiziatutako supermerkatuen bidez beste eskualde batzuetan ere desgaitasuna duten pertsonentzat enplegua sortzeko.



Produktu inklusiboak

EROSKI Lantegi Batuak erakundearekin lankidetzan hasi zen 2018an, hain zuzen “Naia” proiektuan, % 100 ekologikoak diren entsaladak eta barazki freskoak merkatu-ratzeko, gizarte garapenarekin eta jasangarritasunarekin duen konpromisoaren ildotik. Kooperatibak merkaturatuko diren lehen erreferentzietako bi eskaintzen ditu Euskadiko bere establezimenduetako 29tan: batavia entsalada eta nahasketa entsalada. Jateko prest dauden entsalada eta barazki fresko eta ekologiko marka berri hau Bizkaiko hainbat ustiategi ekologikorekin eginiko lankidetzaren es-parruan egin da.

Ekimena VEGALSA-EROSKI eta CAPRABOn zeudenei batu zaie.

VEGALSA-EROSKIn dibertsitate funtzionala duten pertso-nak gaitzearen eta gure jardueran txertatzearen aldeko apustua egiten dugu, zenbait proiektu aktibatuz; esate baterako, “We, La Alegría de la Huerta” barazki marka jarri

genuen abian 2016an, Down Coruña Elkartearekin elkar-lanean, eta hitzarmena sinatu genuen 2017an Vigoko Freshcut markarekin, haien bosgarren sortako produktuak gure lerroetan txertatzeko. Enpresa horren plantillaren % 80 dibertsitate funtzionala duten pertsonen osatzen dute, eta hainbat produktu merkaturatzen ditu, esaterako, barazki kremak eta hainbat frutarekin eginiko pureak, Galifresh markaren pean.

CAPRABOn AMPANS fundazioak egiten dituen Muntanyo-la gaztak eta Urpina ardoak merkaturatzen hasi ginen 2017an. Erakundeak 50 urtetik gorako ibilbidea du eta adimen desgaitasuna eta buruko gaixotasuna duten edo ahulezia egoeran diren pertsonen hezkuntza, bizi kalitatea eta laneratzea sustatzeko egiten du lan. Zehazkiago, Que-sos Muntanyola-n adimen desgaitasuna duten 10 pertso-nak egiten dute lan, eta ahuntzaren, bufaloaren, behiaren eta ardiaren 14 gazta barietate egiten dituzte.

Supermerkatu inklusiboak

EROSKIk eta GUREAKEk desgaitasuna duten pertso-nen gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko elkarrekin gauzatu dugun proiektua sendotu dugu eta horren isla da Gasteizen ireki berri dugun supermerkatua, oso-osorik desgaitasuna duten pertsonen kudeatua. Duela hiru urte jarri genuen gizarte berrikuntzako ekimen aitzindaria mar-txan, hura hedatzeko asmoz. Aurreko esperientzien ba-lantze positiboak gure denda frankiziatuaren ereduaren lehiakortasuna berretsi du; ekintzaileekin, kooperatibekin eta gizarte ekonomiako enprekin partekatzeak aukera eskaintzen duen eredu bat, gure ingurunean enplegua eta aberastasuna sortzeko eta gizarte enplegua dibertsifi-katzeko helburua duena.


Eredua CAPRABOra zabaldu zen eta 2017an ireki genuen Katalunian desgaitasuna duten pertsonen erabat kudea-turiko lehenengo supermerkatua. Iaz inauguratu genuen eta 21 eta 59 urte arteko 12 pertsonako plantilla dauka. Denda desgaitasuna duen pertsonen laneratzea lortzeko gizarte berrikuntzako proiektu baten zati da, eta hain zu-zen, publikoarekiko harreman zuzenaren bidez, gaitasun eta trebezia aniztasuna ikusgarri egin nahi du gizar-tearen aurrean.

Bestelako gaitasunak edo aniztasun funtzionala duten pertsonen banaketa, generoaren, adin tartearen eta lan kategoriatan arabera

		Guztira			
<30	7	18	%4,6	11	<30
PROFESIONALA	7	18	%4,6	11	PROFESIONALA
30-50	140	246	%63,2	106	30-50
KUDEATZAILEA	1	2	%0,5	1	KUDEATZAILEA
PROFESIONALA	125	221	%56,8	96	PROFESIONALA
ARDURADUNA	9	12	%3,1	3	ARDURADUNA
TEKNIKARIA	2	3	%0,8	1	TEKNIKARIA
AGINTARIA	3	8	%2,1	5	AGINTARIA
>50	88	125	32,1%	37	>50
ZUZENDARIA		1	%0,3	1	ZUZENDARIA
KUDEATZAILEA		2	%0,5	2	KUDEATZAILEA
AGINTARIA	2	8	%2,1	6	AGINTARIA
PROFESIONALA	78	100	%25,7	22	PROFESIONALA
ARDURADUNA	5	10	%2,6	5	ARDURADUNA
TEKNIKARIA	3	4	%1,0	1	TEKNIKARIA
Guztira	235	389		154	Guztira

Ikus adierazleen eranskineko 20. taula aurreko urteetako datuekin alderatu ahal izateko, generoaren eta lan kategoriatan arabera





5

Balio katea

Enpresa hornitzaileekiko
konpromisoa

Balio-kate eraginkor eta kolaboratiboa


2018an, balio katearen optimizazioaren eta berrikuntza integralaren, denda eredu berrien garapenaren eta bezeroekin beste modu bateko harremana izatearen aldeko apustua egiten jarraitu dugu, gure eguneroko jarduna inspiratzen duen “zurekin” espirituz blaituta.

Gure helburua, erakundea dendei begira jartzeaz gain, gure laguntzaile nagusiek eta enpresa hornitzaileek ere gauza bera egitea da.

Gero eta produktu sorta zabalagoa eta pertsonalizatua eskaini eta bezeroek gehiago aurrezteko, fabrikatzailearen marka eta gure marka eskaintzen ditugu gure balio katean, eta denda bakoitzetik hurbil ekoiztutako tokiko elikagaien aukera zabala daukagu. Nekazaritzako elikagaien ekoizpen ehunaren aniztasuna indartzen jarraitzen dugu, tokiko sektore jasangarri bat lortze aldera, EROSKIren eta gure bezeroen konpromisoari esker. Gainera, merkataritza itunei eusten diegu, kontsumitzaileei egiten diegun balio eta prezio proposamena hobetzeko.

EROSKIren balio-katea

HORNITZAILEA



Hauek dira gure merkataritza lehiakortasuna hobetzeko gakoak:

Salmenta eta hornikuntza prozesuen **optimizazioa**, balio kate osoan eraginkortasun handiagoa lortzeko.


Gizarte eta ingurumen **erantzukizuna**, enpresa hornitzaileak aukeratzeko irizpide gisa.

Berrikuntza enpresa hornitzaileekiko eta elikaduran erreferentzia diren erakundeekiko lankidetzaren esparruan.

Prezio egoki eta lehiakorragoak, merkataritza itunei esker eta promozio eta eskaintza pertsonalizatuak kudeatuz.

Nekazaritzako elikagaien ekoizpen ehunaren **aniztasuna**, tokiko ekoizle txikiak sustatuz.

EROSKI



Gure markak

2018an, gure markak 41 urte bete ditu. Sortu zirenetik, EROSKI markako produktuak hazi egin dira eta familiako kide bihurtu dira; hori dela eta, lanean jarraitzen dugu bezeroei produktu gehiago eta kalitate hobea-gokoak eskaintzearren, aurrezten laguntzeko. Beste aurrerapauso batzuen artean, azkeneko urtean EROSKI Basic produktuen ontziaren diseinua berrikusi dugu eta, bestalde, produktu freskoen EROSKI Natur marka birjarri dugu “Zapore arduratsua” lelopean, EROSKIren 5. konpromisoaren adierazle; hau da, ingurunearekiko konpromisoa adieraziz, produktu freskoen eta zaporetsuen kontsumo arduratsuaren bidez produktuen jatorria eta prozesuaren trazabilitatea bermatuta. EROSKI markako 201 produktu berri merkaturatu ditugu.

	Gure markako erreferentziak	2018	2017	
	EROSKI SeleQtia	199	196	Onenetan onena. Basque Culinary Centerrek egiaztatutako produktuak.
	EROSKI	2.798	2.752	Produktu sorta zabala. Behar duzun guztia, kalitate prezio erlazio onena bermatuta.
	EROSKI Sannia	132	141	Nutrizioaren aldetik orekatutako produktuak, merkaturatuko berdina edo batez bestekoa baino hobeak: %25 gatz gutxiago, %30 gantz eta azukre gutxiago, edo %30 gantz ase gutxiago. Zuntzean, Omega 3an eta fitoesteroletan aberatsak, zapore osoarekin eta prezio onenean.
	EROSKI Natur	398	369	Produktu freskoak, zapore guztiarekin, erabateko trazabilitatearekin eta kalitate kontrolatuarekin, jatorri onenetatik eta une onenean.
	Belle	449	426	Kosmetikako, higieneko eta zaintza pertsonaleko produktuak, parabenorik eta triklosanik gabeak, dermatologikoki testatuak eta prezio onenean.
	EROSKI Basic	362	342	Egunero kontsumitzeko produktuak, EROSKIren kalitate berme guztiekin eta prezio baxuenean.
	Visto Bueno	2.126	1.739	Arropa eta oinetakoak, geuk diseinatuak eta kalitate-prezio erlazio onenean.
	Romester	408	489	Kirol arropa eta ekipamendua, geuk diseinatuak eta kalitate-prezio erlazio onenean.
	Ecron	403	53	Gailu elektronikoak eta etxetresna elektrikoak, hainbat funtzionaltasun mailatakoak, kalitate-prezio erlazio onenean.

Hornitzaileak

102-9; 102-10; 204-1


Merkataritza banaketaren jardueran, produktuen prezioa, kalitatea eta eskuragarritasuna dira kontsumitzaileek ondoen estimatzen dituzten balioak. Hortaz, enpresa hornitzaileen hurbiltasuna (geografikoa zein baterako ekimenei heltzeko garaian) funtsezkoa da gaur egun.

EROSKIin, 11.000 merkataritza eta zerbitzu enpresa hornitzaile baino gehiagorekin egiten dugu lan. Eta haiekin, 2018an, 4.000 milioi eurotik gorako transakzio ekonomikoak egin genituen. Beraz, azken ekitaldian, 107.000 produktu baino gehiago saldu genituen. Konpromiso nabarmena dugu Espainiako ekoizpen ehunarekin, izan ere, hornitzaileei egiten diegun gastuaren %98 Espainiako

lurraldeko enpresei dagokie. Gainera, hurbileko kontsumoa sustatzen saiatzen gara. Horretarako, gure merkataritza horniketako katearen %50etik gora tokiko eta eskualdeko hornitzaileak dira.

Plan estrategiko honetan Hornitzaileekin Elkarlanean Aritzeko Plan Nagusia garatzen ari gara, erakundearen arlo guztiak kontuan hartuta eta osasunaren eta jasangarritasunaren arloko 10 konpromisoekin guztiz lerrokatuta. Planak hiru ardatz ditu: BEZEROA (arreta berezia jartzen dugu kontsumitzaileen beharretan), OSASUNA (plan estrategikoaren palanka nagusietako bat da) eta ERAGINKORTASUNA (apustu argia egingo dugu logistika-aren arloan)

Merkataritza eta zerbitzu hornitzaileak herrialdeka



	2018		2018		2018
Espainia	11.029	Belgika	12	Polonia	2
Txina	70	Bangladesh	11	Tailandia	2
Frantzia	63	Danimarka	10	Taiwan	2
Portugal	51	Norvegia	9	Zipre	1
Erresuma Batua	33	Andorra	6	Hego Korea	1
Alemania	20	Vietnam	5	India	1
Holanda	20	Pakistan	4	Indonesia	1
Italia	16	Suitza	4	Israel	1
AEB	13	Grezia	2	Singapur	1
Irlanda	12	Luxemburgo	2	Suedia	1

2018an ez da aldaketa adierazgaririk izan horniketa katean. Ikus adierazleen eranskineko 21. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Enpresa hornitzaileak guztira:
11.405

AGECORE, europako negoziazioko zentral handiena

Ingurunea oso lehiakorra da; alde batetik, lehengaien merkatuak globalak dira, eta, beste batetik, marka handi aitzindariak mundu mailan jarduten dute. Testuinguru horretan, EROSKI, nazioarteko merkatuetan ditugun itunak sendotzen ditugu.

Elementu erabakigarriak dira; gure lehiakortasunaren oinarri dira, eta kontsumitzaileei aurrezteko aukera ematen diete.

AGECORE zentrala Europako erosketen itun handiena da eta EROSKI, ITM Taldeak (Frantzia), EDEKAK (Alemania), COLRUYTEK (Belgika), CONADEK (Italia) eta COOPek (Suitza) osatzen dute. Enpresa independenteak izateaz gain, epe luzeko ikuspegi estrategikoa partekatzen dute. Haien helburua da Europako kontsumitzaileei produktu sorta zabalago bat eskaintzea, aukeratzeko askatasun handiagoa izateko, prezio onenetan, eta gure enpresa hornitzaileentzako negozio aukerak zabaltzeko.

AGECOREren fakturazio globala 140.000 milioi eurora heldu da, eta haren merkataritza jarduera Europako 8 herrialdetan garatzen da (Alemania, Belgika, Espainia, Frantzia, Italia, Suitza, Polonia eta Portugal). Ituna aliatuen topagune ere bada, sinergiak bilatzeko, zenbait eremutan ezagutza elkartrukatzuz; adibidez, kontsumo jasangarrian, kalitatearen kudeaketan, denda formatuetan eta tokiko ekoizle txikiekin lankidetzan aritzeko programetan.

Gure hornitzaileen gizarte erantzukizuna 414-1

Jasangarritasuna, ekonomia, gizarte eta ingurumen alderdien arteko orekatzat hartuta, funtsezkoa da gure horniketa katea osatzen duten enpresak aukeratzearan. Esate baterako, langileak erantzukizunez kudeatzeko eskatzen diegu gure hornitzaileei, eta enpresetan ingurumen kudeaketarako sistemak ezartzen dituztenak lehenesten ditugu.

Bidezko merkataritza

EROSKI Espainiako merkataritza eskaintzan bidezko merkataritzako produktuak sartu zituen lehen banaketa enpresa izan zen. Gainera, Fairtrade International erakundeak produktu horiek inportatzeko eta gure merkataritza markarekin banatzeko legitimatutako eragile gisa aitortu gaitu. Hauek dira saltzen ditugun bidezko merkataritzako produktuak: kafea, kakaoa, tea eta azukrea, eta ziurtatutako ehungintzako zenbait produktu ere bai.

Fairtrade International produktuek haren horniketa katearen ziurtagiria dute. Hau da, prozesu guztia bermatzen da, produktua sortzen denetik kontsumitzaileak erosten duen arte; beraz, bidezko merkataritzaren gizarte, ekonomia eta ingurumen irizpideak betetzen direla bermatzen da: bizitza duina izateko soldadak, haurren esplotaziorik gabeko produktuak, gizonen eta emakumeen berdintasuna, lan eskubideak eta ingurumenarekiko errespetua.

Gizarte erantzukizuna

Langileei buruzko kapituluaren zehazten denez, gure enpresa hornitzaile guztiek laneko gizarte erantzukizuneko irizpideak bete behar dituzte. Hortaz, EROSKIrekin merkataritza harremanik izan nahi badute, giza eta lan eskubideak bete behar dituzte. Gainera, gure barne araudiak hornitzaileen eta kontraten kudeaketan jarduera ustel oro prebenitzeko neurriak sustatzen ditu.



Gure plataforma aurreratuei esker, banaketaren zati handi bat automatizatzea lortu dugu, hala nola Elorrion (Bizkaia) eta Zaragozan, bai eta fruta eta barazki eskariak prestatzeko prozesua automatizatzea ere, Mallorcan.

Logistika eraginkorra

EROSKI Taldeak 1.600 establezimendu baino gehiago ditu, eta haiei guztiei estaldura eta zerbitzua emateko, 23 plataformaz osatutako sare logistikoa dugu; nolahi ere, gure kamioiek 40 plataforma logistiko erabiltzen dituzte guztira, beste enpresa batzuen plataformak ere kontuan hartzen baditugu. Guztira, biltegiek 360.000 m2-ik gorako azalera dute eta, haietatik, milioi bat kaxa inguru banatzen dugu egunero. Balio katerik eraginkorrena eraiki nahi dugu gure bezeroen gogobetetze gorena lortzeko, eta, horretarako, berrikuntzak egiten jarraitzen dugu hornikuntza katearen maila guztietan eta kudeaketa logistikoa. Hala, gure plataforma aurreratuei esker, banaketaren zati handi bat automatizatzea lortu dugu, hala nola Elorrion (Bizkaia) eta Zaragozan, bai eta fruta eta barazki eskariak prestatzeko prozesua automatizatzea ere, Mallorcan.

Hornikuntza kateko prozesuak optimizatzen jarraitzeko helburarekin, eta "zurekin" merkataritza ereduaren proposamenaren ildo beretik, gure produktuen freskotasuna hobetearren lan egin dugu 2018an: kontsumitzaileek EROSKI kalitate handieneko produktu freskoak eskaintzen dituen hornikuntza kateetako bat dela aintzat har dezaten lortu nahi dugu. Bestalde, tokiko hornitzaileekin lanean ari gara gure dendetan inguruotako ekoizleen produktu freskoak saltzeko. Horretarako, gaur egungo garraio ibilbideak birdiseinatu eta zerbitzu eredu berri horretara bideratutako fluxuak definitu ditugu.

Bi jarduketa lerro hauek ere azpimarratzekoak izan dira logistikaren eraginkortasunaren hobekuntzan: stock-a eta botatako produktu kantitatea murriztea ahalbidetzen duen hornikuntza sistema berri baten ezarpena eta errotazio baxuko produktuen automatizazioa Sigueiroko plataforman.



Gure plataformen maparen berregituraketa

Gure negozioaren zati handiena dagoen zonetako plataformen mapa berregituratzen jarraitzen dugu. Instalazio moderno eta eraginkor berriak sortuko dira eta, horri esker, etorkizunean bezeroengandik jaso ditzakegun eskariei erantzun ahaliko diegu (dendak zabaltzea, gamak garatzea, unitateko zerbitzuak, e-commerce, tokiko produktu gehiago, etab.). Zehazki, uste dugu epe laburrean eta ertainean bi eskualdetan esku hartu beharko dugula. Batetik, produktu freskoen plataforma mapa berregituratuko dugu iparraldean eta, bestetik, beharrezkotzat jotzen dugu Kataluniako plataforma mapa birdiseina-

tzea. CAPRABOren sare logistikoa eraldatzeko oinarrietako bat El Prat de Llobregat (Bartzelona) produktu freskoak banatzeko plataforma berri bat eraikitzea izango da. Plataforma berriak 24.000 m2 inguruko azalera izango du eta, egindako balioespenen arabera, 20 milioi euroko inbertsioa egin beharko da hura eraikitzeko. Egitasmoa, CAPRABOren lehiakortasunerako plan integralaren baitan kokatzen dena, 2018an abiatu da eta 2020an ehuneko ehuneko egongo da.

Hornitzaileekin elkarlanean aritzeko proiektua

Enpresa hornitzaileekin elkarlanean aritzeko proiektua-ren filosofia eta oinarria bere horretan utzi dira, uste osoa dugulako, 2014an abian jarri zenetik, haren indargu-neak eta onurak frogatuta daudela. Bere garaian zehaztu genituen itemekin lan egiten jarraitu dugu, ahaleginak enpresa hornitzaileen eta EROSKlren arteko erlazioan



Topaketak enpresa hornitzaileekin

Elkarlanaren ardatzeko beste palanka bat baillitzan, gure enpresa hornitzaileekiko foroei eutsi diegu; haietan, adierazle gako nagusien bilakaera, baterako proiektuen egoera eta proiektu berriak partekatzen ditugu. Horregatik, 2018ko maiatzean topaketa bat antolatu genuen gure

onura handiena eman diezaguketen alderdietan eginez. Hori dela eta, 2017-2020 Plan Estrategikoan zehar, proiektuak hiru eremu hauetan ari gara biltzen: eraginkortasuna, elkarlan eskaera eta elkarlana. Jarraian agertzen dira 2018an lankidetza planean egindako aurrerapausoetako batzuk:

Aurrerapenak egin ditugu EDI proiektuan, gure plataformen eraginkortasuna areagotzeko eta fakturazioko gorabeherak murrizteko. EDI merkataritza harreman batean parte hartzen duten enpresa fabrikatzaileen eta banatzaileen sistema informatikoen artean dokumentu normalizatuak trukatzeko aukera ematen duen sistema bat da .

Parrilla zabaldu dugu hozteko prozesuetan: Madrilen eta Zaragozan.

Eskaera eraginkorrak egiteko tresna automatizatu dugu

Lanean jarraitzen dugu **jatorriko bilketak** hornitzaile gehiagotara hedatzeko, dela berezko markaren hornitzaileekin, dela fabrikatzailearen markekin, eta negozio guztietan.

Balio bizitzaren irizpideak berrikusi ditugu, kontsumitzaileek eskatzen digutena bermatzen den kasuetan.

Crossdocking (stock gabe) fluxuaren prestaketan **hobekuntzak** egin ditugu Ciempozueloseko plataforman.

Plataformako harrera prozesua berrikusi dugu, deskargak modu eraginkorrangoan egiteko eta hornitzaileen itxarote denborak murrizteko.

hornitzaileekin, eta 2017-2020 Plan Estrategikoa eta datozen lau urteetarako martxan dauzkagun proiektu logistiko nagusiak aurkeztu genizkien.

Tokiko produktu gehiago eskaintzeko konpromisoa 204-1

EROSKlren 6. konpromisoak arreta berezia jartzen du gure adenden ingurune sozial eta ekonomikoaren garapenean eta gune bakoitzeko kulturaren sustapenean.

Lehen sektoreko ETEen bidez askotariko eta garapen jasangarrira bideratutako produkzio sektore bat izatea da tokiko nekazaritzako elikagaien munduarekin dugun harremanaren elementu garrantzitsuenetako bat: berezkoa dugu aniztasunarekiko konpromisoa, lankidetza inguruneak sortzea eta hornitzaile askorekin jardutea. Estrategia horrek hainbat onura ditu. Alde batetik, ekoizle txikiek EROSKlren merkaturatze kanala dute eskura, beren salgaiak banatzeko; eta hori oso onuragarria da enpleguari, landa garapenari eta paisaia naturalen kontserbazioari dagokienez.


Beste aldetik, kontsumitzaileek produktu freskoagoak, jasangarriagoak, osasungarriagoak eta kalitate handiagokoak aurkitzen dituzte EROSKIn. Izan ere, elikagaien jatorria gero eta garrantzitsuagoa da bezeroentzat, tokiko produktuek hainbat gauza jartzen baitituzte agerian: eskualdeko berezitasunak, antzinako egite moduak, bertako barietate babestuak, beste inon egiten ez diren errezetak, etab. Eta, horrexegatik, EROSKIn, protagonismoa ematen diegu gure merkataritza proposamenean, eta aktiboki laguntzen dugu tokiko proposamena balioesten, janariaren estandarizazioa eta hutsaltzea saihestuz.

Merkataritza enpresa hornitzaileen eta ekoizleen kopurua, autonomia erkidegoka 2018n

Merkataritza hornitzaileak · **Tokiko ekoizle txikiak**
% eskualdeko hornitzaileen ehunekoa, merkataritza hornitzaileen guztizkoarekiko

4.272 merkataritza enpresa hornitzaileak

2.493 tokiko enpresa hornitzaileak



Ikus adierazleen eranskineko 22. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Lankidetza tokiko nekazaritzako elikagaien ekoizleekin

EROSKIn merkataritza politikak garrantzi handia ematen die tokiko ekonomiei, ingurunean aberastak sortuz, eta nekazaritzako elikagaien, ekonomiaren eta gizartearen garapena bideratuz.

EROSKIk 4.200 enpresa hornitzaile inguru ditu Espainian, eta, haietatik, erdiak baino gehiago tokiko ekoizpen enpresa txikiak dira. EROSKIn eta hornitzaileen arteko lankidetza horren oinarriak tokiko nekazaritzako elikagaien ETEekin ezarritako hiru jarduera konpromiso nagusiak dira.

1. Ekoizpen enpresa txikien produktuak kontsumitzaileen esku jartzea.
2. Mikroenpresak, ETEak eta kooperatibak aintzat hartzen dituen merkataritza kudeaketa izatea.
3. Tokiko ekoizleak profesionalizatzeko eta haien enpresak hazteko planetan parte hartzea.

Enpresa hornitzaileekin eta ekoizleekin dugun harremanak badu beste ezaugarri bat: epe luzeko lankidetza akordioak ezartzen ditugu. Hain zuzen, 2018ko ekitaldian, 1.540 akordio egin ditugu ETEekin eta kooperatibekin gure merkataritza eskaintzan tokiko eta eskualdeko produktu berriak sartzeko. Tokiko eta eskualdeko erreferentzia guztietatik, 808 freskoen atalari dagozkio eta 732 elikagaien atalari. Alta berri horiek 11 milioi eurotik gorako salmentak sortu dituzte. Gainera, erakunde sektorialekin ditugun hitzarmenak berriak sortzen jarraitzen dugu, tokiko elikagaiak, jatorri deitura babestuak (JDB) eta adierazpen geografiko babestuak (AGB) sustatzeko:

Jatorri hautatuko produktuak, elementu bereizgarri gisa

EROSKIn, bezeroei tokiko eta kalitate handieneko produktuak eskaini nahian, aspaldi sartu genituen adierazpen geografiko babestuak (AGB) eta jatorri deitura babestuak (JDB) gure merkataritza eskaintzan. Ziurtagiri horien bidez, bereziki edo eskusiboki jatorri geografikoaren ondorioz (dela faktore naturalengatik, dela giza faktoreengatik) kalitate edo ezaugarri bereziak dituzten elikagaiak bereizten dira. Gainera, JDBen kasuan, produktua deiturak mugatutako eskualde geografikoan eraldatzen eta elaboratzen dela bermatzen da.

Gaur egun, JDBko edo AGBko 2.000 produktu baino gehiago ditugu: 1.500 ardo, 130 gazta, 100 landare kontserba, olio, lekale eta arroz, 300 haragiki eta 100 fruta eta barazki baino gehiago. Gure berezko markan horrelako produktuen alde egiten dugun apustua agerian geratu zen 2018an, erreferentzia berri hauek sartu genituenean: gazten 8 erreferentzia eta ardoen 75 erreferentzia JDBarekin eta landare kontserben 15 erreferentzia, fruta erreferentzia 1 eta dultze erreferentzia 1 AGBarekin.

EROSKI Selekția markako sagardoa, Euskal Sagardoa jatorri deiturarekin

EROSKIn tokiko produktuen aldeko konpromisoari eta apustuari eusten diegu, eta Euskal Sagardoa jatorri deiturako gure lehen sagardoa merkaturatu dugu, EROSKI Selekția gourmet markaren pean. Horrenbestez, Euskal Sagardoa zigiluarekin ziurtatuko kalitatea duen sagardo bati bere marka jarri dion lehenengo banaketa katea gara.

Tokiko produktuen sustapena

Tokiko produktuak sustatzeko, EROSKIk haiekin lotutako kultura, gastronomia eta sukaldaritza balioak ere zabaldu eta sustatzen ditu. Azken urteetan, hurbileko produktuen eskaintza handitu dugu etengabe, eta, aldi berean, tokiko elikagai horien kontsumoa sustatzeko konpromisoa hartu dugu, gure kultura gastronomikoari, **gure ekonomiarri eta gure paisaiei** eusteko bide bat dela uste dugulako

2018an, tokiko 40 kanpaina egin ditugu gure geografia osoko elikagaiak ezagutzera emateko eta sustatzeko, betiere gure dendak dauden eskualdeak lehenetsiz. Merkataritza dinamizazio hori sasoiko produktu freskoekin areagotzen da, kontsumitzaileek bereziki estimatzen dituzte eta.

Lekaleen produkzioa eta kontsumoa suspertzeko berrikuntza proiektua

EROSKI, HAZI, GARLAN eta Leartikerekin lankidetza hitzarmen bat sinatu dute 2018an, berrikuntza proiektu bat martxan jartzeko. Proiektu horren helburua da Euskal Herrian ekoiztako lekaleak balioan jartzea eta belaunaldi berriek kontsumi ditzaten bultzatzea, elikagai osasungarria eta jasangarria direlako: produktu berritzaileen dibertsifikazioaren bidez lekaleen tokiko produkzioa balioan jarri eta bultzatzeko konpromisoa hartu da.

Tomate arrosa merkaturatzeko eta sustatzeko hitzarmena

EROSKIk eta Barbastroko Tomate Arrosaren Elkarteak hitzarmen bat sinatu dute 2018an, barazki hori sustatzeko. Elkarteak tomate arrosa ekoizten du Barbastro (Huesca), "Barbastroko tomate arrosa" deitura nazionalaren pean, eta kooperatibak lehen aldiz izenpetu du akordio bat harekin.

Boví Balear Natur marka aurkeztu dugu

EROSKIn Balear Uhartetako produktuen kontsumoa sustatzen eta bertako ekoizleekin akordioak izenpetzen jarraitzen dugu. Boví Balear Natur markaren sorrerak aldaketa nabarmena ekarri du txahal haragiaren salmentan, izan ere, Balear Uharteetako gure dendetan saltzen den txahal haragiaren ia %100 bertakoa da. Gainera, haragi horren jatorria kontrolatzeko trazabilitate sistemak daukagu.

Lankidetzaren garrantzia agerian gelditzen da, esate baterako, nekazaritzako elikagaiak ekoizten dituzten tokiko enprekin aldi behin egiten ditugun topaketetan, lehen sektorearen aniztasuna sustatzeko estrategia partekatua eguneratzen baitugu haietan.

Aurten ere atun ontzidiarekin elkartu gara jasangarritasunaren gaia lantzeko

Itsas eta elikagai ikerketan aditua den AZTI zentro teknologikoaren egoitzan (Derio, Bizkaia), Espainiako atun ontzidiko ordezkariak eta ANABAC eta OPAGAC elkarte sektorialetako ordezkariak bildu zituen topaketan parte hartu genuen, arrantza aparailu jasangarrienekin arrantzatutako atun bolumena areagotzeko akordioaren bilakaera aztertzeko eta urrats berriak finkatzeko.

Topaketak euskal eta nafar hornitzaileekin

Topaketa bana egin dugu Euskadiko eta Nafarroako hornitzaileekin (300 ekoizle txikitik gora Euskadin eta 150etik gora Nafarroan). Kooperatibak lurralde horietako 2.000 eta 1.500 produktu inguru merkaturatzen ditu hurrenez hurren, eta, horrela, jasangarritasunaren eta ekoizle txikiaren aldeko apustuari eusten dio.



BCC-EROSKI Sariaren VII. edizioa

BCC EROSKI Sariak, Basque Culinary Centerrek eta EROSKik elkarrekin antolatzen dutenak, tokiko produktu tradizional bat erabiliz berrikuntza gastronomikoa balioesten duten sukaldaritza elaborazioak saritzea du helburu. Zehazki, Espainiako lurraldeetako aberastasun kulturala eta gastronomikoa osatzen duten barietateak eta espezieak sustatzen eta erabiltzen dituzten sukaldariak saritzen dira.

Edizio honetan, bereziki azpimarratu dira osasuna, jasangarritasuna eta sukaldaritzako berrikuntza, enpresa ekoizleekin eta espezie, barietate eta zapoaren biodibertsitatearen babesarekin konpromiso soziala erakutsiz.

Bartzelonako Teòric jatetxeko Oriol Casals izan da irabazlea. Las Palmaseko Summum jatetxeko Xabier Blanco izan da bigarrena, eta Logroñoko Ikaro jatetxeko Carolina Sánchezek eta Iñaki Muruak lortu dute hirugarren saria.

“Mardelaxe” saria VEGALSA-EROSKirentzat

VEGALSA-EROSKik Laxeeko Arrantzaleen Kofradiaren “Mardelaxe” Saria irabazi du, arraina Laxe, Burela, Celeiro, A Coruña, Malpica, Marín eta Vigoko lonjetan erosita baxurako artisau arrantzako produktuak balioan jartzeko ematen duen babesaren aintzatespen gisa.

Firas CAPRABO de Productes de Proximitat

Urtean zehar CAPRABOn hainbat azoka sustatu ditugu, ekoizle txikien produktuak bezeroen esku jartzeko. Hainbat lekutako produktuak sustatu ditugu, hala nola Vallés, Camp de Tarragona, l’Anoia eta Maresme eremuetakoak.

Eskualdekako programa Chef CAPRABOn

Chef CAPRABOn Calçot de Valls-eko V. Jardunaldi Gastronomikoen aurkezpena egin da. Gainera, Ruta del Xató izeneko jardunaldiak egin dira berriro, jatorria Kataluniako zenbait eskualdetan (Alt Penedès, Baix Penedès eta Garraf) duen jakiaren tradizioa eta harekin egindako elaborazioak sustatzeko eta haien berri emateko.

“A comida é vida” kanpaina VEGALSA-EROSKIn

VEGALSA-EROSKIn kalitatea bermatzeko Galicia Calidade zigilua duten tokiko produktuak sustatzeko kanpaina bat egin dugu. Gainera, spot berri bat egin dugu Galiziako kultura eta bizitzeko era azpimarratzeko lurreko produkturik onenekin, eta galiziar jatorriko hurbileko produktuak sustatzeko eta dastatzeko hainbat jarduera egin ditugu.

Zaragozako tokiko produktuaren VII. azoka

2018an, Aragoiko enpresa hornitzaileekin elkarlanean, Zaragozako Tokiko Produktuaren VII. Azoka antolatu dugu, tokiko produktuen ezaugarriak ezagutzera emateko eta balioesteko, eta produktu horien kontsumoa sustatzeko. Tokiko produktu asko ikusteko eta dastatzeko aukera emateaz gain, “Aragoiko produktu berritzaileenaren EROSKI ZUREKIN saria” eman zitzaion produktu begetariano ekologikoak hornitzen dituen Biosurya SL enpresari. Era berean, EROSKik sari berezia eman zion hegazti haragiaren eratorriei aurrez prestatutako jakiak egiten dituen Casa Matachín-Aves Nobles y Derivados enpresari, EROSKIrekin aspaldidanik duen erlazioa balioan jartzeko.

“Productes de Sa Nostra Terra” kanpaina Balear Uharteetan

Urtero bezala, “Productes de Sa Nostra Terra” kanpaina abiarazi dugu, Balear Uharteetan ekoiztutako, fabrikatutako eta ontziratutako artikuluak nabarmentzeko. Iaz, tokiko produktu horien fakturazioa 85,7 milioi eurotik gorakoa izan zen Balear Uharteetan (aurreko urtean baino %9,5 gehiago). Gainera, 2018an Balear Uharteetako produktuei zuzendutako beste kanpaina batzuk ere egin dira, hala nola Balear Uharteetako arkumea, enpanada, Aste Santuko robials-ak, Mallorcako AGBko sobrasada eta llonguets delakoak sustatzeko kanpainak.



Ahora puedes
reciclar tus
cápsulas
de café en el
contenedor que
encontrarás
en esta tienda

6

Ingurumena

Ingurune naturala babesteko
konpromisoa



Konpromisoa ingurumenaren jasangarritasunarekin

307

Gure 5. konpromisoak kontsumo arduratsuaren alde egitea dakar. Ildo horretan diseinatu eta gauzatu behar dugu gure jarduera, ingurumenarekin errespetu handiagoz jokatu badugu eta bide horretan ekintzak sustatu baditugu. Ingurunearekin dugun portaera eredu hori gure erakundearen Jarrera Kodearen printzipioetako bat da; izan ere, 2002an Munduko Itunari atxikitzean berretsi genuen.

EROSKIn, ingurumenaren babesaren esparru guztietan indarrean dagoen legedia betetzen dela bermatzeko egiten dugu lan. Baina, horrez gain, etengabe ahalegintzen gara gure jarduerak ingurumenean dituen eragin negatibo nagusiak identifikatzeko, nolakoak diren jakiten eta haiek txikitzen, eta gure eragin positiboak optimizatzen. Horretarako, banatzaile gisa dugun jardueran, ingurunean eragina izan dezaketen fase guztiak aztertzen ditugu. Hau da, gure hornitzaileen produktuen ekoizpenetik hasi eta sortutako hondakinak bezeroen etxeetan eta geure instalazioetan kudeatu arte. Ingurumenean ditugun efektuak ikuspegi orokor batetik aztertzearekin, inpaktuak fase batetik beste batera transferitu gabe jardun nahi dugu, eta ingurunea babesteko konpromisoa gure interes taldeen artean zabaldu.



Ingurumen politika

102-11

Konpromiso hori zeharka txertatzen da erakunde osoan, ingurumenarekiko errespetua eta gizarte ongizatea gure helburu estrategikoekin lotzen dituen ingurumen politika batean. Politika horrek helburu hauek ditu batik bat: klima aldaketan dugun eragina txikitzea, natur baliabi-

deak babestea eta jasangarritasunez erabiltzea, hondakinak ekonomia zirkularraren ereduen bidez kudeatzea eta bioaniztasuna zaintzea. Hauek dira gure politikaren oinarritzko printzipioak:

Jarrera proaktiboa izatea, ingurumen arloan indarrean dauden legeak betetzen direla bermatzeko eta, horrez gain, gero eta konpromiso zorrotzagoak hartzeko.	Kutsadurari aurrea hartzea, gure ingurumen kudeaketa sistematizatuz, gure jarduerarekin lotutako ingurumen eragina kontrolatu, neurtu eta saihestu edo txikitzeko.	Ingurumen kudeaketarako sistema erakundearentzat garantzitsuenak diren alderdien etengabeko hobekuntzan oinarritzea. Horretarako, helburu kuantifikagarriak ezarri eta haiek lortzeko beharrezko baliabideak egokitzen ditugu.
Ingurumenaren aldagaia eskaintzen ditugun produktu eta zerbitzuen ikerketan eta garapenean aintzat hartzea, gure ingurumen ekintzen errentagarritasuna bilatuz eta beste negozio aukera berriak identifikatuz.	Denok elkarrekin aritzeko eta parte hartzeko jarrerak sustatzea, garapen jasangarria lortze aldera. Horretarako, pertsonen prestakuntza eta informazioa ezinbestekoak dira erakundeko maila guztietan.	Komunikazio kanal arinak eratzea agintariekin, tokiko komunitatearekin, sektoreko erakundeekin, hornitzaileekin eta kontsumitzaileekin, etengabe eta gardentasunez jakin dezaten zer inpaktu dituen gure jarduerak, eta zer baliabide eta teknologia erabiltzen ditugun inpaktu horiek txikitzeko.

Elkarlana ingurumen arloko erakundeekin eta elkarteekin

Ingurumen politika hori gauzatzeko, arlo horretan adituak diren erakundeekin laguntza dugu. Gainera, lankidetzak hitzarmenak egin ditugu EROSKIk bezala beren jarduerak modu jasangarrian egin nahi duten beste enpresa batzuekin.

Esaterako, 2007an, WWF (World Wildlife Fund for Nature) erakundea gurekin hasi zen elkarlanean, ingurumen kontserbazioari buruzko nazioarteko aditu gisa. Gure ekintzen artean, hauek dira azpimarratzekoak: arrantzako produktuei buruzko gure jasangarritasun politika eguneratzea eta Elikadura Eskolaren bidez kontsumo arduratsuagoa sustatzea.

Gainera, European Retail Forum plataformak boluntarioan hartzen dugu parte; haren helburua da Europako banaketaren sektoreko enpresek eta elkarteek jasangarritasunari buruz dituzten jardunbiderik onenen berri ematea elkarri. Plataformak horretan, gure esperientzien berri eman eta beste enpresa batzuenetatik ikasten dugu, eta horrek

beste hobekuntza ekintza batzuk zehazten laguntzen digu, bai gure sektorearen ingurumen azterna txikitzeko eta bai kontsumitzaileei arlo horri buruzko informazio hobe emateko.


Ildo horretan, Jasangarritasunaren aldeko Euskal Enpresen Elkarteak (Izaite) ere bagaude. Irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta garapen jasangarriari buruzko prestakuntza eta hedapena sustatzen ditu. Gainera, jasangarritasunarekiko eta gizarte erantzukizunarekiko konpromisoa duten administrazio, ikastetxe eta enpresen arteko itunak bideratzen ditu.

Hain zuzen, horrelako ituna egin genuen Basque Eco-design Center erakundeko kide garen aldetik. Erakunde horretan, elkarlanean aritzen gara enpresa pribatuak eta Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Iñobe, ekodiseinu proiektu berritzaileak kontzeptualizatu eta gauzatzeko, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta nazioarteko ezagutzagune nagusien laguntzarekin.

Adierazle nagusiak


Materialak 301-1

Marka propioiko produktu eta ontzietan erabilitako materialak, Sortzailearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektiboei aitortuak



Ikusi aurreko urteak konparatzeko balio duten adierazleen eranskineko 23. taula.


Publizitatean eta EROSKIren egoitzan kontsumitutako papera 301-1



EROSKI Consumer eta EROSKI Club: paperak FSC® ziurtagiria du (*Forest Stewardship Council*) eta baso kudeaketa arduratsua bermatzen du.

Egoitzako papera: gramaje txikiagoko FSC eta EU Ecolabel zigiluak dituen paper ekoeraginkorra erabiltzen dugu.

Ontzi logistiko berrerabiliak 301-3




Bilgarri logistikoaren haustura %0,3-30 artekoa da, bilgarri mota zein den. Haustura guztiak hartuta, ontzi logistiko-en %2 baino ez dira

Ikusi aurreko urteak konparatzeko balio duten adierazleen eranskineko 25. taula.

Kutxa-lerroetan merkaturatutak poltsak, motaren arabera



Energia 302-1; 302-2; 302-3; 302-4



Ikusi aurreko urteak konparatzeko balio duten 26. eta 27. taula eta negozio edo logistika-mota bakoitzeko kWh kopurua.


Ikusi aurreko urteak konparatzeko balio duten adierazleen eranskineko 28. taula.

Hondakinak 306-2

306-2

EROSKIn, alderantzizko logistika prozesuak garatzen ditugu, dendetatik gure plataformetara, alegia. Gure jarduerak sortzen dituen hondakinak zuzen kudeatzen ditugula bermatu nahi dugu, baita kudeatzaile baimendunak hondakinak garraiatzeko fasean ingurumenari egiten dion inpaktua txikitu ere. Hala ere, zenbait kasu-

tan, kudeatzailak gure establezimenduetan zuzenean jasotzen ditu hondakinak. Memoria honetan aurkeztutako datuak gure negozioek elikagaien sektorean sortutako eta logistika alderantzizkatuaren bitartez edo kanpo kudeatzaila batek bildutako hondakinei dagozkie.




Ikusi aurreko urteak konparatzeko balio duten adierazleen eranskineko 30. taula.

Ur kontsumoa 303-1

303-1

Gure denda, plataforma eta egoitzetan kontsumitzen den ura edateko uraren horniketarako udal sareetatik iristen da; haiek kudeatzen dute zuzenean banatutako ura hartu eta edateko on bihurtzearena.



Ikusi aurreko urteak konparatzeko balio duten adierazleen eranskineko 31. taula.

Isuriak 306-1; 306-3

306-1; 306-3


Sortzen dugun hondakin-ura gure jarduera dagoen udalerrietako ur araztegieta tratatzen dute. Estimazioen arabera, 2018an sortutako hondakin-uren bolumena 941.861 m³-koa izan zen. EROSKI isuri kontrolabeen prebentzio eta kontrolari buruz indarrean dauden legeak betetzen ditu. 2018an, ez da isuri adierazgarririk hauteman.



Ihesak konpentsatzeko kontsumitutako hozgarriak

301-1; 305-1

EROSKIL 2018an ihesak konpentsatzeko kontsumituta-
ko hozgarri guztiek ez dute ozonoa agortzeko poten-
tzialik (Montrealgo Protokoloko A, B, C eta E eranskine-
tan ez dauden substantziak dira).



Ikusi aurreko urteak konparatzeko balio duten adierazleen eranskineko 32. taula.

Ingurumen ziurtagiriak dituzten produktuak

Gure eskaintza komertziala diseinatzean, lehorreko eta itsasoko bioaniztasuna babesteko helburua hartzen dugu aintzat.

- 1.100 produktu **ekologiko**
- 361 arrandegi eta arrantzako 6 plataforma logistiko, **MSC** ziurtagiria dutenak.
- Gure kontserbako atunaren % 100ek **ISSF** erakundearen printzipioak betetzen ditu.
- 398 **EROSKI NATUR** produktu, askotariko ziurtagiriekin: GlobalgapG.A.P., ekoizpen integratua eta animalien ongizatea.
- 53 produktu, **FSC®** edo **PEFC** ziurtagiriekin.


Gure guneak bioaniztasunerako balio handiko eremuetan

304-1

Espanian ditugun 1.100dik gora establezimenduetatik, 86 saltoki daude babes figura hauen eragina duten guneetan:

- NB (Naturgune Babestuak)
- IBAS (Espainiako Hegaztien eta Bioaniztasunaren Kontserbaziorako Eremu Garrantzitsuak)
- Natura 2000 Sarea (LIC, ZEC eta ZEPA)
- Biosferaren erreserbak
- IEZH (Espainiako Hezeguneen Inbentarioa)


Nabarmendu behar da probintzia edo autonomia erkidego batzuetan lurraldearen zati handi bat bioaniztasunerako oso baliagarritzat hartzen dela; hori gertatzen da, esaterako, Galizian eta Balear Uharteetan. EROSKik beti betetzen du ingurumenaren eta bioaniztasunaren legeria, zentroen kokapena aukeratu eta haiek eraikitzeko orduan. Gainera, lanean ari gara, ingurumen inpaktua txikitzeko eta bioaniztasunari eusteko, zenbait ekintzaren bitartez; esate baterako, arrantza jasangarria.



Berotegi efektuko gasen igorpenak EROSKIren karbono azterna

305-1; 305-2; 305-3; 305-4; 305-5; 305-6


Txosten honetan azaldutako gasen igorpen motak eta iturriak:



*3. irismeneko zeharkako igorpenak EROSKIren jardueren ondorio dira, baina haren jabetzakoak ez diren edo kontrolatzen ez dituen eremuetan gertatzen dira. Guztira, 15 kategoria daude (erositako gai eta zerbitzuak, sortutako hondakinak, saldutako produktuen erabilera, etab.), baina,

txosten honetan, haietako batzuk soilik sartu ditugu, ez baitugu denei buruzko daturik. Hurrengo ekitaldietan, jarduera gehiago aztertuko ditugu EROSKIren karbono azternaren 3. irismenean.

Berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriak - EROSKIren karbono-aztarna




BEGen isurien intentsitatea EROSKIren:
488,7 kg CO₂ baliok./m² merkataritza-azalera
135,0 g CO₂ baliok./€ salmenta garbiak

Ikusi aurreko urteak konparatzeko balio duten adierazleen eranskineko 33. taula.

1. irismena

Zuzeneko igorpenak


171.796 kg CO₂ baliokide



2. irismena

Kontsumo elektrikoaren zeharkako igorpenak


152.722 kg CO₂ baliokide



3. irismena

Zeharkako beste igorpen batzuk

309.923 kg CO₂ baliokide



Ikusi aurreko urteak konparatzeko balio duten adierazleen eranskineko 33. taula.

Berotegi efektuko gasen intentsitatea	2018	2017
g CO ₂ baliok./€ salmenta garbiak	135,0	176,4
kWh/m ² baliok./m ² merkataritza azalera	488,7	623,0
1. irismena		
g CO ₂ baliok./€ salmenta garbiak	36,6	39,9
kWh/m ² baliok./m ² merkataritza azalera	132,3	141,1
2. irismena (merkaturatzaileen mixa)		
g CO ₂ baliok./€ salmenta garbiak	32,5	45,0
kWh/m ² baliok./m ² merkataritza azalera	117,6	160,8
3. irismena		
g CO ₂ baliok./€ salmenta garbiak	66,0	90,9
kWh/m ² baliok./m ² merkataritza azalera	238,7	321,1

Berotegi efektuko gasen murrizketa	2018 vs. 2017	Oharrak
Zuzeneko igorpenak (1. irismena)	−%10	
Kontsumo elektrikoaren zeharkako igorpenak (2. irismena)	−%30	Merkaturatzaileen mixaren kontsumoa eta igorpen faktorea jaitsi da
Zeharkako beste igorpen batzuk (3. irismena)	−%29	Uraren kontsumoa murriztu delako jaitsi da

Ikusi aurreko urteak konparatzeko balio duten adierazleen eranskineko 34. taula.



Ingurumen hobekuntzarako ekintzak

308-1

Gure Ingurumen Politikarekin eta gure jarduerari dagozkion ingurumen alderdi garrantzitsuenekin lotuta, EROSKIn lan ildoek etengabeko hobekuntza dute oinarri, eta gure helburu estrategikoekin bat egiten dute. Horietako asko jasota datoz 5. konpromisoan (kontsumo arduratsuagoa sustatzea), 6.ean (tokiko produktu gehiago eskaintzea) eta 10.ean (bizimodu

Produktuak

EROSKIn, ezinbestekoa iruditzen zaigu gure konpromisoa partekatzen duten enpresa hornitzaile arduratsuekin lankidetzan aritzea garapen jasangarriaren alde, gure eskaintzan ingurumenaren faktorea sartzeko. Gure 5. konpromisoan, osasunaren eta jasangarritasunaren aldeko konpromiso berrien harira, saiatzeko gara ingurumen in-paktua txikitzen prozesu guztietan (ekoizpenaren sorbu-ruan, dendako eragiketetan, eraldaketan eta manipulazio guztietan). Horrek esan nahi du: bultzatu egiten dugula tratamendu fitosanitarioak desagertzea, jasangarritasun ziurtagiriak lorzen ditugula gure arrandegietan, kontrolatu egiten dugula antibiotikoen erabilera eta gure hornitzaileei eskatu egiten diegula animalien ongizatea bermatuko duten jardunbideak erabil ditzatela, eta eskaintza ekologikoen alde egiten dugula.

Gure bezeroek produktuez gozatzean ingurumen portae-ra hobea izan dezaten, oinarrizko hiru lan ildotan jarduten dugu: produktuen jatorri jasangarriaren bermea, tokiko produktuak eta hurbiltasun kontsumoa sustatzea, eta gure marketako ontzien eta produktuen ekodiseinua.

Jatorri jasangarriaren ziurtagiria

Duela zenbait urte hasi ginen kontsumitzaileei alternati-ba osasungarriagoak eta jasangarriagoak eskaintze-ko lanean.

Ibilbide horrek baditu hainbat mugarri. Hona hemen zenbait adibide: 1989an, ozono geruzarako kaltegarriak diren CFC aerosolak erabiltzeari utzi genion, eta, 2004az geroztik gure markako produktuek ez dute transgenikorik. Ildo berean, duela zenbait urtetik, gure produktuen jatorri jasangarria bermatzen duten zenbait ziurtagiri, etiketa eta marka ditugu. Horien arteak, honako hauek aipatuko ditugu:

osasungarriagoa eta jasangarriagoa erraztea). Hobekunt-za ekintza horiek gure produkzio ibilbidearen zenbait eta-pari dagozkie. Hortaz, gure erakundetik kanpoko eragileei ere konpromisoa eskatzen diegu, gure ingurumen azterna txikitzen lagundu badezakete, bederen.



EROSKI Natur: zapore arduratsua

2018an, aldatu egin dugu EROSKI Natur marka propioa-ren promesa, eta orain zapore arduratsua zin egiten dugu. Produktuak eta hornitzaileak hautatzean kalitate berezia eskatzen dugu, ez bakarrik ziurtatzeko zaporetsuak direla baizik eta baita baldintzak gehigarriak eskatzeko ere, ingurumenarekin errespetuzkoak diren jardunbideekin ekoitziak direla bermatzeko.

Animalien ongizaterako ziurtagiriak lortu ditugu gure EROSKI Natur markarako baserriko oilaskoan, Duroc arrazako txerrian eta Aragoiko arkumean. Oilaskoa, gainera, antibiotikorik gabe hazia da, eta horrek lagunduko du kontsumitzaileek medikamentuei erresistentziarik ez garatzen. Ingurumenari dagokionez, ziurtagirien bidez bermatzen dugu elikagaiak ingurumena gehiago errespetatzen duten prozesuen bidez ekoitziak izan direla. Esaterako, gure arrain fresko guztiak du MSC® (Marine Stewardship Council) ziurtagiria; haztegi-tako arrainak, berriz, akuikulturako GlobalG.A.P. ziurtagiria du; frutek eta berdurek ere nekazaritza-ko ekoizpenaren GlobalG.A.P. zigilua dute, edo ekoizpen integratuko zigilu bat. Gainera, uza bildu ondoko trata-menduak kendu ditugu gure zitrikoetan eta hezurra duten frutetan; hala, lehengaien kontsumoa gutxitu dugu, eta, horrekin batera, hondakinak. Horretaz gain, gure produk-tu freskoen sorta zabaldu dugu, eta sartu ditugu markan ordura arte ez zeuden balioko produktuak, hala nola okin-degia eta arrautzak. Arrautzei dagokienez, lasai mugitzeko lekua duten etxaldeetan hazten diren oiloenak dira, aire zabalean ibiltzeko aukera ere badutenenak



Belle Natural: COSMOS Natural kosmetikako ziurtagiria

2018an COSMOS NATURAL ziurtagiria duen kosmetika-ko lehen produktu saila atera dugu marka propioan. Hamasei produktu dira, eta baliagarriak dira higienearen eta edergintzaren egunerokoan oinarrizko beharrianak egiteko; gure belle NATURAL markakoak dira.

Sail osoak du kosmetiko naturalaren ziurtagiria, COSMOSen estandarrek betetzen baititu, eta ECOCERT nazioarteko erakunde ospetsuak homologatuta dago. Araudi horrek, besteren artean, honako alderdi hauek erregulatzen ditu: osagaia, ekoizpena, bilkaria, etiketa eta ingurumen kudeaketa. Horren arabera, zenbait parametro erabili beharra dago, eta, esaterako, lehengaiak aurretik ziurtatuak egon behar dute, baita fabrikazio prozesua ere. Sail berri osoak ditu osagaien **%98, behintzat, osagai naturalak** edo jatorri naturalekoak, hala nola karite gurina, landare estraktuak, makadamia intxauraren olio eta loreen eta fruten es-traktuak, esaterako, jazmina eta guayaba. Horretaz gain, eta arau gisa ez badator ere, Belle NATURAL produktuen %5ek jatorri ekologikoa dute .



FSC ziurtatutako papera ere erabiltzen dugu gure markako harategi produktuen etiketan.

Baso jasangarrietako egurrez egindako produktuak

Gure paper gauzak edo lorategiko altzariak egiteko erabiltzen diren zurak mozketak legal eta jasangarrie-tatik datozela bermatzen du. 2018ko ekitaldian, FSC zigilua zuten 45 produktu saldu genituen (paper gauzak, lorate-giko altzariak, eta garbiketa eta higiene gaiak). Halaber, ziurtagiri hori duen papera erabili genuen gure markako haragien etiketan.

Produktu ekologikoak

Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren bidez ekoitzi-tako elikagaiak eskaintzen ahalegintzen gara, ekoizpen eredu horrek ingurumen jardunbide onenak bermatzen dituelako. Eredu horretan, jatorri sintetiko-ko substantzia kimikoen eta gehigarri artifizialen erabilera baztertzeaz gain, bioaniztasuna eta natur baliabideen ba-besa eta animalien ongizatearekiko errespetua sustatzen dira. 2018an, ziurtagiri etiketa askotariko **1.140 produktu ekologiko** genituen; etiketa horien artean, Europako lo-go-a aipatzeko modukoa

Animalien ongizateaz kezkatzen gara

- **Lurrean dabilzan oiloen arrau-tzak** saltzen ditugu gure dendetan, eta saltzen ditugun guztien %35 in-guru dira dagoeneko. EROSKIn kon-promisoa hartua dugu 2024rako denda sare osoan saltzen diren arrautza guzti-guztiak ezaugarri ho-rretakoak izateko.
- **Animalia ongizatearen ziurtagiri berri bat dugu Duroc arrazako gure txerri** haragian, denda sare osoan, EROSKI Natur markarekin. Txerriak ekoizten dituzten **etxalde guztiek Animalien Ongizateari dagokion ziurtagiria daukate, AENOREk emana**, Animal Welfare erakundeak ezartzen dituen estan-dar zorrotzak gainditu behar izaten dituzte horretarako, besteak beste elikaduraren, bizilekuaren, osasu-naren eta jokabide naturalaren arloan.
- EROSKI Natur oilaskoa, halaber, beste ziurtagiri bat eskuratzeko bidean da, hazkuntza sistemaren ezaugarriei eta animalien ongiza-teari buruzkoa. Hazkuntza geldoa duen oilaskoa da —gutxienez 56 egun—, esparru batean era esten-tsilboan hazia, non metro koadroko hegazti gutxiago ipintzen baita espazio handiagoa izan dezan. Eta berritasuna da bihi osoko zereala ematen zaiola bazkatzeko. Elikadu-ra erabat begetala du, eta erdia gutxienez artoarekin osatua dago. Gainera, **EROSKI Natur saileko oilaskoen haztegiak Certicarrek ziurtatu ditu, nola eta "Haragitara-ko oilaskoen ongizatea ziurtatze-ko baldintzen plegu partikularra" erabili-ta**. -Neikerrek garatua, AWIN Animal Welfare Indicators meto-doan oinarrituz-, eta premium kategorian eman die.
- **Global G.A.P. ziurtagiria dugu akuikulturako** EROSKI Natur arrai-netan; hala, ongizatea bermatzen duen baldintza zehatz batzuetan hazia, garraiatua eta hila da.

Arrantza jasangarria EROSKIn

Itsaso eta ozeanoetako bioaniztasunaren alde lanean jarraitu nahi dugu, itsas baliabideak arrazionaltasunez baliatuta. Hori dela eta, 2016an, EROSKIn Arrantza Jasangarriako Politika adostu genuen. Gai horretan hartutako konpromisoei erantzunez, 2018an lanean jarraitu dugu Arrantza Jasangarriaren alde, erreferentziazko nazioarteko erakundeen eskutik. Arrantza Jasangarriako Politika horren hamaika printzipioetan, dagoeneko hartuak ditugun jardunbide onak zein etorkizunerako ezarri ditugun erronkak biltzen dira.

Printzipioak eta konpromisoak EROSKIn Arrantza Jasangarriaren aldeko Politikan

Arrantza aparailu eta arrain jasangarriak gure eskaintza komertzialean 	Arrantza baliabideen jasangarritasuna aintzat hartzea eskaintza komertziala prestatzeko orduan.	Soilik baimendutako arrantzaleku eta per-tzetako produktuak merkaturatzea.
Tamaina txikia dutenak errespetatzea eta gutxieneko tamainaren langa gorago ezartzearen alde egitea.	Hornitzaileen artean arrantza aparailu jasangarrien erabilera sustatzea.	MSC zigilua duten produktu jasangarriak sustatzea, erauzketa arrantzarako.
Jasangarritasuna balio katean 	Dendetatik hurbilen dauden kofradiak eta tokiko hornitzaileak bultzatzea. Arrantza banatzeko jardueraren ingurumen eragina txikitzea.	Langileen oinarrizko eskubideak (LANEren 188. Hitzarmena, arrantza lanari buruzkoa) bete eta errespetatzen dituzten hornitzaileak aukeratzea
Gardentasuna eta gobernantza 	Etiketa eta komunikazio gardena kontsumitzaileekin. Arrantza sektoreari eta gainerako interes taldeei entzutea, eta haiekin elkarlanean jardutea.	Kontsumitzaileei arrantza jasangarriari buruzko informazioa eta prestakuntza ematea. Gobernu sistema bat eramatea kontrol neurri efizienteekin eta ikuskaritzekin; horrela, sendotu egingo da EROSKIn duen arrantza jasangarriaren aldeko politika

2018an hau lortu dugu arrantza jasangarriaren arloan



2017an, Espainiako txikizkako lehen banaketa katea bihurtu ginen MSC erakundearen auditoretza gainditu zuena, arrantzaleku jasangarrietako arrain freskoa merkaturatzeko. MSC arrantza ziurtagiriak arrantzalekua bezala ikuskatzen du arraina manipulatzeko prozesuan parte hartzen duten enpresak ere, eta, hortaz, bermatu egiten du ego-kiak izango direla trazabilitatea eta zaintza kate guztiko jarduerak. 2018an, MSC arrain freskoaren zaintza katearen ziurtagiria berriro dugu, eta gure arrain eta itsaski izoz-tuen sortan ere ipini dugu zigilua. Legatz izoztua ere ateratzen dugu zigiluarekin, eta, horrekin, dagoeneko, 11 arrain eta itsaski izoztu izango ditugu zigilu urdinarekin sare osoan. 2020rako, espero dugu urteko bi milioi kilo saltzea MSC ekoetiketarekin merkaturatutako arrainetiki.

2018an, Espainiako lehen banaketa katea izan gara, akuikulturako GlobalG.A.P.ziurtagiriak zaintza katearen gainean egiten duen ikuskaritza gainditu duguna; horrek bermatzen du gure arrandegian saltzen ditugun espezieak –era horretan hazitakoak– bide seguruak eta jasangarriak erabiliz ekoitziak izan direla. Dagoeneko, gure dendetako 361 arrandegitan saltzen ditugu urraturua, arrano-berrugeta, lupia eta erreboiloa GGN ziurtagiriarekin.

Gure atun kontserba guztia jatorri jasangarrikoa dela bermatu ez ezik, dauden hiru arrantza modurik arduratsuene-kin harrapatuak izateko baldintza gehitu diogu konpromi-soari: Atun Arrantza Arduratsua, FAD objekturik gabe, MSC eta Fishery Improvement Project. Xede horrekin, hitzarmen bat egin dugu gure hornitzaileekin, era horretara harrapa-tutakoa izan behar duela atun guztiaren %40. Hala, beste pauso bat eman dugu arrantzalekuen kontserbazioan eta gure bezeroek kontsumo jasangarriagoa egiteko mo-dua izan dezaten. EROSKIn soilik lan egiten dugu arran-tza jasangarriaren politika sinatu duten hornitzaileekin; hornitzaile horiek ez dute onartzen EBk txartel horia ezarria dien herrialdeetatik datorren atuna; izan ere, txartel horia duten herrialdeek ez dituzte betetzen Eskualde Erakun-deek onartutako neurriak eta ez dute neurririk harturik legez kanpoko arrantza amaitzeko. Horren ondorioz, 2018an, 2.000 tona arrain erosi dugu ja-sangarriaren MSC eta GlobalG.A.P. ziurtagiriarekin .

+2.000 tona arrain erosi ditugu 2018an jasangarriaren MSC eta GlobalG.A.P. ziurtagiriarekin

“Fruta eta barazki itsusiak”, elikagaien zarrastelkeriaren kontra

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) emandako datuen arabera, munduan ekoizten diren elikagaien herena zaborretara joaten da urtero-urtero. EROSKIn, nekazaritza sektorearen jasangarritasunarekin hartu dugun konpromisoaren alde eta elikagaien zarrastelkeriaren kontra, duten itxuragatik edo tamainagatik “itsusi” izendatutako fruten eta ortuarien barietateak merkaturatzea erabaki dugu.

2018an, gure sareko 560 saltokitik egin genuen kanpaina, baita 79 Caprabo eta frankiziatan ere. Aurten, Balearrak ere sartuko dira, han eraldatu diren hamalau dendek ere parte hartuko baitute. 2018an, guztira, fruta eta ortuarien 1.055 tona saldu ziren.

Ontzien eta produktuen ekodiseinua

EROSKIn, marka propioa sortu genuenetik, gure produktuen ontziak hobetzeko egiten dugu lan. 2008an, ingurumen irizpideak ere erabiltzen hasi ginen ontziak diseinatzean; adibidez, jatorri jasangarriko materialak aukeratzen ditugu, ontzien birziklagarritasuna handitzeko, eta haiak ekoizteko eta biltzeko behar diren lehengaien kantidadea txikitu dugu. Ekintza horiei esker, ontzi eta bilgarrien

ingurumen inpaktua txikitu egin da, eta, zenbait kasutan, produkzio eta logistika faseak optimizatu direnez, dirua aurreztea ere lortu dugu

2018an, gure plastikoen estrategia prestatzen aritu gara, eta honako konpromiso hauek hartu ditugu plastikoen kutsadura borrokatzeko:

Erabilera bakarreko plastikoen tona kopurua gutxienez %20 jaiste 2025erako. 	Erabilera bakarreko plastikoen gutxitzea, ontziak ez diren erabilera bakarreko objektuetan ere plastikoa kenduta, hala nola platerak eta koilara-sardexkak.	Poltsa berrerabilgarriak sustatzea.
Fruta eta berdura gero eta gehiago saltzea soltean.	Marka propioko ontzi guztiak berrikustea, denak ere birziklatzeko modukoak izan daitezen, eta sobrako ontziak kendu edo ontzia bera ahalik eta gehiena arintzeko, 2025erako.	Gardenagoak izatea: gure sistemak egokitu eta datozen urteetan publiko egitea marka propioan saltzen ditugun ontzi guztien datuak, eta urtez urte ezagutaraztea gure neurriek nola gutxituko duten plastiko aztarna.

Ingurumena gehiago errespetatzen duten poltsa sorta berria

2018 amaieran, pixkanaka, erabilera bakarreko gure gaur egungo poltsak ordezkatzeko hasi gara, eta, horien ordezkari, landare jatorriko konpostagarriak jartzen. Gure on line zerbitzuan ere erabiltzen hasiak gara horrelako poltsak. Gainera, poltsa berrerabilgarria, AENOREk ziurtatua, beste poltsa batekin ordezkatu dugu, zeina gutxienez %55 plastiko birziklatuz egina dagoen; horrela, ekonomia zirkularra indartzen dugu. Era berean, jatorri jasangarria FSCren bidez ziurtatua duen paperezko poltsa sorta berria atera dugu, gure bezeroen eskariei jaramon eginez. Horiek denak ere lehendik ditugun berrerabilgarrien osagarriak izango dira, hau da, erraziazko edo plastiko birziklatuz eginikoak eta elkartasun poltsa, zeina ingurumen eta gizarte helburuetarako erabiltzen baita. 2018an, gure poltsa berrerabilgarriei esker, erabilera bakarreko plastikozko 1.341 milioi poltsa aurreztu ditugula kalkulatu dugu.

Illo horretan, CAPRABOn, bat egin dugu ekimen aurrendari batekin: lehen proba pilotua izan da erabilera bakarreko plastikozko poltsak, ordainlekuetakoak eta komertzioaren atalekoak kendu eta poltsa konpostagarriekin ordezkatzeko. **#projecteCERES** eEllen MacArthur Fundazioaren ekimen bat da, Circular Economy 100 programaren barruan. Proiektu horren bitartez, saltokiek poltsa konpostaga-

riak erabiliko dituztela aporbetzatuta, organikoaren bilketa sustatu nahi dute. Hori bultzatzeko, elkarrekin ariko dira plastiko konpostagarrien fabrikatzaileak, banaketaren sektorea eta administrazio publikoak, zeinak zabor organikoa biltzeaz eta birziklatzeaz arduratzen baitira. Ekimen horrekin, fruta pisatzeko 10.000 poltsa berrerabilgarri banatu zitzaizkien familiei, eta, horri esker, erabilera bakarreko 250.000 poltsa aurreztu dira.

Gure poltsa berrerabilgarrieei esker, 1.341 milioi erabilera bakarreko plastikozko poltsak saihestu dira.

#PorElClima komunitatea sendotzen



2017z geroztik, #PorElClima komunitateko kide gara; #PorElClima leloaren aldeko eragile topagune bat da: enpresak, administrazio publikoak, GKEak, komunikabideak eta partikularrak, zertarako eta klima aldaketaren aurkako Parisko Akordioa betetzeko eta gure herrialdeari dagokiona bermatzeko. Gainera, komunitate horren parte izanik, berotegi efektuko gasen igorpenak murrizteko konpromisoa hartu dugu.

2018ko hasieran, **porelclima.com erakusleihoa** inauguratu genuen, eta plataforma horrek herrialdeko produktu eta zerbitzu arduratsuen eskaintza nagusia izan nahi du. Porelclima.com webgunean, enpresa handien edo ertainen ondasun eta zerbitzu arduratsuak aurki daitezke, eta gure herrialdean esponentzialki hazten ari diren produktu berdeak ere bai.

Logistika


Lean&Green: Logistika jasangarri baterantz

Lean&Green proiektuaren saria irabazi genuen, AECOC Ekoizleen eta Banatzaileen Elkartek emanik. Ziurtagiri horrekin, EROSKI Taldea liderra izango da Lean&Green plataforman, kontsumoaren sektoreko beste hamabost enpresarekin. Lean&Green proiektuaren helburua da konpainia liderren sare bat eratzea jasangarritasun logistikaren alorrean, aurrezpen gaitasuna handitzeko eta CO₂ emisioak %20 behintzat gutxitzeko bost urtean. Sari horrekin ziurtatzen dute ekintza plan bat aurkeztu dugula ehuneko hori jaisteko 2015etik 2020ra. Horniketa kateak eragiten dituen igorpenak murrizteko plataforma berezia da Lean&Green, Europan dagoen handiena.

Lau urte honetan, %14 gutxitu dugu garraioan igortzen dugun CO₂ kopurua, hau da, 11.000 tonatik gora gutxiago, honako ekintza hauen bidez:

- Elikagaigintzakoak ez diren plataformak berrantolatzea, dendak CARREFOURi eta DIAri salduta.
- Erdialdeko/hegoaldeko plataformak berrantolatzea, dendak CARREFOURi eta DIAri salduta. Mercamadrیدهko plataforma ixtea.
- Larrabeztu plataforma kentzea, ibilbideak optimizatzeke.
- Iparraldeko plataformak berrantolatzea.
- Ibilgailuak berritzea. Euro III arteko ibilgailuak kentzea.
- Erdiatoiak jartzea.
- 25x25 metroko kamioiak jartzea lehengoez gain.
- Gas natural konprimatuarekin edo likidotuarekin dabil-tzan ibilgailuak jartzea.
- Zamaianak gauzez egiteko prozedurak.
- Freskoen plataformetan zalamalanen prozedurak alda-tzea.
- Zamaianen irizpideak aldatzea ex work egiten diren jar-dueretarako.
- Kamioiak gehiago betetzea.
- Ibilbideak optimizatzea eta eskariak isolatzea.
- EROSKlren errepide gidarien sarean gidaritze ekologiko-ko tekniken prestakuntza ematea.
- Energia berdea erostea.

Gure garraio ereduaren ardatzetan efizientzia eta jasangarritasuna jartzea



1 Horniketa efizienteagoa egitea:

- Eskaria hobeto planifikatzea.
- Sorburuko erosketaren garraio eredia etengabe opti-mizatzea.
- Gure plataformen mapa kontzentratzea eta sinplifi-katzea.
- *Transport manager system* ezartzea; horri esker, ibilbi-deen eta salgaiz betetzearen planifikazioa eta segimen-dua optimizatu egin ahalko litzateke.
- Hornitzaileekin elkarkanean aritzea ibilgailuen erabilera optimizatzeke.

2 Gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak eta gidaritzea:

- Flota berritzea kutsaduraren aurka egiteko Europako Ba-tasunak atera duen Euro 6 araudi berria betetzen duten ibilgailuekin.
- Berotegi efektuko gasak %40 ere gutxitu dezaketen gehi-garriak erabiltzea erregaian.
- Ibilgailu elektrikoak erabilera sustatzea.
- Hobeto betetzeko modua ematen duten ibilgailuak era-biltzea, hala nola city trailerrak.
- Petrolio gas likidotuarekin ibiltzen diren ibilgailuak erabil-tzea.
- Gidaritze efizientagoa egiteko modua ematen duten gailu elektronikoak ipintzea ibilgailuetan.
- Gidaritze ekologikorako tekniken ikastaroa.

3 Plataforma jasangarriagoak:

- Plataformen energia efizientzia hobetzea LED argiekin, mugimendua sumatzeko detektagailuekin, tenperatura robotekin eta argi naturalarekin.
- Eguzki plakak instalatzea ingurumenean inpaktu txiki-agoa izango duen argindarrarekin hornitzeko.
- Bilgarritarako erabilitako material kopurua gutxitzea.

4 Alderantzizko logistika:

- Helburua: dendetan sortutako hondakinak kudeatzea eta balorizatzea. Neurri hori gure Zero Hondakin helbu-ruetako bat da; izan ere, modua ematen du azpiproduk-tu organiko eta ez-organiko guztiak bildu eta tratatzeko eta behar bezala birziklatzeko.

5 Hiri logistika optimizatzea:

- Gaueko zamaianak, erabilera askotariko bideez baliat-zea, eta zamaianetarako lekuen gordetze dinamikoa, hiri ingurunean inpaktu txikiagoa izan dezan.
- En relación con la contaminación por ruido, el modelo de distribución nocturna contempla el suministro del producto centralizado a las tiendas por la noche. Los niveles de emisión sonora durante el período noctur-no son más restrictivos que durante el horario diurno. Para garantizar estos niveles durante las operaciones de carga y descarga, el modelo de distribución con-templa una serie de medidas adoptadas en distintas áreas. Por un lado, en relación con el local, se prevé su adecuación: sistemas de cierre, alarmas sectorizadas, aislamiento acústico, etc. Igualmente, se tiene en cuen-ta el equipamiento necesario como carretillas, traspala-letas silenciosas o salvabordillos. Por otro lado, se forma e informa al personal implicado en los protocolos de trabajo silencioso que se han diseñado, diferenciando los protocolos para cada puesto de trabajo: personal diurno de tienda, personal auxiliar nocturno y repartido-res. Por último, con el objeto de corregir desviaciones, se incorporan procesos de auditoría internos para detec-tarlas y comprobar el cumplimiento de los protocolos de trabajo establecidos en los puntos de venta operativos. Muchas de estas medidas se definen en colaboración con los ayuntamientos para garantizar su idoneidad.



Denda ekoeraginkorrak

EROSKIren sare komertziala “zure-kin” eredura berritzeak eta zabal-tzeak orobat dakartza ingurumen irizpideen araberako hobekuntzak dela eraikuntzan eta dela kudea-ketan.

Ekoberrikuntza EROSKI denden ezaugarri nagusietako bat izan da hasieratik. Horren froga gisa, hona adibide bat: duela 20 urte baino gehiago, Espainian ISO 14001 ziurtagiria lortu genuen, eta, hala, ingurumen kudeaketa-ko lehen sistema ezarri genuen, Arteako gure hipermerka-tuan, Leioan (Bizkaia). Gure asmoa da energia berriz-tagarriz hornitzen diren eta CO₂-aren balantze neutroa

lortzen duten supermerkatuak izatea. Horretarako, I+G+B proiektuak egiten ditugu gure dendetan. Ildo horretan, adibide esanguratsua da Oñatiko (Gipuzkoa) Zero Igo-rpen Denda, zeinak 2018an berritu baitu bere ISO 50001 energia ziurtagiria. Denda horietan ikasitako jardunbide onak gure sare komertzialeko gainerako saltokietan ezar-tzen ari gara.

Gure eredu berriak efizientzia hobetzen du, hotz, klima-tizazio eta argiztapen sistema eta ekipamendu berrien bitartez. Energia arloko eraginkortasuna ez ezik, zero zabor ereduko kudeaketa ere egiten dugu saltoki sare horretan, eta, ondorioz, “EROSKI zurekin” ereduko dendak punta -puntakoak dira jasangarritasun eta ingurumen politikan. Energia eredu berri hori supermerkatuen eta hipermerka-tuen irekiera eta berritze lan guztietara hedatzen ari gara.

Saltokiak jasangarritasunez eraikitzea eta hornitzea

Energia gutxiago kontsumitzen duten eta ingurumen era-gin txikiagoa duten diseinu eta ekipamenduen alde egiten dugu. Hona hemen, ezarritako neurrien adibide batzuk:

LED argiztapena

Argi guztiak azken belaunaldiko LED motakoak dira, eta automata batetik pizten dira, eta horrekin erabilera opti-mizatuen dugu, eta gaueko argi kutsadura gutxitzen. Argi mota hori birziklatu egin daiteke, eta ez du merkuriorik, be-runik, tungstenorik edo beste material kutsatzailerik. Zorua, berriz, flotagarria jarri dugu, eta isolamendu termikoa eta akustikoa ere badute orain saltokiek.

Hotz instalazioak

Hozkailuen instalazioetan aplikatutako ingurumen neu-riak hauek dira, batik bat: CO₂-ko hozteko zentral negati-bo bat instalatzea eta positiboan R134koa. Horrela, energia aurrezki nabarmena lortzen da, eta, gainera, klima aldake-tari eragiten ez dioten gasekin jarduten dute. Instalazio horrek kondentsazio flotagarriko sistema bat ere badu, kontsumo elektrikoa murrizteko.

Hotzerako altzariak direla eta, azken belaunaldiko altzariak ditugu, beiraz hornitutako ateekin, dendako korridoreak ez hozteko, eta produktuen kontserbazioa hobea bermatzeko, tenperatura zorrotz mantenduz; gainera, hartara, bezeroen erosotasunari mesede egiten dio.

Berotegi efektuko eragin txikiko

hozgarriak erabiltzea

Erabiltzen ditugun gas hozgarriek ozono geruza agortzeko ahalmen nulua, atmosfera berotzeko potentzial txikia eta energia eraginkortasun handia dute. Gainera, 2018an, DNI detektore sistema inteligentea instalatu dugu 27 zentrotan; horrela, ihesik baldin bada, detektatu egingo dugu, eta horrelako gasen igorpena ahalik eta gehiena gutxituko dugu.

Klimatizazioa

Klimatizazioa optimoa izan dadin, energia ere duak roof top sistema du (horrek isolamendu akustiko espezifiko-a ematen du etxebizitzetarako) eta beroa berreskuratze-ko sistema bat ere badu, salmenta aretorako, hozteko zentralaren pantaila akustikoez gain. Klima kudeaketa sisteman integratuta dago, eta horrek airearen tempera-tura, hezetasuna eta kalitatea kontrolatzen ditu, urruneko zaintza sistema baten bidez, kontsumo elektrikoa handi-tzen duten gertakariak izaten direnean. Instalazioak sare analizadoreak ditu, kontsumoa kontrolatzeko, bertako analisi software batean integratuta. Softwarea EROSKiko Energia lantaldeak egin du, eta funtzionamendu alarmak sortzen ditu, kontsumo elektrikoa aurreikusitakotik alden-tzen denean.

Ekonomia zirkularra

Hondakinen kudeaketa eta balorizazioa pre-bentzioan eta ekonomia zirkularreko eredu baten erabileran oinarritzen ditugu.

Gure ingurumen eragina txikitzeko funtsezko ardatzetako bat denez, ahalegin handiak egiten ditugu sortzen ditu-gun hondakinak prebenitu, kudeatu eta balorizatzeko.

Hondakinak gutxitzea

Gure jardueran sortzen diren hondakinak gutxitzeko lan egiten dugu. Besteak beste, ekodiseinua erabiltzen dugu marka propioko produktuetan, iraungitze data hurbil duten produktu freskoen promozioa egiten dugu, eta kontsumorako egokiak izan arren salmentatik kendu diren elikagaiak ematen ditugu gizarte bazterketako arriskuan diren pertsonentzat, “Zero Hondakin” programaren bidez. 2018an, janaria alferrik ez galtzeko euskal plataformara atxiki gara, ahaleginak batuta balio kateko gainerako era-gileekin, ahalik eta janari gutxiena botatzeko.

Norabide horretan, berrerabiltzeko poltsen erabilera susta-tzen dugu bezeroen artean, egunero erabili eta botatzen diren plastikozko poltsen kopurua txikitzeko. 2019an, pix-kanaka, sare berrerabilgarriak erabiliko ditugu fruten ata-lean, erabilera bakarreko poltsen kontsumoa gutxitzeko.

Hondakinak kudeatzea eta balorizatzea

EROSKI-n, gure instalazio eta dendetan sortutako honda-kina behar bezala kudeatzeaz eta balorizatzeaz ardu-ratzen gara, lehentasunezko tratamendutzat birzikla-tzea eta berrerabilera sustatuz. Ekonomia zirkularraren ikuspegitik, alderantzizko logistikako prozesuak bultzatzen ditugu, dendetatik plataformetara eta enpresa hornitzai-leetara, sortzen ditugun hondakin organiko eta ez-orga-nikoak behar bezala berrerabiltzeko. Hondakin kantitatea minimizatzeaz gain, beste prozesu produktibo batzuetan lehengai birjinarik ez erabiltzea ere esan nahi du horrek.

Hondakin organikoak

Alderantzizko logistika erabiliz edo baimendun kudeatzai-leen bidez, gure dendetan sortutako hondakin organikoak jasotzen ditugu, balorizatzeko lehengai gisa erabiltzeko, irinak eta animalia olioak zein animaliei jaten emateko pentsua egiteko.

Hondakin ez organikoak

Urtero, marka propioko ekoizleak garenez, gure produk-tuen ontzi, gailu elektriko, pila, olio eta argien aitortpena egien diegu Sortzailearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektibo-er, hala nola ECOEMBES eta ECOVIDRIO erakun-deei. Erakunde horiek bermatzen dute gure produktuak

erabiltzean sortutako hondakinak behar bezala berresku-ratu eta kudeatzen direla. ECOEMBESi aitortzen dizkiogun ontzien birziklapenari esker, urtebetean CO₂ baliokidearen 1.178 tona baino gehiago igortzea ekiditen dugu.

- Gure instalazioetan sortutako kartoi, plastikoa, paper eta zur guztia birziklatzen dugu. Horretarako, gure dendetan baztertutako materialak jasotzen ditugu, eta haiek trata-tzeko baimena duten kudeaketa sistema integratuekin elkarlanean aritzen gara.
- Gure banaketa eragiketetan, ontzi logistikoak berrerabil-tzen ditugu.
- Kontsumitzaileen hondakinak birziklatzeko aukera ema-ten dugu. Horretarako, gure dendetan, gune garbiak jar-tzen ditugu haien esku, pilak, gailu elektrikoak, bonbillak, arropa, etxeko olio eta tonerra jasotzeko besteak beste.

CAPRABOK Hondakinak Prebenitzeko Europako Sarian parte hartu du, hondakinen prebentzioarena elkarlanean lantzearen garrantziaz sentsibilizatzeko bai eta materialak berrerabiltzeaz eta birziklatzeaz ere, horretarako ekintza jakinak eta informazio kanpainak martxan jarritako.

Kafe kapsulak birziklatzea

Aurrera jarraitzen dugu kontsumitzaileari ohitura jasan-garriagoak errazteko konpromisoan; hori dela eta, kafe kapsulak birziklatzeko proiektu bat jarri dugu martxan. Ekimen pilotu bat da, eta hasiera honetan, Euskal Auto-nomia Erkidegoko eta Balearretako dendetan abiara-ziko dugu. Hortaz, Espainian lehen banatzaile handia izango gara kafe kapsulak biltzeko gune propioak izango dituenak.

Edukiontzi espezifikoak instalatu ditugu gure saltokie-tan, bezeroek kafe kapsula erabiliak non utzia izan dezaten: alderantzizko logistika prozesu horretan, PLS POOLING kudeatzaile baimendunaren instalazioetara igorriko dira dendetan bildutako kapsulak, eta hark ja-soko ditu tratatuak eta birziklatuak izan daitezkeen. Kafea eta kapsula biodegradagarriak ongari bihurtu eta substratu gisa erabiliko dituzte perretxikoekin, onddoe-kin eta abarrekin; plastikoa eta aluminioa birziklatu eta urtu egingo dituzte, eta plastikozko eta aluminiozko on-tzi berriak sortzeko erabiliko dira. 2018an, lau tona kafe kapsula baino gehiago bildu ditugu hamabost denda pilotuetan.

Kontsumitzaileak

EROSKIn, ondo dakigu pertsona bakoitzak ingurumena babesten lagundu dezakeela, kontsumo eredu jasangarri eta arduratsu bat aukeratuz gero. Kontsumitzaileen prestakuntzara eta kontzientziaziora bideratzen dugu gure ahalegina, sentsibilizazio kanpainak eginez eta eduki pedagogikoak argitaratuz gure web plataformetan eta beste euskarri informatibo batzuetan. Gainera, helburu horrekin bat, bezerorekin, langileekin eta instituzioekin elkarlanean jarduteko ekimenak sustatzen eta garatzen ditugu.

Sentsibilizatzea

“Planetaren Ordua”

Urtero, EROSKIk bat egiten du “Planetaren Ordua” ekimenarekin. Aurtengo leloa “konektatu eta itzali argia” izan du. WWF elkarteak antolatuta, eta Nazio Batuek babesten dute mundu osoan egiten den ordubeteko itzalaldi elektriko hori, eta ingurumenaren aldeko ekimen globalik handiena da.

“Camiño a Camiño” ingurumen programa

VEGALSA-EROSKIk, beste behin ere, “Camiño a Camiño” ingurumen programan hartu du parte. Vigoko Udalak antoaltzen du, eta gure ingurunea zaintzeko eta hobetzeko jarduerak sustatzen ditu. Azken edizioan, gure funtsen donazioa Vigon izandako suteen ondorioak arintzera bideratu dugu.

“Unha árbore, unha historia”

VEGALSA-EROSKIn jarraitzen dugu ingurumenaren jasangarritasunak duen balioa sustatzen Galiziako eskoletan, gure “Unha árbore, unha historia” proiektuaren bitartez. Ekimen horrekin, asmoa da ingurune naturalaren alde hartua dugu konpromisoa haurrei helaraztea ipuin laburren lehiaketa literarioa eginda eta urtero gure saltokien inguruan egiten ditugun baso berritzeetan parte harrazita. 2018an, 30 haritzondo eta gaztainondo birlandatu genituen EROSKlren Noiak hipermerkatu inguruan.

Hondakinak Prebenitzeko 2018ko

Europako Astea CAPRABOn

CAPRABOn bat egin dugu Hondakinak Prebenitzeko 2018ko Europako Astearekin, nola eta kontzientziazte eta sentsibilizatzeko jarduerak gauzatuz, arroparen eta zapaten berrerabilera eta birziklapena sustatzeko eta zabortegetara joaten den zaborra gutxitzeko.

Informatzea

Ingurumenari buruzko kanala EROSKI CONSUMERen

Ingurumenean espezializatutako kanal bat dugu www.consumer.es webgunean, pertsonen kontsumo ohitura jasangarriari buruzko prestakuntza emateko. Horretarako, naturari, hiri-ingurumenari, parke naturalei, eta energia eta zientziari buruzko edukiak jartzen ditugu, besteak beste. Kanal horrek hilean 250.000 bisitaldi baino gehiago izaten ditu.

EROSKlren Elikadura Eskola

EROSKlren Elikadura Eskolako Elikadura eta Ohitura Osasungarriari buruzko Heziketa Programan, jasangarritasunaren gaineko modulu espezifiko bat dago, eta WWF erakundeak hartan hartzen du parte, edukiak emanez. Heziketa modulu horri esker, jasangarritasunari, elikagaien ekoizpen jasangarriari eta dieta jasangarriari buruzko prestakuntza eman diegu 406.401 ikasleri 2017-2018ko ikasturteetan. Gainera, www.escueladealimentacion.es webguneak elikagaien zarrastelkeria saihesteko zenbait heziketa-eduki ditu.

“Itzuli kolorea naturari”

Ekimen horren bidez, haurrak ingurumena zaintzera bultzatzen ditugu, “Itzuli kolorea naturari” marrazketa lehiaketaren bidez, VEGALSA-EROSKlren dendetan. Parte hartzaileek bete beharreko baldintza bakarra imaginazioa askatzeko prest egotea eta VEGALSA-EROSKlren Ekopatrularentzat garraibide ekologiko bat marraztea da. Sarien artean, bizikleta bat dago, eta 10 bisitaldi Marcelle Natura-leza parke zoologikorako.

“Bat egin kontsumo arduratsuarekin.”

Murritz Berrerabili Birziklatu

2018an, «Bat egin kontsumo arduratsuarekin. Murritz Berrerabili Birziklatu» leloa duen HISPACOOpen kanpainarekin bat egin dugu. Kanpaina horren helburua da kontsumitzaileak kontsumo arduratsuari buruz informatzea, prestatzea eta kontzientziaztea, elikagaien zarrastelkeria urrituz, baliabideak berrerabiliz eta etxean sortutako hondakinak behar bezala birziklatuz. Proiektu zabalago baten barrunean sartzen da kanpaina hori (Hondakinen kudeaketa, gaitzen diren hondakinak eta kontsumo arduratsua), zeina Kontsumoaren, Elikadura arloko Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziak finantzatzen duen (Espainiako Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren mende-ko erakundea da). EROSKlren beste denda batzuetara ere hedatuko da ekimena, aldi berean abiarazita Kantabrian, Errioxan, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan.

“Móllate, por un San Xoán Sustentable”

VEGALSA-EROSKIn Coruña-ko Udalak Ingurumen zinegotzitzaren bidez sustatutako kanpainari atxiki gatzazkio: “Móllate, por un San Xoán Sustentable”. Horren helburua izan da jai horietan hondakin gutxiago sortzea. Ekimenean laguntzeko, paperezko poltsen tirada berezi bat ateratu genuen, San Joan omentzeko diseinu bat eginez, eta doan eman genizkien bezeroei, ordainlekutik pasatzean. Coruña-ko 27 establezimenduk hartu zuten parte ekintza horretan, eta guztira paper biodegradagarriko 61.000 poltsa banatu ziren.



Ekitea

Aktibatu + programa

Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duen “Aktibatu +” programan hartzen dugu parte. Ekimen hori Global Action Plan (GAP) nazioarteko programan dago oinarrituta, eta herritarrek ingurumen jasangarritasunaren alde egitea du helburu; horretarako, kontsumo ohitura egokiak zabalitzen ditu. Bizkaiko eta Euskadiko beste 6 erakunderekin batera jarduten dugu programan, eta 2.302 etxek, 80 zentrok eta 43.204 ikaslek parte hartzea lortu da, 2012z geroztik. Parte hartu duten ikastetxeek jasotako prestakuntza gauzatu ondoren, horren ondorioak neurtu dira, eta egiaztatuta da urteko batez besteko energia kontsumoaren %16 aurreztu dela, parte hartu duten ikastetxeetan.

WWFren elkartasun poltsaren kanpaina

EROSKIk eta WWF erakundeak elkarrekin jardun dute basoak iraunarazteko eta ekosistema hondatuak lehengoratzeko ekimen solidario batean. Horretarako, EROSKIn gure elkartasun poltsa salduta lortu ditugun 22.500 euro eman dizkiogu naturaren kontserbazioaren alde diharduen erakunde horri. Aurtengoarekin, sei urte daramatzagu bere dendetan euro batean saltzen ditugun elkartasun poltsetatik bildutako guztia ematen. 2013an atera zenetik, kooperatibak milioi bat elkartasun poltsa baino gehiago saldu ditu, eta etekinak hainbat erakunderi eman dizkio, hala nola Gurutze Gorriari, Unicefi, Oxfam Intermoni eta Save the Childreni.

Espezieak kontserbatzeko proiektua

Arabako bi naturgunetan

Aurten zaharo berrerabilgarriak beiraren alternatiba gisa saldutakotik bildu denarekin, 5.000 euro eman dizkiogu, gehi beste 5.000 zuzenean Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak eman dituenak, uhalde-enera babesteko proiektu bati Arabako bi naturgunetan. Ekimen honekin, festaz gozatzea nahi dugu, eta, aldi berean, ingurumena jasangarritasunaren eta gure ingurune naturalaren alde hartua dugun konpromisoa bete.

A photograph of a woman with curly brown hair, wearing a light blue quilted vest over a white long-sleeved shirt and grey plaid trousers. She is smiling and holding a red and yellow package. She is standing in a food bank aisle with shelves of canned goods in the background. A man, seen from the back, is wearing a white vest with red sleeves and the text 'BOLONDRESA' and 'VOLUNTARIO' on it. A large red semi-transparent box is overlaid on the bottom half of the image, containing a large white number '7' on the left and text on the right.

7

Gizarte Ekintza

Konpromisoa herritarrekin

Gure ekarpena komunitateari 413-1

EROSKIn, sortu ginenetik, gizarte ekintzan dihardugu, modu batera baino gehiagotara, gizarte bidezkoago eta solidarioago bat posible egiten laguntzeko.

Guretzat, elkartasuna funtsezko printzipio bat da, gure jardueraren oinarria. Hori dela eta, EROSKIn etekin %10 EROSKI Fundazioa joaten da urtero, gizarte arloko jarduerak gauzatzeko. Horrenbestez, ekimen propioz zein hirugarrenekin egindako hitzarmenen bidez bultzatzen dugu gure ingurunearen garapen sozial eta kulturala. Gainera, EROSKIn laguntza ekonomikoak ematen ditugu helburu sozialetarako; 2018an, 8 milioi euro inguru.

EROSKI osatzen dugunok harro gaude 2018an lankidetzan jardun garelako gizarte ekintzan adierazgarriak diren elkarte, GKE eta erakundeekin. Gainera, hamabost kanpaina baino gehiago egin ditugu kontsumitzaileari protagonismoa emanez eta inplikaturik.

2018an, guztira, 8.500.199 euro eman genituen gizarte ekintzako honako eremu hauetan:



ONCE-Galicia Elkartasun Saria VEGALSA-EROSKIrentzat

ONCE-Galicia Elkartasun Saria eman digute 2018ko ekitaldian, enpresen kategorian; horrekin aitortu digute gizartearekin eta ingurunearekin konpromisoa dugula eta elikadura eta ohitura osasungarriak bultzatu ditugula azken urteetan.



Ekimen solidarioak 413-1

Nazioarteko lankidetzak

EROSKI sozialki arduratsua den erakundea denez, munduko desberdintasunekiko eta beharrekiko sentsibilizatu gaude.

Jostailuak biltzeko kanpaina Gurutze Gorriarekin

Abenduko bi egunetan, gerra jostailuak eta sexistak ez diren jostailuak biltzeko kanpainen parte hartu ahal izan zuten gure bezeroek. Zaurgarritasun sozial eta ekonomikoaren arriskuan bizi direlako jostailuak erosi ezin dituzten familietako haurren premiak estaltzeko erabili dira dohaintzak guztiak.

Produktuak emateko programa

Elikagaiak ez diren produktuak (jostailuak, oinetakoak, arropa, ikas-materiala eta produktu optikoak, besteak beste) ematen dizkiegu Latinoamerikako haurrei, giza garapen jasangarritarako eta nazioarteko lankidetzarako lan egiten duen Munduko Haurren Federazioaren bitartez. 2018an, 169.200 eurokoak izan ziren dohaintzak.

Elkartasun Izarra

Laugarren urtez jarraian, EROSKIk Elkartasun Izarraren kanpaina egin du Eguberrietan. EROSKIn eta VEGALSA-EROSKIn denden bezeroei esker, 2018an, 63.000 euro batzea lortu genuen izarrak salduz. Haurrei laguntzeko erabili da, UNICEFen eta EROSKI Fundazioaren bitartez; izan ere, kontsumitzaileek kausa horri eman zioten bozka gehien.

Indonesiako tsunamia dela-eta egindako larrialdi kanpaina

EROSKIn eta haren bezeroen elkartasunari esker, 30.000 euro bildu genituen urrian Indonesiako tsunamian pairatu zutenen alde; UNICEFekin koordinatutako kanpaina batean banatu zen laguntza: edateko ura helarazteko eta saneamendurako erabili zen, izurritarik sor ez zedin; horrez gain, osasun arreta eta nutrizio egokia emateko erabili zen.

Borondatezko lan korporatiboa

EROSKIn kooperazio-eta elkartasun-printzipioei jarraituz, hamar urte baino gehiago dira **MUNDUKIDE**ekin, Hirugarren Munduko herri behartsuen garapena sustatzen duen elkartarekin, elkarlanean hasi ginenetik. Proiektu horiei buruzko informazioa zabalitzen laguntzen dugu, EROSKI CONSUMER aldizkariaren eta www.consumer.es webgunearen bidez. Era berean, Gizarte eraldaketarako borondatezko lan korporatiboko programan parte har dezakegu. MUNDUKIDEk, Mondragon Unibertsitateko Lanki ikerketa-zentroak eta Brasilgo Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimendua (MST) antolatzen dute programa hori. Lau EROSKHangile borondatezkoak izan dira eta banaketari eta merkaturatzeari buruz dakitena erabiltzen dute Paraná Estatutako erdialdeko eskualdearen garapen sozioekonomikoa eta kooperatiboa sustatzeko.

Elikadura arloko elkartasuna

Gure ingurunean oinarritzko premiak estaltzeko dauden arazoez kontsumitzaileak sentsibilizatzeko helburua dela medio, elikadura arloko elkartasun ekintzak antolatu ditugu eta gure bezeroei kausa horretan inplikatzeko modua eman.

Elkartasun kanpainak kontsumitzaileen inplikazioarekin

2018an, 22 urte bete dira Espainiako Elikagaien Bankuen Federazioarekin (FESBAL) elkarlanean hasi ginela. Urtero, bi kanpaina solidario antolatzen ditugu gure dendetan, haietan biltzen ditugun elikagaiak federazio horri emateko: **“Kilo Operazioa”**, ekainean, eta **“Elikagaien Bilketa Handia”**, azaroan. Elikagai horiek erkidego bakoitzean zailtasun ekonomikoak dituzten eta gizarte bazterketako arriskuan dauden pertsonentzat dira. Aurten, aurrez existitzen ziren bi modalitateetan lan egiten jarraitu dugu: produktuen bilketa fisiko tradizionalan eta txartelen bidezko bilketan. Txartelei esker, elikagaien bankuek unean-unean behar dituzten produktuak jaso ditzakete. Aurten berriz egin dugu “El Zampakilos solidario” kanpaina VEGALSA-EROSKIn.

Gainera, CAPRABOk eta Gurutze Gorriak bat egin dute, seigarren urtez jarraian, **“Haurrik ez otordurik gabe!”** kanpainan, haurren elikaduran laguntzeko; ekimen horren bidez, dirua biltzen dugu gizarte bazterketa jasateko arriskuan direnen elikadura beka ordaintzen laguntzeko. 2018an, 12 elikadura beka lortu dira.

Elkartasun txartela

2009tik, EROSKIn, Bizkaiko Caritasen eta Laboral Kutxan elikagai txartelak ematen hasi ginen Bizkaiko Caritasen hartutako pertsonentzat, eta gure saltokietan truka ditzakete. Elkartasun ekimen hori martxan jartzeko azpiegitura ipini ez ezik, EROSKI Fundazioak eta Laboral Kutxak diru ekarpen gehigarri bat egiten dugu Bizkaiko Caritasen proiektu horretan jartzen dituen baliabideez gain. VEGALSA-EROSKIn elikagai txartelak ematen ditugu Galiziako Xuntako emergentzia sozialaren programarako.

Oinarritzko beharrak asetzeko aukera ematea da helburua, baina ez asistentziaren ikuspegitik, baizik eta bazterketa egoeran eta gizarte bazterketako arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko prozesu zabalagoetan kokatutako ikuspegi integratzaileetatik. Hori dela eta, 2018an, elkartasun txartel birkargagarri bat inplementatzen jarraitu dugu. Horren bitartez, orain arteko paperezko txartelak ordezkatu ditugu, eta, horri esker, ekimena hedatu ahal izan dugu Aragoira, Balearretara, Galiziara eta EAera. Sistema horretara elkarrekin gehiago batu dira, hala nola Gurutze Gorria, bai eta Gasteizko eta Zaragozako udalak ere. Horrela, duintasun handiagoa hartzen du familientzako tresna horrek, modernoa eta erabilerrazagoa izateaz gain.

1.523 tona
produktu eman dira
2018an Kilo Operazioa
eta Elikagaien Bilketa
Handiaren esker

“Zero Hondakin” programa

EROSKIn, jarraitzen dugu janaririk ez alferrik galtzeko borrokan, nola eta jarduera protokolo bat artikulatuta ziurtatzeko emandako elikagai guztiak freskoak eta jateko moduan daudela. Hala, gure bezeroekin freskotasun maximoaren konpromisoa eta ontziaren itxura onarena betetzen ditugu. Hotz katea behar bezala mantentzen dela ziurtatzen dugu dohaintza hartzen duten erakundeetan instalazioetan, eta berme berak zaintzen ditugu haien garrasioan, elikagaia kontsumitua den arte.

Produktu horiek hartzaileari esleitzeko eta emateko irizpidea Espainia osoan gurekin lankidetzat hitzarmena sinatu duten ehun gizarte erakunderen baino gehiagoren bidez gauzatzen da.

Programaren beste helburu bat kontsumo arduratsua sustatzea da. Horretarako, elikagaien dohaintzarekin batera, kontsumitzaileak kontzientziatzeko kanpainak egiten ditugu, informazioa zein prestakuntza emateko. EROSKI

CONSUMERen bitartez, EROSKik ezagutzak, baliabideak eta tresna praktikoak ipintzen ditu kontsumitzaileen esku, erosketa arrazionalizatzeko, ahalik eta gehien aprobeztatzeko eta etxean elikagaien zarrastelkeria ahalik eta txikiena izateko.

“Zero Hondakin” programan, EROSKik gizarte erakunde askorekin dihardu, hala nola elikagaien bankuekin eta Caritasekin. 2018an, EROSKI eta haren bezeroek 4.928 tona janari baino gehiago eman dizkiete behar gehien zuten kolektiboari. 9.747 dieta pertsonalen parekoa da dohaintza kopuru hori.

EROSKI Kooperatiba Elkarrekin egin duen lana aitortu izan du Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, eta Urrezko Galburuaren saria eman izan dio; hain zuzen, hori da Federazioaren saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmendu diren erakundeei ematen diena.

Bat egin dugu Elikagaiak Alferrik Galtzearen Aurkako lehenbiziko Astearekin

#GoserikEz helburua

+4.928 tona
elikagairen donazioa
zero hondakin
programaren bidez



9.747 dieta
personalen
donazioa

2018an, Elikagaiak Alferrik Galtzearen Aurkako Astearekin bat egin dugu. Kontsumo Handiko Enpresen Elkarrekin koordinatzen du ekimen hori, eta lehenengoz egingo dute Espainian. Helburua da kontsumitzailea kontzientziatzea, bultzatzea eta motibatzea eta zenbait tresna erakustea zaborretara botatzen den janari kopurua gutxitzeko. Tailerrak egin ditugu gure dendetan, lehiaketak eta on line zozketak, eta jardunbide onak partekatu dira kontsumitzaileak kontzientziatzeko janaria ez dela alferrik galdu behar.

EROSKik bat egin du #GoserikEz kanpainarekin. Nazio Batuen Erakundeak jarri du martxan, Elikaduraren eta Nekazaritzaren eremuetan, Elikagaien Mundu Eguna dela eta, zeina urriaren 16an izango baita.

GIHen 2. zenbakian sartzen da ekimen hori, eta asmoa da gizartearen kontzientziatzea goserik gabeko mundu bat posible dela 2030erako. Horretarako, ezinbestekoa da gutako bakoitza inplikatzeko, ez bakarrik gobernuek eta munduko erakunde handiak.



Bestelako gaitasunak dituzten edo gaixorik diren pertsonekin lankidetzan aritzea

EROSKIn, ondo dakigu egunero zer erronka dituzten bestelako gaitasunak dituzten edo gaixotasun baten ondoriozko behar bereziak dituzten pertsonak. Hori dela eta, lankidetzan estua daukagu pertsona horien ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko lan egiten duten erakundeekin.

Arlo horretako proiektuak eta ekimenak babestea ere funtsezkoa da gure gizarte ekintzan, eta, alde horretatik, hainbat lankidetzan hitzarmen sinatu ditugu desgaita-

sunen eta zenbait gaixotasunen inguruan diharduten gizarte erakundeekin. 2018an, 100.000 euro baino gehiagoko ekarpen ekonomikoak egin genituen babesletza jardueran, eta estatu mailako erreferentziako elkarteekin zein tokiko kolektiboekin laguntzen dieten elkarteekin artean banatu genituen.



Kosta Traila, diabetesa eta giltzurrunetako gaixotasunak dituztenen alde

Aurten, 4.600 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute Kosta Trailen 13. lasterketan; hori dela eta, FORUM SPORTEk, Salomonek eta Laboral Kutxak 14.400 euro eman dizkiote diabetesaren aurkako Bizkaiko elkarteari eta giltzurrunetako gaixotasunen aurkako elkarteari. Diru hori diabetesa dutenen alde erabiliko da, kirola egiteak gaixotasuna eguneroan kudeatzen laguntzen duela era praktikoa ikas dezaten, eta, orobat, giltzurrunetako gaitzak dituztenen alde.

WOP Fundazioa eta EROSKI elkarrekin gaixotasun neurodegeneratiboak sendatzearen alde

EROSKIk eta The Walk On Project fundazioak duten lankidetzaren medioz, konpromisoa hartu genuen bezeroentzat zenbait jarduera antolatzeke; bertan parte hartuta, ikerkuntza minutuak batu ziren gaixotasun neurodegeneratiboekin sendabidea bilatzeko. Horrela lortu zituzten 51.096 minutu. Bezeroen inplikazioari esker, EROSKIk 30.658 euroko txeki bat eman ahal izan zion WOP fundazioari.

VEGALSA-EROSKI gaixotasun arraroak eta kronikoak dituztenen alde

Bat egin dugu gaixotasun arraroen eta kronikoen Galiziako federazioaren "Zuri esker, magikoa izan daiteke" kanpainarekin, Galizian era horretako gaixotasunak dituztenen eta haien senitartekoen kolektiboaren laguntza-beharrei erantzuten laguntzeko. Kanpaina horretan, gure bezeroek gozokizko makila solidario bat erosi ahal izan dute 15 dendatan, euro bakarraren truke. VEGALSA-EROSKIk bildutakoaren %6 gehitu dio guztizkoari, eta, hala, 1.900 euro lortu dira.

Bularreko minbiziaren aurkako borroka

EROSKIk beste urte batez parte hartu du Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkarteak emakumeentzat antolatzen dituen zenbait lasterketatan. Gainera, laugarren urtez jarraian, VEGALSA-EROSKIn "Irabazteko prest" kanpaina egin dugu elkarte horrentzat dirua lortzeko, eta informazio liburuxkak banatu ditugu bularreko minbizia hauteman eta hura garatzeko arriskua murrizteko ohituren inguruan.

Larruazaleko minbiziari buruz sentsibilizatzeko kanpaina

Urtero, Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkartearekin jarduten gara, larruazaleko minbiziari buruz sentsibilizatzeko. Kanpainan zehar, mahaiak jarri ditugu gure supermerkatuetan, eguzkia hartzearen inguruan aholkuak emateko, eta larruazala nola ikuskatu behar den erakutsi eta alarma zantzuak hautemateko. Gainera, informazioa emateko hitzaldiak eman dizkiegu CAPRABOk langileei.

Gure laguntza hartzen duten elkarteetako batzuk:

ACAMBI - Bilboko Bularreko Minbiziaren Elkarte
ADEMBI - Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte
AECC - Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkarte
AEFAT - Familia Ataxia Telangiectasia Espainiako Elkarte
ALCER - Giltzurrunetako Gaixotasunen Aurkako Elkarte
ANADI - Nafarroako Diabetesaren Elkarte
ASPANAFOHA - Arabako Minbizidun Hauren Guraso Elkarte
ASPANOI - Gipuzkoako Haur Minbizidun Guraso Elkarte
ASVIDIA - Bizkaiko Diabetikoen Elkarte
BENE - Gaixotasun neurologikoak dituzten pertsonen eta senideen Bizkaiko elkarte
COCEMFE - Desgaitasun Fisikoa eta Organikoa duten Pertsonen Espainiako Konfederazioa
EM Euskadi - Euskadi - Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitzaren Euskal Fundazioa
EUSKAL GORRAK - Pertsona Gorren Elkarte Euskal Federazioa
FEDE - Espainiako Diabetikoen Federazioa
FEKOOR - Gutxitasun Fisikoa edota Organikoa duten Bizkaiko Pertsonen Federazio Koordinatzailea
FEGEREC - Gaixotasun Arraroak eta Kronikoak dituztenen aldeko Galiziako Federazioa
FEM - Esklerosi Anizkoitzaren Fundazioa
ONCE EUSKADI - Itsuen eta ikusteko desgaitasuna dutenen bizi-kalitatea hobetzeko helburua duen irabazi-asmorik gabeko korporazioa
WOP - Walk On Project



Beste elkartasun kanpaina batzuk

Elikadura arloko elkartasunaz gain, beste kanpaina batzuk ere egiten ditugu: gizarte egoera ahulean dauden kolektiboei laguntzen diegu, eta ingurumenaren aldeko

konpromisoa sustatzen dugu kontsumo ohituren bitartez baliabide naturalak zainduta.

FORUM SPORT kirol materialaren do-haintzak

FORUM SPORTetik 179 oinetako pare eman dizkiogu Bizkaiko Gurutze Gorriari, bere proiektuen barruan zaugarritasunean direnen artean banatzeko. Horrez gain, 2018an, 8.943 kiloren kirol materiala eman diogu Kooperari, 22.219 euroko balioa zuena. Caritasen erabiltzaileei eta Kooperaren dendei eman diegu material hori, bigarren eskuko objektu gisa, edo birziklatzera eta balorizazio energetikoa egitera bideratu dugu, zabor gisa behar bezala kudeatua izateko.

VEGALSA-EROSKIren errezeta liburua Gurutze Gorriaren alde

Plater osasungarriak merke prestatzeko errezeta bilduma baten 15.000 ale salduta (*Hoy como en casa: recetas saludables y económicas elaboradas por los mejores chefs de Galicia*), 30.000 euro bildu ditugu, eta Gurutze Gorriak gizarteratzeko proiektuetarako erabiliko du Galizian. Bi entitateen lankidetzak ekimen horretan 20 galiziar sukaldaririk parte hartu dute, eta Galiziako Autonomia Erkidegoko Autoservicios Familiar, EROSKI hipermerkatuetan eta EROSKI Center supermerkatuetan gauzatu dute.

Larrialdi kanpaina Mallorcako uholdeengatik

Mallorcako Sant Llorenç udalerriko uholde izugarriak direla eta, Espainia mailako elkartasun kanpaina bat egin genuen, eta 140.000 euro batu genituen EROSKIren eta haren bezeroen elkartasunari eskerrak. Dirua Sant Llorençeko agintarien bitartez bideratu da, eta osorik joan da uholdeen ondorioak jasan dituzten familietara.

Kultura, aisia eta tokiko ingurunea sustatzea

Ekimen lokalagoak sustatzearekin, EROSKik gure sare komertzialaren hurbileko jendearen ongizatean lagundu nahi du, eta balioan jarri hurbilagokoak diren kultura eta tradizioak.

Tokian tokiko hizkuntzen sustapena eta hedapena

EROSKIn, tokiko hizkuntzak gure inguruko komunitateen kultura ondarearen funtsezko atalak direla uste dugu, eta, hortaz, haiek sustatzeko eta hedatzeko lan egiten dugu etengabe.

Euskararen kasuan, Elhuyar Fundazioarekin batera egiten ari garen ekimena da aipatzekoa; izan ere, hizkuntza horretako bilatzaile bat garatzen ari gara. Euskal Herriko Unibertsitateak ere parte hartu du I+Gko proiektu horretan, eta gaur egungoak baino askoz bilatzaile aurreratuagoa izango da. Bilatzaile hori gure on line plataforman integratuz, EROSKI CONSUMER aldizkariaren dokumentuetan nabigatzea errazagoa eta hobea izatea lortu dugu. Euskarari dagokionez, nabarmendu behar da gure hizkuntzaren inguruan egiten diren ekitaldi handietan parte hartzen dugula urtero; besteak beste, babesletza jarduerak egiten ditugu urteko ekitaldi garrantzitsuenetan, Durangoko

Azokan, alegia. Halaber, gure Elikadura Eskolaren bidez, euskararen jai nagusietan hartzen dugu parte. Honako hauek dira ekitaldiok: Herri Urrats, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Kilometroak, Nafarroa Oinez eta Euskal Eskola Publikoaren jaiak. Hala, 10.824 lagunek parte hartu zuten EROSKI Fundazioak Elikadura Eskolak bertan antolatutako ekitaldietan.

Galiziako kultura eta hizkuntza ere balioesten ditugu. Horretarako, Galiziako gizartearekin lotura estua duten ekimen guztiekin egiten dugu bat. Esate baterako, aurreko ekitaldietan bezala, Día das Letras Galegas ekimena babestu genuen 2018an ere.

Ekimen horiez guztiez gain, ahalegin handia egiten dugu EROSKI CONSUMER aldizkaria gaztelaniaz, euskaraz, galizieraz eta katalanez eskaintzeko.

Familiei laguntzea

EROSKik familia ugarietarako laguntzeko lankidetzak hitzarmenak ditu hainbat erakunderekin, hala nola HIRUKI-Derekin, Fanoc-ekin eta Familia XLrekin. Gainera, 2012az geroztik, CAPRABOn, familia horien premia berezien jakinaren gainean, abantaila bereziak eskaintzen ditugu "Oro" bezeroaren izaeraren (eta Mi Club CAPRABO "Oro" txartelaren) bidez eta haren onura gehigarri guztien bidez. Orobat, familia horiek euren erosketen %5 eurotan jasotzeko abantaila dute; zenbateko hori txartelaren saldoan sartzen da. Hala, 2018an, **13.292 familia ugari 804.694 euro aurreztu dituzte.**

Horrez gain, badago familiei laguntzeko beste programa bat: "Ongi etorri, haurtxoa". Iaz, programa horretan, **1.358.000 saskitxo eman genituen**, baita haurtxoaren lehen urtean beharrezkoak diren produktuak lortzeko deskontuak eta promozioak ere. Programa hori osatzeko, "Ongi etorri, emagina" on line tresna dago. Haren bidez, gurasoek erantzun guztiak aurkituko dituzte haurdun-

dian, erditzean eta haurtxoaren lehen urteetan sor daitzeko galderak eta zalantzak argitzeko. Ekimen horrek zenbait talderen laguntza izan du, hala nola Emaginen Elkarrean Espainiako Federazioa, Espainiako Emaginen Elkarrean eta J. Mateu Sancho pediatra. Dagoeneko, 120.505 pertsonak bisitatu dute webgunea, eta 358.175 web-orri ikusi dituzte.

VEGALSA-EROSKIn, familiei laguntzeko beste pauso bat eman dugu, 2016an Galiziako Xuntaren "Tarjeta Benvinda" programara atxikita. Horri esker, Galiziako EROSKI Center eta Familia establezimenduen eta EROSKI hipermerkatuen sarean erosketak egitean txartela aurkeztzen duten pertsonen %2,5eko zuzeneko deskontua dute. 2018an, 59.168 euro transferitu zaizkie familiei ekimen horren bitartez.



Aisia eta kultura

Orobat, kultura kontsumitzaileei hurbiltzen saiatzen gara askotariko babesletza jardueren bidez. Esaterako, Elorri, gure egoitza nagusia dagoen herrian, urtero egiten den Musikaire kultura jaialdia babesten dugu.

Beste maila batean, kirolak gaur egungo gizartearen eta bizimodu osasungarria izateko zer-nolako garrantzia duen jakinda, gure ingurune hurbilenean antolatzen diren kirol jarduerak ere babesten ditugu. Gainera, CAPRABOSport programaren bidez, 224.000 euro banatu genituen amateurren 118 klubaren artean, zertarako eta ohitura osasungarriak eta kirol jarduerak sustatzeko.

Euskadin, hainbat kirol jardueratan lagundu dugu, hala nola Santurtziko Herri Krosean eta estropadan. Orobat, FORUM SPORTek, urtero bezala, Kosta Trail mendi lasterketa antolatu zuen Bizkaian. Lasterketa horrek alderdi solidarioa du, eta, besteak beste, ibilaldiak ditu familientzat eta zeharkaldien zaleentzat.



8

Gardentasuna

Argitasunarekiko
eta egiarekiko konpromisoa

Gure interes taldeak


102-40; 102-42; 102-43; 102-44

Gure jarduerak eraginak sortzen ditu hainbat interes taldeetan, eta alderantziz. Pertsona, talde, kolektibo eta elkarte horiek oso garrantzitsuak dira guretzat, elkarrenganako interakzio eta lankidetza baitago, urteekin indartua eta landua.

Hortaz, gure gizarte erantzukizuna garatuko badugu, funtsezkoa da interes taldeak ulertzea, baita gure jarduera eta erabaki guztietan aintzat hartzea ere. Gaur egun, gizarte eta enpresa testuinguruaren konplexutasuna eta dinamismoa direla eta, ezinbestekoa da interes talde guztiekin konpromiso sendo bat ezartzea, haien itxaropenak eta erronkak ezagutze aldera. Hala, aurten gure interes taldeen berrikuspena egin dugu eta honako ezaugarri hauek betetzen dituzten kolektiboekiko harremana eguneratu dugu:

- Gure erakundean eragin zuzena edo zeharkakoa dute
- Gure jardueraren, zerbitzuen edo produktuen eraginak jasaten dituzte
- Gure jardueragatik interesa dute

Hala, barneko interes taldeak eta kanpokoak bereizten ditugu. Barnekoak EROSKI Taldearen zati diren talde edo pertsonak dira, eta kanpokoak, gure bezeroak, zein gobernuak edo gizarte erakundeak.



Komunikazio mekanismo espezifikoak, eta interes talde bakoitzaren kasuan indentifikaturiko funtsezko gaiak eta kezak

102-44

Interes taldea	Komunikazio mekanismo espezifikoak	Funtsezko gaiak eta kezak
Bezeroak eta bazkide bezeroak	Bezeroarentzako arreta zerbitzua (dendan, telefono bidez eta webgunean) EROSKI Club aldizkaria CAPRABOren Sabor aldizkaria Bezeroen poztasunari buruzko azterketak Bezeroei entzuteko programak Sustapen liburuxkak EROSKI Club aplikazioa Newslettarrak	Marketina eta etiketak Merkatuko lehiakortasuna Laneko osasuna eta segurtasuna Ustelkeriaren aurka egitea Materialak Efluentek eta hondakinak Elikagaiak alferrik galtzea Enplegua
Kontsumitzaileak	Eroski Consumer aldizkaria eta www.consumer.es Elikadura Eskola (www.escueladealimentacion.es) Espainiako Herritarren Nutrizio Inkesta (ENPE) Sentsibilizazio kanpainak (osasuna, elkartasuna eta ingurumena) Erakunde publikoak eta kontsumitzaileen interesak zaintzen dituzten erakundeak (Kontsumobide, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kontseilua, AECOSAN, eta abar) Prensa oharrak eta prentsaurrekoak	Marketina eta etiketak Laneko osasuna eta segurtasuna Energia Tokiko komunitateak Bezeroen segurtasuna Produktuaren trazabilitatea Irisgarritasuna Presentzia merkatuan
Langileak	Argitalpenak: Nexo, Néctar, La Parrapla, intranetak (Prisma, ForumNet), aktak, egoitzako jakinarazpenak Ebaluazio elkarriketak Laneko kulturari buruzko inkestak Auditorerak (Kode etikoa) Salaketa kanala	Laneko osasuna eta segurtasuna Bezeroen segurtasuna Enplegua Lana eta familia bateragarri egitea Ustelkeriaren aurka egitea Efluentek eta hondakinak
Bazkide langileak	Sozietatean parte hartzeko organoak Harrera eskuliburua Langileen berezko mekanismoak	Kudeaketa Ekonomikoa Gobernantza eta kudeaketa etikoa Merkataritza sarearen berregituraketa Langileei eta kontsumitzaileei dagozkien gaiak
Bazkide kontsumitzaileak	Sozietatean parte hartzeko organoak Newslettarrak Bazkide, bezero eta kontsumitzaileen mekanismoak	Kontsumitzaileei eta bezero bazkideei dagozkien gaiak
Enpresa hornitzaileak	Hornitzaileentzako arreta zerbitzua Argitalpenak: nexo logística eroski ETEEKIKO hitzarmenak Lankidetza hitzarmenak Sektoreko mahaia Tokiko produktuak sustatzeko kanpainak Auditorerak (kalitatearen kontrola) Foro iraunkorrak eta behin-behinekoak	Ustelkeriaren aurka egitea Araua betetzea Bezeroen segurtasuna Produktuaren trazabilitatea Jarduera ekonomikoa
Finantza erakundeak / inbertitzaileak	Gobernu korporatiboaren txostena Urteko kontu bateratuen txostena Prensa oharrak eta prentsaurrekoak CNMVren eta EROSKIren webgunea	Ustelkeriaren aurka egitea Araua betetzea Jarduera ekonomikoa Datu pertsonalak babestea Berrikuntza
Ekintzaile frankiziatuak	"Zurekin frankizian" programa Zuzeneko komunikazioa Sareko Zuzendaritza Nagusiko Frankizia Zuzendaritzako langileekin	Bezeroen segurtasuna Irisgarritasuna Ustelkeriaren aurka egitea Araua betetzea Laneko osasuna eta segurtasuna Erosketa praktikak
Gobernuak	Lankidetza akordioak eta hitzarmenak Bilerak ordezkari publikoekin Enpresa elkarteak eta kontsumitzaile kooperatiben elkarteak (ACES, ANGED, AECOC, eta abar)	Irisgarritasuna Ustelkeriaren aurka egitea Produktuaren trazabilitatea Materialak Lehia desleiala
Hirugarren sektorea eta beste gizarte eragile batzuk	Bilerak hainbat erakundetako ordezkariekin EROSKI Fundazioaren Batzorde Zientifikoa Unibertsitateak: hitzarmenak, bekak. GKEak: lankidetza hitzarmenak, babesletza, jardunaldiak, standak.	Ustelkeriaren aurka egitea Efluentek eta hondakinak Araua betetzea Isurketak Elikagaiak alferrik galtzea Bezeroen segurtasuna



Memoria lantzeko printzipioak

102-45; 102-46; 102-48; 103-1

EROSKIn urtero egiten dugu lan gure interes taldeei aurkezten diegun jarduera informazioa hobetzeko eta zabaltzeko, erakundearen barruan eta kanpoan gardentasunarekiko dugun konpromisoaren baitan. Hori horrela izanik, Global Reporting Initiative (GRI) erakundearen estandar berriak oinarri hartuta egin dugu txosten hau; izan ere, 1997an sortutako erakunde independente hori da, gaur egun, mundu mailan, jasangarritasun txostenak egiteko erreferentzia esparru nagusia, eta hamarkada bat baino gehiago daramagu hura

babesten, haren GOLD komunitateko kide moduan. Global Reporting Initiative ekimenaren estandarretan jasotako irizpide eta printzipioak aplikatzean, memoriaren eta haren edukia kalitatea gure interes taldeen itzaropenekin bat etortzea bilatu dugu. Gainera, azaldutako adierazleei esker, gure emaitzak datozen urteetako emaitzekin alderatu ahal izango ditugu, baita beste erakunde batzuek aurkeztutako txostenekin ere.

Sozietate horietako batzuen ingurumen edo gizarte informazioz ez egotearen arrazoia da ez dutela langilerik edo kontsumitzaileekin zuzeneko jarduerarik, eta horregatik, ez dute inolako eraginik ez finantzarioak diren alderdi horietan. Horretaz gain, EROSKI Fundazioak tokiko komunitateen GRI-413 estandararekin lotuta egiten dituen ekintzei buruzko informazioa erantsi da.

Sozietate horietatik, honako hauek dira 2. kapituluaren (merkataritza sarea eta "zurekin" merkataritza eredua) aurkeztu genituen negozioetarako establezimenduen jabe direnak:

Memoriaren irismena

Memorian hainbat sozietateri buruzko datuak bildu ditugu, hain zuzen informazio ez finantzarioari eta aniztasunari buruzko 11/2018 Legearen eraginpekoenak. Horiek dira finantza egoera bateratuetan bildutako 27 sozietateak, nahiz eta ez guztiek izan eragina memorian

jasotako alderdi ez finantzario guztietan. Honako taula honetan sozietateen finantza egoera bateratuen xehakapena jaso da, adierazitako alderdi materialen taldeen arabera.

SOZINETATEA	ALDERDI EKONOMIKOAK ETA DATUEN BABESA	INGURUMEN ALDERDIAK	GIZARTE/LAN/PRODUKTU-BEZERO ALDERDIAK
EROSKI KOOP. E.			
CECOSA HIPERMERCADOS, SL			
EQUIPAMIENTO FAMILIAR Y SERVICIOS, SA			
CECOSA DIVERSIFICACIÓN, SL			
CECOSA SUPERMERCADOS, SL			
GRUPO EROSKI DISTRIBUCIÓN, SA			
GESTIÓN DE HIPERMERCADOS CAPRABO EISA, SLU			
SUPERMERCADOS PICABO, SLU			
PARQUE MARÍTIMO JINAMAR, SL			
FORUM SPORT, SA			
VIAJES EROSKI, SA			
CENTRAL DE SERVEIS CIENCIAS, SL			
CAPRABO, SA			
SOCIEDAD FRANQUICIAS EROSKI CONTIGO, SL			
EROSKI HIPERMERCADOS, S COOP			
ALCAMUGA, SAU			
CECOSA INSTITUCIONAL, SL			
CECOSA GESTIÓN, SA			
DESARROLLOS COMERCIALES DE OCIO E INMOBILIARIOS DE ORENSE, SA			
SOCIEDAD DE AFILIADOS EROSKI CONTIGO, SL			
JACTUS SPAIN, SL			
INMOBILIARIA RECARÉ, SAU			
GESPA FORUM, SCP			
APORTACIONES FINANCIERAS EROSKI, SA			
VEGONSA AGRUPACIÓN ALIMENTARIA, SA			
VEGO SUPERMERCADOS, SA			
MERCASH SAR, SL			

Sozietatea	HIPERMER-KATUAK	SUPERMER-KATUAK	GASOLIN-DEGIAK	AISIA ETA KIROLA	BIDAIA AGENTZIAK	OPTIKAK	ONLINE DENDAK
EROSKI KOOP. E.							
CECOSA HIPERMERCADOS, SL							
EQUIPAMIENTO FAMILIAR Y SERVICIOS, SA							
CECOSA SUPERMERCADOS, SL							
GESTIÓN DE HIPERMERCADOS CAPRABO EISA, SLU							
SUPERMERCADOS PICABO, SLU							
FORUM SPORT, SA							
VIAJES EROSKI, SA							
CAPRABO, SA							
VEGO SUPERMERCADOS, SA							



Materialtasunaren azterketa 102-49

2018an zehar 2017ko materialtasun azterketa egunera-tu eta hobetu egin dugu EROSKIn. Materialtasunaren azterketa hori erakundearen eragin ekonomikoak, ingurumenekoak eta gizartekoak islatzeko orduan eta interes taldeen erabaketan eragiteko orduan, edo ekonomian, ingurumenean edo sozietatean inpaktua sortzeko gar-aian zer alderdi diren garrantzitsuenak zehazteko helbu-

ruarekin egin da. Garrantzitsutzat jotakoak materialtasun matrizean islatzen direnak dira.

Hala, materialak izan daitezkeen gaiak identifikatzeko, ho-nako hauek hartu dira aintzat:

Iturri bibliografikoak, batez ere, GRIk argitaratutako erreferentzia-ko estandarrak, esaterako GRI Standards, edo Governance & Accountability-k eginiko sektoreko gehigarriak, Nazio Batuen Mundu Hitzarmeneko printzipioak, baita informazio ez finantzarioari eta aniz-tasunari buruzko 11/2018 Legea ere.

Merkatutik jasotako informazioa, batez ere sektoreko enpresek egi-ni-ko argitalpenak, edo EROSKIn hor-nidura sareko enpresek eginikoak.

Erakundeari eta bere interes tal-deei buruzko barneko eta kanpoko informazioa, hala nola langileekin, kontsumitzaileekin, bazkideekin, hor-nitzaileekin, hirugarren sektorearekin, administrazio publikoarekin, finantza zerbitzu eta inbertitzaileekin, eta he-dabideekin eginiko xede taldeen eta inkesten emaitzak.

Ondoren, alderdi batzuk lehenetsi dira, hau da, EROSKIn-ren-tzat eta gure interes taldeentzat garrantzitsuenak direnak aukeratu dira. Horretarako barne azterketa bat gauzatu da (EROSKInrentzat duen garrantzia), baita kanpoko azter-keta bat ere (interes taldeentzat garrantzia), identifikaturi-ko gaien garrantzi maila ezagutzeko.

Erabilitako kontsulta metodo nagusia online inkesta izan da, bai interes taldeentzat (kanpoko ikuspegia), bai erabakiak harteari dagokionez EROSKIn erantzukizu-nak dituzten pertsonentzat (barneko ikuspegia). Talde horien barruan daude Zuzendaritza Kontseilua, plantilla, frankiziak, bazkide bezeroak, bazkide kontsumitzaileak, hirugarren sektorea, hornitzaileak, administrazio publikoa, finantza zerbitzuak eta hedabideak. Prozesu horrek bere-kin ekarri du zuzeneko kontsulta bat egitea, baita kontsul-taren irismena pertsona kopuru handiago bati zabalitzea ere, eta horregatik ulertzen da lortutako emaitzek interes talde desberdinen itxaropenei hobeto erantzuteko aukera ematen dutela.

Ondoren, erantzunak haztatu egin dira interes talde ba-koitzak EROSKInrentzat duen garrantziaren arabera, eta be-rrikusi eta balioztatatu egin dira materialtasunak egoki eta modu orekatuan islatzen duela erakundearen ingurumen arloko jarduna, bai eragin positiboena, bai negatiboena.

Azkenik, materialtasun matrizea lortu da, eta bertan identi-fikatu dira erakundearen alderdi materialak.



Handia	Presentzia merkatuan Ustelkeriaren aurka egitea Berrikuntza Produktuaren trazabilitatea Datu pertsonalak babestea Efluentesak eta hondakinak Enplegua Gizarte, ekonomia eta ingurumen arloko betetzea Marketina eta etiketak Materialak Laneko osasuna eta segurtasuna	
Ertaina	Zeharkako eragin ekonomikoak Energia Prestakuntza eta irakaskuntza Jarduera ekonomikoa Irigarritasuna Aniztasuna eta aukera berdintasuna Bazterkeriarik eza Erosketa praktikak Bezeroen segurtasuna	
Txikia	Merkatuko lehiakortasuna Politika publikoa Isurketak * Elikagaiak alferrik galtzea * Biodibertsitatea Ura Kutsadura atmosferikoa Bezeroen kudeaketa Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa Gizarteratzea Lana eta familia bateragarri egitea Lehia desleiala Tokiko komunitateak * Kontsumitzaileentzako prestakuntza Langileak-enpresa harremanak Hornitzaileen ingurumen eta gizarte ebaluazioa Giza eskubideen ebaluazioa Bezeroen osasuna	
Txikia	Ertaina	Handia

- Ingurumen kudeaketa
- Konpromisoak, politikak eta kudeaketa arduratsua
- Enplegua eta lan harremanak
- Bezeroak, kontsumitzaileak eta produktuaren erantzukizuna

Gai materialak itzaleztatutako eremuetan bildutakoak dira, eta horrez gain * sinboloa dutenak erantsi dira EROSKInren jarduerarekin duten harreman eta garrantziagatik

Alderdi ekonomikoak

Jarduera ekonomikoa
Presentzia merkatuan
Ustelkeriaren aurka egitea
Berrikuntza
Gizarte, ekonomia eta ingurumen arloko betetzea
Erosketa praktikak
Hornitzaileen ingurumen eta gizarte ebaluazioa
Giza eskubideen ebaluazioa
Tokiko komunitateak

Ingurumen alderdiak

Materialak
Efluateak eta hondakinak
Energia
Isurketak
Elikagaiak alferrik galtzea

Gizarte/lan/produktu-bezero alderdiak

Enplegua
Laneko osasuna eta segurtasuna
Aniztasuna eta aukera berdintasuna - Bazterkeriarik eza
Marketina eta etiketak
Irigarritasuna
Bezeroen segurtasuna
Bezeroen osasuna
Datu pertsonalak babestea
Produktuaren trazabilitatea

Alderdi materialen zerrenda eta haiek estaltzea 102-46; 103-1

Alderdi materiala	Non sortzen da inpaktua	EROSKlren inplikazioa	Materialtasunaren arrazoa
Jarduera ekonomikoa (GRI 201)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Enpresaren kudeaketa ekonomikoak eragin handia du ha-ren interes taldeetan. Sortutako langile kopuruari eragiten dio, produktu eta zerbitzuen erosketari, merkataritza sareari, enpresa estrategiari, zorraren kudeaketari eta mozkinen ba-naketari, besteak beste.
Presentzia merkatuan (GRI 202)	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa eta zeharkakoa	EROSKI bezalako enpresa batek, lan egiten duen inguru-neko garapena bultzatu nahi duenak, tokiko garapena sustatuko duen kontratazio eta soldata politika bat eduki behar du.
Erosketa praktikak (GRI 204)	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa	Dugun erosketa bolumenak eta hornitzaile kopuruak baliz-ko eragin nabarmena dakar lan egiten dugun inguruneko tokiko hornitzaileen garapenean.
Ustelkeriaren aurka egitea (GRI 205)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Dugun erosketa bolumenak eta hornitzaile kopuruak baliz-ko eragin nabarmena dakar lan egiten dugun inguruneko tokiko hornitzaileen garapenean.
Berrikuntza	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Produktuen eta zerbitzuen diseinuan eta hobekuntzan berri-tzeak gure eskaintzaren segurtasuna eta kalitatea areago-tzen jarraitzeko aukera ematen digu.
Materialak (GRI 301)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Ontzi eta bilgarriak fabrikatzeak, erabiltzeak eta eskain-tzeak eragin handia izan dezake ingurumenean. Horrega-tik, materialen kontsumoa optimizatzea eta jasangarrienak erabiltzea eta gutxiago erabiltzea ezinbestekoa da gure bezeroentzat eta, oro har, gizartearentzat.
Energia (GRI 302)	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Energia eraginkortasuna sustatzea eta iturri berriztaga-rrietatik lortutako energia erabiltzea lehentasunezkoa da ingurumen inpaktua murriztu eta erregai fosilen erabilera saihesteko.
Isurketak (GRI 305)	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Berotegi efektuko gasek gizakien osasunaren eta klimaren gainean duten inpaktua da egungo arazo handi eta ga-rrantzitsuenetako bat interes talde desberdinentzat.
Efluentek eta hondakinak (GRI 306-11, 306-2)	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Sortutako hondakin eta isuri kopurua murriztea funtsezkoa da ingurumena zaintzeko. Hortaz, haien eragin ekologikoa minimizatzea, haiek berrerabili, birziklatu eta bestela apro-betxatuta (ekonomia zirkularra) gizarte guztiaren helburua izan behar da.
Elikagaiak alferrik galtzea (GRI 306)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Elikagaiak alferrik galtzea prebenitzeko eta saihesteko ekimenak eta ekintzak garatzea bereziki garrantzitsua da elikagaien sektorean. Zarrastelkeria murriztuta, batetik, elikagaien ekoizpen ez eraginkorra edo ez beharrezkoa mu-rrizten da eta, bestetik, gizarte inpaktu positiboak sortzen da elikagai horiek bazterkeria arriskuan diren pertsonen artean banatuta.
Gizarte, ekono-mia eta ingu-rumen arloko betetzea (GRI 307 eta 419)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Gizarte, ekonomia eta ingurumen arloko legeak betetzea ezinbestekoa da jasangarritasunarekin loturiko inpaktu ne-gatiboak bermatzeko. Gainera, zigor ekonomiko eta admi-nistratiboak ekar ditzake, baita ospearentzako arriskua ere.
Hornitzaileen ingurumen eba-luazioa Hornitzaileen gi-zarte ebaluazioa (GRI 308-414)	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Hornitzaileen katea arduraz kudeatzeak eta gizarte irizpi-deak, ingurumeneakoak eta etikoak txertatzeak gure enpre-san eta balio kate osoan erantzukizun politikak ezartzen laguntzen du.

Alderdi materiala	Non sortzen da inpaktua	EROSKlren inplikazioa	Materialtasunaren arrazoa
Empleo (GRI 401)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea funtsezkoak dira EROSKI bezalako enpresa batean, zeinetan langile asko kooperatibaren jabe ere badiren, eta zeinetan 30.000 langile zuzen baino gehiago dauden.
Laneko Osasuna eta segurtasuna (GRI 403)	Enpresa barruan	Zuzenekoa	Langileak diren gure lehentasunezko interes taldeetako bat, horregatik, osasuna eta segurtasuna sustatzea, eta laneko arriskuak prebenitzea funtsezkoa da enpresan.
Aniztasuna eta aukera berdintasuna	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Bazterkeriarik ez izateko politikak edukitzea eta aniztasu-nean, kultur aniztasunean eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean oinarrituriko lan ingurune inklusiboa izatea.
Bazterkeriarik eza (GRI 405-406)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Giza eskubideekin loturiko irizpideak erabiltzea inbertsioare-kin loturiko eragiketa, akordio eta kontratu esanguratsuetan, eta plantillari giza eskubideen politikei eta prozedurei buruz-ko prestakuntza eskaintzea.
Giza eskubideen ebaluazioa (GRI 412)	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa	Gizartean aktiboki parte hartzea lan egiten dugun komunita-teen garapen ekonomikoa eta gizarte garapena bultzatuko duten gizarte ekintzako programen bidez.
Tokiko komunitateak (GRI 413)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Elikagaiak banatzen dituen enpresa gisa, gure hornitzai-leekin batera produktu guztien kalitatea eta segurtasuna bermatzea oso garrantzitsua da guretzat.
Bezeroen segur-tasuna (GRI 416)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Produktu osasuntsuagoak eta dieta bereziei egokituak edu-kitzea oinarritzkoa da gure bezeroen premiei erantzuteko. Es-painiako gizentasun eta gehiegizko pisuaren tasa handiak direla eta, lehentasunezkoa da gizartearentzat produktu osasuntsuago eta orekatuagoak izatea. Era berean, elika-gaiei lotutako alergieen ugaritzeak eta zenbait kolektiiboren beharrek, hala nola zeliakoen kolektiiboarenek, ezinbesteko egiten dute gure dendetan haientzako elikagai egokiak iza-tea, beren elikadura premiak asetzeko aukera izan dezaten.
Bezeroen osasuna	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa eta zeharkakoa	Produktuak beren ezaugarriei buruzko informazioarekin (osagaiak eta nutrizio edukia, segurtasuna kontsumoan, ontzia birziklatzeko aukera, eta abar) etiketatzea funtsezkoa da gure bezeroen osasunarentzat eta ingurumenarentzat, eta EROSKIk gardentasunaren alde egin duen apustua berresten du.
Marketina eta etiketak (GRI 417)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Marketineko jakinarazpenetan irizpide etikoak eta eran-tzukizunekoak aplikatzeak, arreta bereizia eskaintzeak eta marketin indibidualizatuak garrantzi handia dute gure beze-roentzat.
Datu pertsona-lak babestea (GRI 418)	Erakundearen barruan eta kanpoan	Zuzenekoa	Datu pertsonalen babesa bermatzea ez da legezko bete-behar bat bakarrik, gure bezeroen eskakizuna eta EROSKI-ren konpromisoa ere bada.
Produktuaren trazabilitatea (GRI 416)	Erakundetik kanpo	Zuzenekoa	Hornikuntza katearen trazabilitatea bermatzea, prozesu eta maila guztietan, funtsezkoa da edozer eragin negati-bo prebenitzeko eta kontrolatzeko, hala arriskuak murriztu-ta, osasuna eta ingurumena bezalako arloetan.

Memorian aurkeztutako adierazleen kalkuluari buruzko informazio osagarria

102-46; 103-1

Adierazlea	Irismena	Kalkulatze metodo logia / iruzkinak
I Zuzeneko langileei buruzko informazioa (GRI 102-8, 405-1)	EROSKI Taldea	Zuzeneko langileen eta bazkide langileen kopurua 2018ko ekitaldiko azken hilabetea (2019ko urtarilla) erregistratutako datuen batezbestekoa da. Kontratu motaren, lanaldiaren, adinaren, generoaren eta kategoria profesionalaren arabera ehunekoak 2019ko urtarilaren 31ko (ekitaldiaren amaiera) datuei dagozkie. Ehuneko horiek guztira adierazitako langile kopuruari (30.501) aplikatu zaizkie. Txandakatze kopurua eta indizea erakundea honako arrazoi hauengatik utzi duten langileei dagokie: beren borondatez, kaleratzeagatik, erretiroa-gatik edo heriotzagatik.
Ordainsariei buruzko informazioa (GRI 102-34, 102-35, 102-36, 102-37, 102-38, 102-39, 202-1, 405-2)	EROSKI Taldea	EROSKI Koop. E.-ri eta Taldearen gainerako sozietateei buruzko informazioa eskaini da, ordainsari aldean arabera bereizita. Emandako datuak 2018 urte naturalekoak dira. EROSKI Koop. E.-ko kontsumo gordinaren aurre-rapenari buruzko datuak erabiltzen dira, eta gainerako sozietateetako urteko ordainsari gordinari buruzkoak. Kontsumo gordinaren aurrerapena ordainsari garbiaren eta PFEZ atxikipenen batuketa da (Gizarte Segurantzari eginiko ekarpenak batu gabe). Kooperatibaren bilakaerari buruzko datuak aurreko urteetako txostenetatik atera daitezke. Taldeari dagokionez, historiko hori ez dugu aztertu. Aurren datu horiekin lanean hasi garenez, hurrengo urtetik aurrera bilakaera ikusten has gaitezke. IBEX 35eko enpresekin alderatzeko erabilitako datuak hemendik atera dira: Informe: <i>Evolución de indicadores de buen gobierno en las empresas del IBEX 35 durante el ejercicio 2017</i>. 1.º de Mayo fundazioa; 2019ko urtarilla.
Istripu tasari buruzko informazioa eta LAPI buruzko prestakuntza (GRI 403-2, 404-1)	EROSKI Taldea	2018. urte naturaleko datuak.
Berrerabilitako ontzi logistikoak (GRI 301-3)	EROSKI Taldea (lokadura arloa)	2018ko ekitaldian EROSKI, CAPRABO eta VEGALSaren plataformetan erabilitako paletai eta plastikozko kaxei buruzko datuak.
Erakundearen energia kontsumoa (GRI 302-1)	EROSKI Taldea	Ez dago erabileren arabera xehakaturiko elektrizitate kontsumoari buruzko daturik. Kalkuluan erabilitako bihurteta faktoreak: • Kilowatt ordua megajouletara bihurtzeko: 1 kWh = 3,6 MJ. • Garraio eragiketetak erregai kontsumoa (iturria: EROSKIren kalkuluak, bere garraio flotaren arabera). • Diesel litroak gigajouletan adierazteko bihurteta (iturria: <i>Factores de emisión. Registro de huella de carbono, compensación y proyectos de absorción de dióxido de carbono</i>. MAPAMA; 2018): - Dieselaren dentsitatea: 832,5 kg/m - Dieselaren bero ahalmena: 343 GJ/t
Erakundetik kanpoko energia kontsumoa (GRI 302-2)	EROSKI Taldea	Kalkuluan erabilitako bihurteta faktorea: • Dieselaren batez besteko kontsumoa errepide bidezko lan bidaietan: 5,68 l/km. (iturria: M1 motako ibilgailuen 100 km-ko kontsumoaren batezbestekoa. IDAE-EDAIren datu basean dagoena).

Adierazlea	Irismena	Kalkulatze metodo logia / iruzkinak
Energia intentsitatea (GRI 302-3)	EROSKI Taldea	Erakundearen energia kontsumo erlatiboa kalkulatzeko adierazleak: • Merkataritza azalera: 1.298.274 m2 (2019ko urtarilaren 31n) • Salmenta garbiak: 4.698 milioi euro.
Energia kontsumoa murriztea (GRI 302-4)	EROSKI Taldea	Garraiorako erregai kontsumoaren eta energia kontsumoaren murrizketak aurkezteko 2017ko datuak erabili dira oinarritzat, horiek baitatoz bat GRIren ereduari jarraituz egin dugun lehen jasagarritasun txostenarekin.
Ur kontsumoa iturriaren arabera (GRI 303-1)	EROSKI Taldea	2018ko ekitaldiko kontsumoa kalkulatzeko edateko uraren gastutik abiatu gara. Bihurteta faktore gisa erabilitako uraren batez besteko prezioa 2,87 €/m3-koa da, eta ur kontsumoa duten hainbat sozietate edo negozio- ren fakturak aztertzeko eginiko lagin baten arabera kalkulatu da. Ez dago EROSKI hornitzen duten udalerriek ura ateratzeko erabiltzen dituzten iturri guztien erregistrorik.
Biodibertsitatea (GRI 304-1)	EROSKI Taldea	Informazio iturria: Trantsizio Ekologikorako Ministerioa. Denda frankiziatuak ez dira aintzat hartu.
Ur isuriak	EROSKI Taldea	Estimazioen arabera, isuritako ura kontsumitutako ur edangarriaren % 99 da.
Bezeroek utzitako hondakinak	EROSKI Taldea	Pilen, argien eta gailu elektriko eta elektronikoen datuak 2018 urte naturalari dagozkie.
BEGen zuzeneko isuriak (1. irismena) (GRI 305-1)	EROSKI Taldea	• Berotze Globalaren Potentziala kalkulatzeko erabilitako karakterizazio faktoreak (kg CO2eq/kg CO2, kg CO2eq/kg CH4, kg CO2eq/kg N2O, isuritako HFCak): - 2013ko IPCCko GWP100 (Iturria: CML, Institute of Environmental Sciences, Leidengo Unibertsitatea, 2016ko abuztua). - Hozgarrien nahasteetarako, dagokion karakterizazio faktorea haien konposizioa aintzat hartuta kalkulatu da (HFC bakoitzaren %-a), baita CMLren 2013ko IPCCko GWP100eko isurketa faktoreak ere (2016ko abuztua). • Gas naturalaren eta garraioko dieselaren CO2 isurketa faktoreak (iturria: <i>Factores de emisión. Registro de huella de carbono, compensación y proyectos de absorción de dióxido de carbono 2018</i>. MAPAMA; 2019): - 0,203 kg CO2/kWh-ko bero ahalmen garbia. - 0,901 kWh-ko bero ahalmen garbia/goiko bero ahalmenaren kWh. • Gas naturalaren CH4 eta N2O isurketa faktoreak 2006ko IPCCak berotegi efektuko gasen inbentario nazionalerako adierazitako jarraibideei dagozkie (Stationary combustion. 2.4. taula). • Isuriak finkatzeko ikuspegia: eragiketa kontrola.
BEGen zeharkako isurkiak energia sortzean (2. irismena) (GRI 305-2)	EROSKI Taldea	• CO2-aren isurketa faktorea mix nazionalaren arabera (iturria: <i>2018an sortutako energiari dagozkion elektrizitatearen jatorria eta etiketatzea bermatzeko sistemaren emaitzei buruzko akordioa</i>. CNMC; 2019): - 0,41 kg CO2eq/kWh • CO2-aren isurketa faktorea merkaturatzaileen mixaren arabera (Iturria: EROSKI merkaturatzaile bakoitzetik kontsumitutako ehunekoaren eta CNMCK 2018an merkaturatzaile bakoitzerako adierazitako ingurumen inpaktuko faktoreen arabera kalkulatu): - 0,28 kg CO2/kWh. • Isuriak finkatzeko ikuspegia: eragiketa kontrola.

Kexatzeko eta erreklamatzeko mekanismo formalak

Adierazlea	Irismena	Kalkulatzeko metodologia/iruzkinak
BEGen zeharkako beste isuri bazuk (3. iris- mena) (GRI 305-3)	EROSKI Taldea	• Garraioko dieselerako CO2-aren isurketa faktorea (iturria: EN 16258 araua, <i>Salgaien errepide bidezko garraioaren karbono aztarna kalkula-tzeko 2017ko gidan</i> ezarritakoaren arabera. AECOC; 2018): - 3,24 kg CO2eq/diesel litroa (sehaska-hilobia). "Hobitik tangara" faktore- rako, zuzenean isuritako 2,67 kg CO2/dieselaren litroak kendu behar dira. • Hegazkin bidaiei CO2-aren isurketa faktorea: ICAO kalkulagailuarekin kalkulaturiko 2017ko isuriaren arabera estimatu da. • Ur kontsumoagatikiko CO2 isuriak kalkulatzeko 0,298 kg CO2/m3 faktorea erabili da, honako prozesu honen bizi zikloaren azterketatik eratorria: <i>Tap water {Europe without Switzerland} tap water production, conventional treatment</i>, SIMAPROko Ecoinvent datu basekoa. • Paper kontsumoagatikiko CO2 isurietarako honako faktore hauek erabili dira, SIMAPROko Ecoinvent datu basean adierazitako prozesuen arabera: - Papera bulegoko materiala: 1,095 kg CO₂ eq/kg (Paper, woodfree, un-coated {RER} market for Cut-off, S) - Publizitate liburuxkak: Paper itzukatu arina eta paper satinatua: 1,108 kg CO₂ eq/kg (Paper, woodfree, coated {RER} market for Cut-off, S) Offset paper birziklatua: 1,157 kg CO₂ eq/kg (Adaptación de Paper, woodfree, uncoated {RER} paper production, woodfree, uncoated, at non-integrated mill Cut-off, U) Impression papera: 0,788 kg CO₂ eq/kg (Adaptación de Sulfate pulp {RER} production, elementary chlorine free bleached Cut-off) - Aldizkariak: 2,328 kg CO₂ eq/kg (Printed paper, offset {CH} offset prin-ting, per kg printed paper Cut-off, U)
BEG isuriaren intentsita- tea (GEI (GRI 305-4))	Ikus BEGen zuzene- ko eta zeharkako isuriaren irismenak (1,2 eta 3. irismenak)	Erakundearen energia kontsumo erlatiboa kalkulatzeko erabilitako adieraz-leak: • Merkataritza azalera: 1.298.274 m2 (2019ko urtarilaren 31n) • Salmenta garbiak: 4.698 milioi euro.
Hondakinak (GRI 306-1, 306-2)	EROSKI Taldea	Txosten honetan aurkezturiko EROSKIk sortutako hondakinak kudeatzaile espezializatuek tratatutakoak dira, eta kasu gehienetan aplikatuko den tra-tamendua birziklatzea eta berreskuratzea izateko irizpidearekin hautatuak. Ez dago udal zerbitzuek jasotzen dituzten udal hondakin solidoei buruzko informaziorik. CAPRABOk, oro har, udal zerbitzuen bitartez kudeatzen ditu hondakin orga-nikoak. Nafarroako dendetan, aitzitik, badute alderantzizko logistika zerbi-tzua. Autonomia erkidego horretako datuak ere jaso dira txosten honetan emandakoetan.
"Zero hondakin" programaren bidez dohaintzan emandako elikagaiak	EROSKI Taldea	Datuak 2018. urte naturalari dagozkio. Tona kopurua kalkulatzeko 1 euro= 1 kg bihurtzea aplikatu da.
EROSKI CONSUMER aldizkariaren irakurleak	Aldizkariaren argita- raldi osoa	Aldizkari bakoitza batez beste 2,5 pertsonak irakurtzen dutela jo da, eta hileko 111.680 ale inprimatzen dira.

EROSKlri jasangarritasunaren hiru dimentsioei buruzko kexak eta erreklamazioak helarazteko hainbat kanal daude. Zehazki:

Bezeroen erreklamazioak, kexak eta iradokizunak

PROSKlren bezeroaren arretarako telefonora jo daiteke (944 943 444), astelehenetik larunbatera, 9:00-22:00 ordutegian, edo honako webgune honetan eskuraga-
rri dagoen formularioa bete: www.eroski.es/contacto. CAPRABOekin harremanetan jarri nahi izanez gero, 932 616 060 telefono zenbakiaren bidez egin daiteke, ordutegi berean, edo honako webgune honen bitartez: www.micclubCAPRABO.com/atencion-cliente

FORUM SPORTEk 944 286 618 telefono zenbakia jartzen du bezeroen eskura, ordutegi berarekin, eta honako helbide elektronikoa hau: forumsport@forumsport.es. Kanal horieta-ko edozeinetan erregistra daiteke kexa edo erreklamazioa eta erakunde barruan dagozkien arduradunei helaraziko zaie, ahalik eta azkarren konponbide edo konpentsazio bat eskaini ahal izateko.

Kontratuak edo legeak betetzearekin loturiko erreklamazioak

Arauak edo kontratuak ez betetzearen inguruko jakina-
razpenak edo eskakizunak dagokien zentro edo ere-muetara bidaliko ditugu, edo zuzenean EROSKlren Depar-tamentu Juridikora. Azken kasu horretan, gaiaren arabera, Departamentu Juridikoak dagokion kudeaketa gunera bidaliko du, erantzuna lortzeko. Erantzun horretan oinarri-tuta, Departamentu Juridikoak erantzunaren dokumentua egingo du, Administrazio Prozeduraren Legearen arabera. Horrez gain, hala badagokio, erreklamazioa sorrazazuen urraketa konpontzeko neurriak ezarriko lirateke.

Langileen erreklamazioak edo kexak

Pakudeaketa administratiboekin edo lanpostuarekin lotutako kexak edo erreklamazioak egiteko, Departa-mentu Sozialarekin jar daitezke harremanetan, nagusia-ren edo pertsonen eskualdeko arduradunaren bidez, edo Pertsona Administrazioaren arduradunarekin. Jokabide Kode Korporatiboa edo Arrisku Penalak Prebenitzeko

Plana ez betetzearen inguruko salaketak egiteko, honako bide hauek ditugu: harremanetarako telefono zenbaki bat [946 211 234], postontzi elektronikoa bat [canaldenuncia@eroski.es] eta fisikoki entrega daitekeen formulario bat.

Beteazpen Bulegoko arduradunak Kontseilu Errektorea-ren Auditoretza eta Betetze Batzordeari emango dizkio salaketa kanalaren eta Arlo Sozialaren bidez jasotako salaketak. Auditoretza Batzordea arduratzen da kontsultak eta jakinarazpenak hartzeko ezarritako prozeduren funtzio-namenduaz, eta emandako erantzunak balioztatzen ditu. Gainera, laneko sexu jazarpena eta sexuagatikiko diskrimi-nazioa tratatzeko protokolo espezifiko bat dugu. Ustezko biktimak esku hartzea eskatuta jartzen da martxan; nagu-siaren, pertsonen eskualdeko arduradunaren edo Gizarte Kontseiluko kide baten bidez egin dezake eskaera hori. Instrukzio Batzorde bat sortuko da, eta horrek dagokion isilpeko ikerketa espedienteari emango dio hasiera. Behin espedientea amaitutakoan, ondorioen berri emango du; Pertsona Zuzendaritzara bidaliko du, proposatutako neu-rietatik egokitut hartzen dituenak martxan jar ditzan.

Hornitzaileentzako arreta zerbitzua

Arreta zerbitzuak kontabilitate eta finantza gaietan laguntzen die enpresa hornitzaileei, hau da, haien fakturen, mugaegunen eta EROSKIk egindako ordainke-ten eta zordunketen egoerari lotutako gaietan. Enpresa hornitzaileek bide hori erabiltzen badute beste gai batzuei lotutako zalantzak edo arazoak helarazteko, gai bakoitzari dagokion pertsonarengana edo sailera birbideratzen dira. Merkataritza kudeatzaileen zalantzak ere argitzen ditu zerbitzu horrek, hornitzailearen batekin arazoren bat izan badute edota kontuaren egoerari buruzko informazioa behar badute.

Arreta zerbitzuarekin harremanetan jartzeko, enpresa hornitzaileek telefonoa (08:30etik 13:30era eta 15:00eta-tik 16:00etara) edota posta elektronikoa erabil dezakete. Posta elektronikoa bi eguneko atzerapenarekin irakurtzen eta kudeatzen da asko jota, urteko sasoiaren arabera (or-dainketen aurreko egunak, adibidez). Horrez gain, enpresa hornitzaileek eskura duten webgunearekin bat egin deza-kete, doan, fakturen egoerara, zordunketetara eta abarrera sarbidea izateko. Zerbitzu horren eraginkortasuna baloratzeko aldera, hainbat estatistika egiten dira: urte sasoi-ko eta ordu tarteko jasotzen diren deienak, erantzundako deienak, erantzun ez diren deienak eta arreta orduetatik kanpo egindako deienak. Horrez gain, jasotako email kopurua ere kontrolatzen da, eta zer datatan bidaltzen dituzten enpresa hornitzaileek, atzerapenik izan ez dadin.



GRI edukien aurkibidea (102-55)

Gai materiala

Estandar unibertsalak

GRI 102: Eduki orokorrak

GRI es- tandarra	Edukia	Or.	Zuzeneko erantzuna / Omisioak	
1 . Erakundearen profila				
102-1	Erakundearen izena	10		
102-2	Jarduerak, markak, produktuak eta zerbitzuak	10, 11, 34,		
102-3	Egoitzaren kokapena		San Agustin auzoa, z.g. 48230. Elorrio, Bizkia	
102-4	Eragiketen kokapena	34, 186		
102-5	Jabetza eta forma juridikoa	10		
102-6	Zerbitzatutako merkatuak	11		
102-7	Erakundearen tamaina	10, 24, 35		
102-8	Enplegatuei eta beste langile batzuei buruzko informazioa	67, 152, 182, 188- 190		
102-9	Hornidura katea	97, 194		
102-10	Aldaketa esanguratsuak erakundearen eta hornidura katean	37, 97	2017ko datuak:	
			EROSKlren berezkoak: 1 hipermerkatu 4 supermerkatu 1 gasolindegia 1 bidaiaria agentzia 7 kirol materialeko denda	EROSKlren frankiziak: 1 hipermerkatu 46 supermerkatu
102-11	Arretarako printzipioa edo ikuspegia	47, 48, 111		
102-12	Kanpoko ekimenak	28		
102-13	Zer elkartetako kide den	22		
2. Estrategia				
102-14	Erabakiak hartzen dituzten goi mailako	4		
102-15	exekutiboaren adierazpena		Isilpeko informazioa. 2018an, arriskuen eta inpaktuen mapa berraztertu da.	
3. Etika				
102-16	Balioak, printzipioak, eta jokabideko estandar eta arauak	12, 182, 184		
4. Gobernantza				
102-18	Gobernantza egitura	14-17		
102-19	Agintaritzaren delegazioa	14		
102-20	Erantzukizun exekutiboaren ekonomia, ingurumen eta gizarte gaietan	14		
102-21	Interes taldeei kontsultatzea, ekonomia, ingurumen eta gizarte gaien inguruan	41, 184		
102-22	Gobernu organo goreneko presidentea	14-17, 184		
102-23	Gobernu organo gorena izendatzeko eta aukeratzeko modua	14, 184		
102-24	Gobernu organo gorena izendatzeko eta aukeratzeko modua	14		

GRI es-tandarra	Edukia	Or.	Zuzeneko erantzuna / Omisioak
102-25	Interes gatazka	21, 184	
102-26	Gobernu organo gorenaren funtzioa, helburuak, balioak eta estrategia aukeratzean	14, 15	
102-27	Gobernu organo gorenaren eza-gutza kolektiboak	14, 183	
102-28	Gobernu organo gorenaren jardue-raren ebaluazioa	14-17	
102-29	Ekonomia, ingurumen eta gizarte inpaktuen identifikazioa eta ku-deaketa	14, 184	
102-30	Arriskuak kudeatzeko prozesuen eraginkortasuna	19	
102-31	Ekonomia, ingurumen eta gizarte gaien ebaluazioa	18	
102-32	Gobernu organo gorenaren funtzioa jasangarritasun txostenak egitean		Informazio egoera ez finantzarioa biltzen duen memoria hau EROSKIko Kontseilu Errektoreak eta Batzar Nagusiak onartu dute urteko kontuen formulazioan zehar. VEGALSA-ko Administrazio Kontseiluak ere onartu du urteko kontuen formulazioa, informazio ez finantzarioaren egoerarekin.
102-33	Kezka larrien jakinarazpena	14-17	
102-34	Kezka larrien izaera eta guztizko kopurua		Isilpeko informazioa. Kontseilu Errektoreari jakinarazitako kezka larriak dagozkien bileren aktetan jasotzen dira, eta ez diraerakundetik kanpo argitaratzen.
102-35	Ordainsari politika	74, 152	
102-36	Ordainsaria zehazteko prozesua	74, 152	
102-37	Interes taldeen inplikazioa ordainsarian	74, 152, 184	
102-38	Urteko guztizko ordainaren ratioa	74, 152	
102-39	Urteko guztizko ordainaren igoeraren	74, 152	
5. Interes taldeen parte hartzea			
102-40	Interes taldeen zerrenda	144	
102-41	Negoiazio kolektiboko akordioak	67, 182, 183	
102-42	Interes taldeen identifikazioa eta hautaketa	144	
102-43	Interes taldeen parte hartzerako ikuspegia	144-145	
102-44	Aipatutako gai eta kezka nagusiak	144-145	
6. Txostenak egiteko praktikak			
102-45	Finantza egoera bateratuan sartu-tako erakundeak	146	
102-46	Txostenen edukien definizioak eta gaiaren estaldurak	146, 150, 152	
102-47	Gai materialen zerrenda	148-151	

GRI es-tandarra	Edukia	Or.	Zuzeneko erantzuna / Omisioak
102-48	Informazioaren berradierazpena	146	Aurreko memorian argitaraturiko 2017ko honako hauei bu-ruzko datuak aldatu egin dira aurreko urteetako datuekin erkatzea errazteko: • Garraioko energia kontsumoa (diesela) eta dagoz-kion berotegi efektuko gasen isurketak, irismena VEGALSA-EROSKira eta gasolindegietara zabaldu ahal izan baitugu. • Hozgarrien kontsumoa eta dagokien berotegi efektu-ko gasak, plataformetarako irismena handitu ahal izan baitugu CAPRABOn eta VEGALSA-n. • 3. irismeneko guztizko igorpenak, ur eta paper kontsu-moagatiko igorpenak bildu ahal izateko.
102-49	Aldaketak txostenak egiteko moduan	148	Gai ekonomikoei dagokienez, gai material berri gisa txer-tatu dira honako hauek: Presentzia merkatuan (aurreko prezio lehiakor eta jasangarriak gaitik eratorria, hein ba-tean), Erosketa praktikak (aurreko ekitaldian tokiko erosketa izena zuen), Hornitzaileen gizarte eta ingurumen ebalua-zioa, eta giza eskubideen ebaluazioa. Zeharkako inpaktu ekonomikoek material izateari utzi diote. Ingurumen gaiet dagokienez, gai material berri gisa sartu da Materialak (2017an ontziak eta bilgarriak eta produktuen eta ontzien ekodiseinu izena zuen), eta Biodibertsitateak material izateari utzi dio. Gizarte gaiet dagokienez, Irisgarritasuna, Datu Pertsonalen Babesa (2017an bezeroen kudeaketaren barruan sartzen zen) eta produktuaren trazabilitatea gai material izatera pasa dira; 2017an zegoen Produktu osa-sungarriagoak bezeroen osasunaren barruan txertatu da; eta Kontsumitzaileentzako prestakuntzak eta dieta bereziei egokituriko produktuek material izateari utzi diote.
102-50	Txostenaren xede aldia		2018ko ekitaldia: 2018ko otsailaren 1etik 2019ko urtarilaren 31ra.
102-51	Azken txostenaren data		2018ko ekainak 28, 2017ko ekitaldiari dagokio
102-52	Txostenak egiteko zikloa		Urtekoa
102-53	Txostenari buruzko galderak egiteko kontaktua		sostenibilidad@EROSKI.es
102-54	Txostena GRI estandarrekin bat datorrela egiaztatzen duen aitortpena		Txosten hau GRI estandarren funtsezko aukeraren arabera egin da.
102-55	GRI edukien aurkibidea	157	
102-56	Kanpoko egiaztapena	102, 104	

Gaikako estandarrak

GRI 200: Ekonomia gaiak, 2018ko bertsioa

GRI 201: Jarduera ekonomikoa

103-1	Gai materialaren eta haren estaldu-raren azalpena	146, 150-152	
103-2	Kudeaketa ikuspegia eta haren osagaiak	24-25, 146	
103-3	Kudeaketa ikuspegiaren ebaluazioa	24-25	
201-1	Sortutako eta banatutako zuzeneko balio ekonomikoa	24-25, 83, 184	EROSKI Taldearen urteko kontu bateratuak www.cnmv.es webgunean kontsulta daitezke
201-3	Mozkin zehatzen planeko eta beste erretiro plan batzuetako obligazioak		EROSKI Koop. E.-ko zenbait bazkidek ekarpenak egiten diz-kiote Lagun Aroko gizarte aurreikuspeneko plan bati. Ekar-penaren zenbatekoa aldatu egiten da. Gainera, CECOSA Supermercados eta PICABOko langileek urteko 300.000 euroko ekarpena egiten diete ekarpen zehatzeko planei.

GRI es-tandarra	Edukia	Or.	Zuzeneko erantzuna / Omisioak
201-4	Gobernutik jasotako finantza laguntza	24-25	
GRI 202: Presentzia merkatuan			
103-1	Gai materialaren eta haren estalduraren azalpena	150-151	
